

Zu hemen zaude. goiena



BERGARA ETA BEASAIN ARTEKOA, ORDAINPEKOA

2021a amaitu aurretik, Debagoienetik edozein euskal hiriburutara errepide azkarrez joan-etorria egiteko ordaindu egin beharko da / 2

Argazkian, auto gidaria Zumarraga-Urretxutik Antzuolarantz, Deskargara heltzen.

XABI URZELAI

Debagoieneko lau ikastetxe ariko dira First Lego League-n lehian zapatuan; gehienak, Arrasaten / 4

Sahararen alde 558 kilo elikagai batu dituzte Antzuolan, Anelkar-en kanpainari esker / 31

Kantauri mendilerroko kobetako arduradunak Oñatin batu dira

Turismo Bulegoan eta Arrikutzen egin dute jardunaldia; esperientziak partekatu dituzte / 36



Kobetako arduradunak Arrikutzen. IBAI ZABALA

227 igerilari ariko dira asteburuan Agorrosinen, Gipuzkoako Txapelketan / 27

Bertsolari gazteak lehian izango dira bihartik aurrera Oñatin, Dizdaitte txapelketan / 41

SINADURAK



+ puntua Joseba Asiron historialariari elkarrizketa
Irratia entzuteko ohiturak aldatu egin dira

MERKEALDIA

Zatoz eta aprobeitza itzazu
prezio bereziak
VARILUX LENTEETAN

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com



Auto bat eta kamioi bat Bergaratik Beasainera bidean, A-636 errepedean. XABI URZELAI

Oiarbide: "Erabili eta kutsatzen duenak ordaintzea da justuena"

Aldundiak A-636 errepedean, Bergara eta Beasain artean, ezarriko dituen bidesarien aurreproiektua aurkeztu du, eta, Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbidek azaldu duenez, 2021a bukatu baino lehen ordainpekoa izango da zati hori

Eneko Azurmendi BERGARA

2019ko martxo amaieran guztiz zabaldu zenetik, Bergara eta Beasain arteko autobide zati doakoa izan da, baina Gipuzkoako Diputazioak landu duen Foru Arauaren aurreproiektua hori aldatzera dator. Izan ere, gehienez jota datorren urtea amaitu aurretik ezarriko dituzte tarte horretako bidesariak.

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatua Goiena telebistan izan da asteon, aurreproiektuaren xehetasunak azaltzen. "Guk beti horren aldeko apustua egin dugu alderdi bezala, eta Batzar Nagusietan ere horrela dago erabakita gehiengo osoarekin. Epeak oso luzeak dira, eta 2021eko bukaera alderako aurreikusten dugu martxan egotea, gehienez, 2021eko abenduaren 31ean. Izan daiteke hilabete batzuk lehenago, baina

epeak markatuko digute hori", azpimarratu du.

Modu horretan, bi herrien arteko autobide zati osoa erabiltzen duten autoek 2,53 euro ordaindu beharko dituzte eta kamioiek, 5,15 euro.

Prezioak Europako Batzordearekin lantzen dituztela dio Oiarbidek. "Oso txosten zehatzak eskatzen dizkigute. Txosten horiek goitik behera begiratu ostean, sei hilabeteren ostean esan behar digute onartzen duten edo ez. Kasu honetan, ofizialki ez bada ere, oniritzia eman digute", adierazi du.

**BEASAINDIK
BERGARARA 2,5 EURO
ORDAINDUKO DUTE
AUTOEK ETA 5,15
EURO KAMIOIEK**

Ordainlekuak, arkuak

Ordainlekuak dagokienez, arkuak jartzea aurreikusten du Diputazioak. "Batetik, ez dago lekunik hor ohiko ordainlekuak jartzeko. Bestetik, ohiko ordainlekuak nahiko atzeratuta gelditzen dira gaur egun. Arkuen sistema honen teknologiari esker, informazio askoz gehiago jasotzen dugu, ez bakarrik bidesariei buruzkoa, baita trafikoari buruzkoa ere. Horrez gain, askoz kutsadura gutxiago sortzen du, ibilgailuek ez dutelako gelditu eta berriz abiatu beharrik izango ordaintzeko", dio Oiarbidek.

Hiru arku jarriko dituzte, Ezkion, Beasain eta Deskargan, "bide osoa hartuta kilometro berdintsuak hartzen dituzten zatiak direlako horiek". Hala, Beasaindik Ormaiztegirako tartea, 2,8 kilometrokoa, 0,38 euro ordainduko dute autoek eta ka-

mioiek, aldiz, 0,78 euro; Ormaiztegitik Zumarragara arteko 5,4 kilometroko tartea 0,74 euro ordainduko dute autoek eta 1,50 euro, kamioiek; Legazpi/Urretxutik Bergarara dauden 7,3 kilometroak 1,41 euro ordainduko dituzte autoek eta kamioiek, berriz, 2,87 euro. "Azkenik, Antzuolan mikroportiko deritzoguna jarriko dugu, eta horrek esan nahi du Antzuolan irtetendak 2 kilometro bakarrik ordaindu beharko dituela. Beraz, antzuolarrek egunero erabiltzen badute bide hau, egunean 20 zentimo bakarrik dira".

'Abiatu' gailuaren abantaila

Gipuzkoarrek kopuru horiek saihesteko aukera dutela azpimarratu gura izan du Oiarbidek. "2,53 euro Gipuzkoatik kanpo koentzat izango dela esango nuke. Berez, guztiontzat da, baina gipuzkoarrok daukagu abantaila handi bat, *Abiatu* gailua. Horren bitartez, deskontuak edukiko ditugu, egiten ditugun bidaien arabekoak, eta gastu muga ere edukiko dugu, 32 euro baino gehiago ez dugulako ordainduko, autobide guztiak aintzat hartuta. Bergaratik Beasainera tartea, esaterako, 2,53

**EH BILDU ETA PP
KONTRA AZALDU DIRA
ETA ELKARREKIN
PODEMOSEK EZ DU
BERE IRITZIA ARGITU**

euro ordaindu beharrean, 81 zentimo ordainduko ditugu".

Hori dela eta, gipuzkoar guztiei dei egin die *Abiatu* gailua eskuratu dezaten.

Garraiolariak kexu dira

Gipuzkoako garraiolariak kexu azaldu dira honen aurrean. Hiru sindikatutik salatu dute Aldundi sektorea "hondoratu" egin nahi duela. Oiarbidek honela erantzun du: "Guk ez dugu inor hondoratu nahi. Ulertzen dut egun guztian errepedean daudela, baina Europara joaten direnean, kexatu gabe ordaintzen dituzte beste estatu guztietan. AP-8an ibiltzen direnek ere ordaintzen dituzte. Horrenbestez, uste dut demagogia txiki bat dela. Egia da haien kontuak eguneratu egin beharko dituztela, baina hau da Europar dagoena, eta hori barneratu beharra daukagu".

Patxi Agirre kamioilari Brinkolako da, eta astean lau bat aldiz egiten du tarte hori, alde batera zein bestera. "Urte bukaeran 1.200 euro izango dira, beste zerga bat. Bidegabea iruditzen zait. Guk gure zergak ordaintzen ditugu eta politikariek administratu beharko lukete gure zergetatik jasotako dirua. Haien lanaren porrot bat da hau, eta gezurretan ari dira. Esan zuten hau atzeritarrek ordaindu behar zutela, eta orain, Beasaindik Bergarara bueltaka ari garen langileok eta herritarrok ordaindu beharko dugu".

Jokin Rodriguez kamioilari oñatiarra, bestalde, Bergararik Pasaiera joaten da. "Kontuak ateratzen hasita, dirutza da ordain beharko duguna eta ez dugu ordaindu bako erreperiderik edukiko, alternatiba gabe geratuko gara. Gauza bat da azpiegituraren mantenua ordaindu behar izatea, baina ezin gara gutxi batzuk izan guztia ordainduko dugunak. Sektoreko langileok batu egin behar dugu, eta borrokatu egin behar dugu hau horrela izan ez dadin. Sektorea jada zigortuta dago bidesariekin, eta honek ezin du horrela jarraitu", aldarrikatu du hark.

Biek ala biek aipatu dute bidesaritan ordaintzen dutena bezeroari kobratzeko aukera. "Guk taxi bat hartzen dugunean hark bidesaria ordaintzen du eta guk taxiari ordaindu egiten diogu. Tarifak bezeroen artean egokitzen joatea da kontua, eta kamioilari askok egiten dute dagoeneko", erantzun die Oiarbidek.

Hainbat herritar ez daude ados

Josune Agirre Antzuolan lan egiten duen gabiriarra da, Mutiloan bizi dena, eta hari ere zuzenean eragingo dio aldaketa honek. "Bi arkatatik pasatuko nintzateke, egunean bi aldiz, eta hori 4 eurotik gora izango litzateke egunero. Hala ere, *Abiatu* gailua egitea aztertuko nuke, ea hilabeteko gastua zenbatekoa izango litzatekeen ikusteko", dio. Hain zuzen ere, hor jarri du azpimarra diputatuak, erantzuteko orduan. "Josuneri esango nioke *Abiatu* gailua eskuratzeko, %70eko deskontua izango lukeelako, eta gastu muga. Horrela, ez luke hainbeste ordaindu beharko. Pentsatu behar du

segurtasun handiagoa eman behar diola errepide berriak".

Batzar Nagusietan, gehiengo

Diputatuaren esanetan, 2010ean du jatorria honek. "Ondorio batzuk onartu ziren Batzar Nagusietan, ponentzia baten ondoren. Hor agertzen zen Europako direktibekin bat egiten genuela eta erabiltzen duenak eta kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela. Horrekin bat eginda, eta Gipuzkoako errealtaterara eta gure errepide sarera jaitsita, erabaki genuen gaitasun handiko errepide bukatu berrietan ibilgailu guztientzako bidesaria jartzea, AP-8an eta AP-1ean dagoen moduan. Beraz, argi dagoena da Beasaindik Bergararako autobide horri dagokiola bidesaria jartzea". Hala, 2019ko azaroan onartu zuten Batzar Nagusietan mozio bat, gehiengo osoarekin, A-636an ibilgailu guztientzat bidesaria jartzea ahalbidetuko zuena.

EH Bildu eta PP, kontra

Aurreproiektu honek EAJren eta PSE-EEren babesa dauka eta horri esker onartu ahal izan dute Batzar Nagusietan. Hala ere, EH Bildu, eta PP aurreproiektuaren kontra azaldu dira.

Koalizio abertzaleak azaldu du Bidegiren "neurritz kanpoko zorrari erantzuteko partxe bat" besterik ez dela bidesariena. "Kudeaketa ezegoki batek ekarritako ondorio zuzena izan da. Gipuzkoako garraioak azterketa sakon bat behar du eta emandako pausoek sendoak eta ondo aztertutak behar dute izan eta garraio publiko indartsu bat izan behar du funtsean".

Era berean, uste du Gipuzkoak ez duela asfaltozko inbertsio gehiagoren beharrik finantza

eta ingurumen etorkizuna "hipotekatzen" jarraitzeko. "Bestelako politika publikoak behar ditugu, garapen jasagarriaren alde egingo dutenak, non garraio publiko eraginkor eta kalitatezko baten aldeko inbertsioak egingo diren eta mugikortasun aktiboa sustatuko den".

Alderdi Popularrak dio Diputazioak "aurreranzko ihesaldi" bat abiatu duela. "Horren ondorio zuzena izango da gipuzkoarrok izatea bidesari gehien ordaintzen dugunak. Guk ere uste

dugu erabiltzen duenak ordaindu behar duela, baina ezin dugu babestu Diputazioaren posizioa. Izan ere, errepideen mantenuaren urteko kostua hiru milioi euro inguruan zifratu du, eta hori baino askoz ere gehiago da bidesarien bidez lorturikoa".

Elkarrekin Podemosi dagokionez, ez du bere jarrera argitu gura izan. "Esan dezakeguna da errepide berriaren trafikoa lokala izango dela; beraz, ez da N-1 edo A-15 bezalakoa izango, non pasabideko trafiko handia

den. Oraindik ez dugu informazio zehatzagorik jaso Aldunditik, soilik hedabideetan irakurri duguna; behin jasota, gure posizioa emango dugu".

Sinadura bilketa, kontra egiteko

Aurreproiektu hau gaitzesteko asmoz, sinadura bilketa jarri dute martxan *Change.org* webgunean. Helburua da 7.500 sinadura biltzea eta dagoeneko osogertu daukate hori. Izan ere, atzora arte, 7.350 sinadura inguru zituzten batuta.




Gure ikasleen ahotsan



“Ikaste prozesuaz disfrutatzen ari naiz”

Garikoitz Barandiaran (Eskoriatza, 19 urte) Ikus-entzuzko Komunikazioa graduko bigarren maila ikasten ari Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Aretxabaletako campusean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Ikasketak Almen Ikastolan egin nituen. Ez nuen oso argi zer ikasi, baina Aretxabaletako campuseko ate irekietara joan ondoren nahiko argi ikusi nuen bertan ikasi nahi nuela. Nire zaletasun nagusia musika da.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzuzko komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ez dut inoiz argi eduki zer ikasi nahi nuen. Eta aukeratzeko momentua gerturatzen hasi zenean hainbat aukera pentsatzen hasi nintzen. Ikus-entzuzko Komunikazioa aukera polita iruditu zitzaidan, eta hainbat unibertsitatetara joan nintzen eskaintza desberdinak

ikusteko. Askogatik, Mondragon Unibertsitatea iruditu zitzaidan osoena zentzu askotan. Bai materialen aldetik, baita ikasteko ereduagatik ere.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia oso positiboa izan da. Babxilergoko urteak atzean utzita ikaste prozesuan berriz ere disfrutatzeke aukera izan dut. Baita sufritzeko ere, baina, orokorrean, oso esperientzia positiboa izan da.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Aktiboa. Hitz bakar bat erabili beharko banu, horixe izango litzateke. Gauzak oso modu praktikoan irakasten dira. Eta gauza teorikoenak ere, orokorrean, praktikotasunera aplikatzen saiatzen dira.

Unibertsitatetik zer gustatzen zaizu gehien? Eta ezer hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana askatasuna da. Unibertsitateak ikasketez gain bizitza bat dugula ulertzen du, eta lan karga eramangarria izaten da, gehienetan. Txarrena edo gutxien gustatzen zaidana tokia da. Aretxabaleta bezalako herri txiki batean grabaketa bat egin beharrak hiriburu batek ez dituen zailtasun batzuk izaten ditu, sarritan.

Etorkizunerako zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ez dut batere argi zer egingo dudun gradua bukatzerakoan. Baina etorkizun hurbilean, argi daukat lana eta ikasketak uztartzen jarraitu nahi dudala. Bigarren mailan bekadun nabil unibertsitatean bertan lanean, eta oso esperientzia baliagarria da.

Errepide azkar oro, ordainpekoa

Bidesariaren aurreproiektu hau martxan jartzen den momentutik aurrera, Debagoienetik beste edozein hiriburutara joateko errepide azkar edo gaitasun handiko errepide guztiak ordainpekoak izango dira. Beraz, debagoienarrek derrigorrez ordaindu egin beharko dute Donostiara, Bilbora, Gasteizera edo Iruñera errepide azkar batetik joan gura badute, Gipuzkoako beste eskualde batzuetan hala ez den bezala; Tolosaldean eta Goierri, adibidez.

Oiarbidek dio Debagoienaren kokapenak eragiten duela hori. "Debagoienarrok ez gara bakarrik, baina ardatzean bizi garenoi hori tokatu zaigu. Gaitasun handiko errepide bat ordaindu beharra dago eta Europatik datozen zorrotasunek hala egitera bultzatzen gaituzte", azpimarratu du.



Arizmendi Ikastolako Gaztelupeko ikasleeta batzuk. AITOR ZIARDEGI



Txantxiku Ikastolako ikasle eta irakasleak. JULEN ALBERDI



Mariaren Lagundia Ikastolako ikasleak. EKAITZ AZULA



Zuazola-Larraña Institutuko ikasleak. AMAGOIA GOMEZ

First Lego League izango dute azken erronka

Zientzia eta teknologia uztartzen dituen nazioarteko hezkuntza-programan parte hartzen aritu dira Debagoieneko lau ikastetxetako zortzi ikasle talde. Zapatu honetan izango dute orain arte egindako proiektuak aurkezteko txanda; gehienek, Arrasaten

Maialen Santos DEBAGOIENA

First Lego League nazioarteko heziketa programatik eratorritako lehiaketa da, eta gazteak zientzia eta teknologiaren arlora hurbiltzea du helburu. Inno-basqueren ekimenez, azken hilabeteetan Euskal Herri osoko 2.000 ikasle aritu dira proiektu honetan lanean, sormena, inklusioa, talde-lana... landuz. Zehazki, 51 ikastetxetako 126 ikasle-talde hartu dute parte, -tartean, Debagoieneko zortzik-.

Bihar, zapatua, emango diote amaiera orain arte egindako lanari. First Lego League Euskadiko lehen lehiaketa egoitzan zintuna jokatu dute; izan ere, aldi berean Donostian, Deustun eta Arrasaten arituko dira lehiatzen. Hiru tarte izango ditu finalak. Batetik, aurrez programatutako robot baten bitartez

erronka bat bete beharko du talde bakoitzak. Horretaz gain, planteatutako arazo bati irtenbidea topatzen saiatu beharko dira. Eta azkenik, azken hilabeteetan eskolan garatutako proiektuak aurkeztu beharko dituzte. Hala, hiru lehiaketa horietako bi talde onenak aukeratuko ditu epaimahaiak -guztira, sei euskal talde-, martxoaren 28an Tenerifen jokatu den estatu mailako finalean lehia daitezten.

Bailarako lau ikastetxe

Gehienez ere hamar pertsonako taldeetan aritu dira lanean zientzialari gazteak, sei hilabetez.

Arizmendi Ikastolako lau taldek hartuko dute parte biharko lehiaketan -Almeneko eta Gaztelupeko bina taldek-. Bestalde, Zuazola-Larraña Institutuko talde batek ere jardun du lanean,

eta Txantxiku Ikastolako beste talde batek ere hartu du parte programan. Hiru zentro horietako ikasleak Arrasaten arituko dira bihar -Goi Eskola Politeknikoan-. Horietaz gain, Mariaren Lagundia Ikastolako bi taldek ere hartuko dute parte; hauek, baina, Donostian.

Espazio jasangarrien alde

Espazio eta hiri jasangarrien aldeko proiektuak egin behar izan dituzte aurreko ikasleek, bizi eta lan egiteko ingurune hobek erraikitzea helburu. Zuazola-La-

EGOITZA BAKOITZEKO BI TALDE ONENAK AUKERATUKO DITUZTE ESTATU MAILAKO FINALA JOKATZEKO

arrañako ikasleek baserri jasangarri baten aldeko apustua egin dute, bertako irakasle Amagoia Gomezek azaldu moduan: "Oñati landa-eremu handiko herria izanik, energia berriztagarrietan oinarritutako baserri baten maketa egin dute". Aditu baten laguntza ere jaso dute proiektuan: "Ekaitz Ubide arkitektoa etorri zitzaigun eskolara azalpenak ematera. Izugarri lagundu digu". Txantxiku Ikastolako irakasle Ales Anduagak, bestalde, ikasleek erakutsitako "autonomian" jarri nahi izan du azpimarra: "Euren kabuz lan handia egin dute, beraiengandik irten dira ideiak". Hala, herriko uren hoditeria arazoak konpondu eta ur ihesak ekiditeko lanetan aritu dira bertakoak. Mariaren Lagundikoak, aldiz, batetik, uholdeei nola aurre egin ikertzen aritu dira, kalteak saihesteko; bestetik, gainpopulazioari aurre egiteko etxebizitza bloke "bereziak" sortu dituzte, Ekaitz Azula irakasleak esan duenez: "Etxebizitza blokeak gorantz hazi baino gehiago, lurpeko solairuak egiteko ideia izan dute". Arizmendiko ikasleek, azkenik, jasangarritasuna "bultzatzeko" aplikazio bat sortu dute, etxeak eguzkiaren bitartez argiztatu daitezten lortzeko. Hala azaldu du Aitor Ziardegi irakasleak.

Zabalik dago Hazilan proiekturako izen-ematea

Gazte kualifikatuen laneratzea erraztea helburu, otsailaren 21ean ekingo diote 8. edizioari

M.S. DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak sustatutako Hazilan proiektuak eskualdeko pertsona kualifikatuen laneratzea erraztea du helburu. Bi fasetan banatzen da: lehenik, konpetentzia pertsonal eta profesionalean trebatzeko 80 orduko tailer bat egiten dute gazteek, eta gero, eskualdeko enpresetan praktikak egiten dituzte lan-esperientzia hartzeko helburuarekin. Parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira: 20-44 urte bitartean izatea, goi-mailako ikasketak amaituta izatea -goi-mailako ziklo bat edota unibertsitate ikasketak- eta Debagoieneko herriren batean erroldatuta egotea. Otsailaren 17ra arte eman daiteke izena, Mankomunitatearen webgunean; izan ere, behin hautaketa prozesua eginda, otsailaren 21ean ekingo diote proiektuari.

Era berean, enpresek dagoeneko egin ditzakete gazteak praktiketan hartzeko eskaerak.

Aurkezpen jardunaldia

Proiektuaren berri emateko eta zalantzak argitzeko, urtarrilaren 31rako, ostirala, 10:00etarako, aurkezpen jardunaldia antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak, interesa duten guztiei zuzenduta. Jardunaldia egoitzan bertan izango da (Nafarroa etorbidea 17, Arrasate). Bertaratzeko asmoa duenak jakinarazi egin behar du; 943 79 30 90 telefonora deituta edo mezu bat bidalita hazilan@debagoiena.eus helbide elektronikora.

GUTUNAK

Urtarrilaren 30eko grebaren harira**IGNACIO ARRIOLA**

BERGARAKO EAJKO UBB-REN IZENEAN BERGARA

Geure buruari eta gizarteari bere osotasunean jartzen dizkiogun erronkak, helburuak, oso goresgarriak izan daitezke, baina helburua lortzea bezain garrantzitsua izango da horretarako erabiltzen dugun bidea.

Besteekiko –autonomo, enpresa eta komertzio txiki edo ertain– erabilitako gogorkeria, indarkeria, hertsadura, izua, beldurra eta horrelako jokamoldeak gure gizartean gaindituak eta ahaztuak genituela uste genuen.

Jokaera hauek gizarte bezala lortu nahi ditugun

helburuak eta gizartea bera hondatzen dituzte, eta, azkenean, elkarbizitzak nozitzen du hau.

Pasa den urtarrilaren 30ean, hori gertatu zen.

Piketeek eragile ahulenganako gogorkeria eta izua erabili zituzten.

Hau ez dago ondo. Ez da bidezkoa.

Gure helburuak eta elkarbizitza defendatu nahi baditugu, ezin da errepikatu.

Autonomo, enpresa eta komertzio horiek ezin izan zuten aukeratu egin nahi zuten hori, erabakitzeo eskubidea askatasunez gauzatu, eta hori ez dago ondo.

Gure elkartasuna horiei guztiei.

HANDIK ETA HEMENDIK

'Si no sabes euskera, ¡aprende!'**RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA**

HTTPS://LABUR.EUS/CHBPJ 'ARGIA.EUS'-EN ARGITARATUA

Rosa Martinezen euskara mailagatik sortu den polemika dela eta, gogoratu naiz duela ia hogeit urte Gasteizko hainbat lagun holako pegatinak itsasten ibiltzen ginela parranda gauetan. Pegatinak, gainera, bazuen hatz erakuslea ikusleari zuzendurik. Artean, Unidad Alavesak *euskera voluntario* kanpainak bazuen oihartzuna Gasteizen. [...]

Era guztietako ikasleak izan nituen euskaltegian. Jendea matrikula-saria (gu ahalik eta merkeena jartzen saiatu, eta, hala ere, garesti) ordainduta etortzen zen. Orduan, ordutegi ugariena gaueko 20:00etatik 22:00etara zen, astelehenetik ostiralera. Egun ia hutsik dago ordutegi hori. Nola aldatu diren gauzak, kamarada. Neuri ere

nagi infinitua emango lidake asteko 5 egun, ordutegi horretan, eguna ostendu, eta gorputza *Aski da!* oihuka ari zigularik, euskara maiteari emateak.

IVAPera, berriz, goizez joaten ginen, han funtzionario eta funtzionario-gaiei ematen genien eskola, beren lan-orduetan. Autobusez eramaten zituzten. Aukeran ere bazuten barnetegietara joatea, hori ere administrazioaren kontura eta beren lan-egunetan. Bertan, IVAPen, entzuten genituen euskararen kontrako kexa gehien. [...]

A ereduak ikasi duen pertsona batentzat zer da normalagoa, euskara maitatu eta bi-hiru urtez ikasi nahi izatea (gehienetan norbere poltsikotik ordainduta) ala euskara (herrialde txiki bateko hizkuntza gutxitu eta garesti hori) ez hainbeste maitatu eta ez ikastea?

Euskararen ifrentzu gaztelania. Aurrekoan Gasteizko EPAn helduei gaztelania eskolak ematen dituen lagun bati galdetu nion zenbat ikasle dituzten. Hiru-lau mila lagun. Gasteizen gaztelania debalde ikasten.

Euskarazko murgiltze-eredu publiko eta bakarria ezarri, eta pertsona gazte-heldu guztiek euskara guztiz debalde (ez diruz lagundua) izateko eskubidea ez duten bitartean, zer ari gara pertsonen euskara ez dakitela leporatzen eta arbuiatzen?

Pertsona batek euskara ikasi ez izanagatik egin dugun kritika bakoitzeko euskararen doakotasuna eta unibertsaltasuna borrokatzeo erabili bagenu, euskararen herri zabalago batean biziko ginateteke.

Post gehiago 8. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



goiena

ADI!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatuko da otsailaren 12an. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin. Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori. **Famili bakarreko etxeetan**, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: Televisioldigital.gob.es.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



ZABALIK

LANDER BELOKI

Natura eta ekonomia

Azkenaldian, klima aldaketari buruzko berriak ditugu nonahi. Zientzialariek urteak daramatzate arrisku honi buruz edonor ohartarazteko moduko ikerketa-emaitzak argitaratzen. Horren guztiorren eraginez, kontzientzia globala sortu da, bai agintari publikoan, baita hiritar gehien artean. Premia larriko arazo baten aurrean gaude eta neurriak hartu beharko ditugu.

World Economic Forum-ek txosten bat argitaratu du, *Nature Risk Rising* izenburuarekin. Bertan, gizakiok naturan edukitzen ari garen eraginari buruzko hainbat datu larri agertzen dira: hurrengo hamarkadan milioi bat espezie desagertzeko arriskuan daude, mundu osoko izoztu gabeko lurren hiru laurdenetan eta itsas ingurugiroaren bi herenetan sakoneko eraginak eta atzera bueltarik gabek sortzen ari gara. Datu bat: 2020ko *Global Risks Report* txostenean, bioaniztasunaren galera eta ekosistemen kolapsoa gizakiok datorren hamar urteetan

ENPRESEK ZERESAN HANDIA EDUKI DEZAKETE ARAZO GLOBAL HONI AURRE EGITEKO

jasan ditzakegun bost arrisku larrienen zerrendan jaso dira.

Gizakion jarduera ekonomikoa bioaniztasunaren oinarritzen da. Munduan sortzen den BEGren erdia naturarekin eta bere egoerarekin zuzenean dago lotuta: naturaren egoeraren

okertzeak ekonomian eta merkatuetan ere eragin zuzena dauka.

Ondorioz, enpresek eta merkatuek ardura zuzena daukate emergentzia honi aurre egiteko estrategian. Enpresek naturan duten eragina beren prozesu eta erabaki hartzeen erdigunean jarri beharra daukate. Naturaren egoera bakoitzaren arrisku maparen baretik aztertu, ebaluatu eta landu beharreko zerbait bilakatu da. Enpresek zeresan handia eduki dezakete arazo global honi aurre egiteko. Batetik, gizartearekiko duten ardurarengatik. Bestetik, bezeroek gero eta kontzientzia handiagoa dutelako egoeraren larritasunaz eta euren kontsumo joeretan aldagai honi gero eta garrantzia handiagoa ematen diotelako. Aldaketak sustatzeko tresna garrantzitsuenetako bat martxan jarri beharreko politika publikoak izango dira. Azken finean, hemen ere eraldaketa handi baten beharrean gaude. Naturaren iraupena bermatuko duen jarduera ekonomikorantz egin behar dugu aldaketa. Eta eraldaketa guztietan bezala, mehatxuak bai, baina aukera berriak ere sortuko dira.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ametsak eta amesgaiztoak

ARANTXA URRETBIZKAIA BEJARANO
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Vox-eko lau katu pankarta baten atzean.

Hamabi lagun Gasteizen, hamahiru Donostian, berrogeita hamar Bilbon, Espainia eskuinerantz eta atzerantz bultzatu nahian. Ezer gutxi dirudi, baina kontuz. Azken martxoaren zortzietan kaleak gainezka bete dituen jendeketari pankarta baten atzean bildutako lau katemek eman zion hasiera eta tenore berean bildu dira urtetan gutxi batzuk gure planetaren defentsan.

Zergatik egiten dute gora aldarri batzuek eta beste batzuek ez?

Zein da gorantz bultzatzen dituen palanka?

Gustatuko litzaidake pentsatzea arazoia alde dutenek, gizartea hobetzen duten aldarriek egiten dutela aurrera eta berez galtzen dutela indarra atzerantz jo nahi dutenek.

Baina jakin badakit ez dela horrela, atzerabidea beti delako posible.

Ez dakit ondo zer sentitzen duten gazteek gizartea atzerantz bultzatu nahi dutenen aurrean. Diktaturapean heldu ginenez artean, berriz, bi joera bereiz daitezke: sasoi hartan paradisua bizi izan zutela

pentsatzen dutenen poza eta sasoi hartan infernua ezagutu genuenon beldurra.

Diktaturaren babesean eroso sentitu zirenak dira orduko balioen galera aipatzen dutenak, balio horien oinarria bestean zapalkuntza izan ez balitz bezala.

Militarren lehentasuna, Elizarekiko menpekotasuna, desberdinaren bazterketa, agintariarekiko beldurra.

Hori da pankarta baten atzean Espainiako banderen babesean bildutako Vox-ekoek amesten dutena.

Haien ametsa besteon amesgaiztoa da.

Post gehiago 6. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika
Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen
aldizkari honetako orrialdeetan
kolaboratzaileek adierazitako
iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Pieza arinagoak egiteko soluzioa eskaintzen dugu"

UNAI ARGARATE FAGOR ARRASATEKO IKERLARIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Fagor Arrasatek kostuen murrizketa handia lortu du automobilgintzako piezetarako karbono-zuntzez indartutako konpositeen fabrikazioan; hain justu ere, %30 merkatzea sport-autoen kapotaren fabrikazioa.

Kooperatibako ikerketa saileko koordinatzaile Unai Argarate elgoibartarrak dihardu gaiaz.

Autoetarako piezetan kostuak merkatzea lorpen handia da lehiakortasunari begira?

Makina ekoizleak gara gu, ez gara osagai ekoizleak. Beste batzuek erabiltzen dituzte gure makinak, osagaiak fabrikatzeko. Kasu honetan, autogintzarako. Bezeroei aukerak eskaini nahi dizkiegu, gure makinekin, osagai arinagoak ekoizteko. Makinak esaten dudanean, soluzio globalaz ari naiz: prentsak eta automatizazioa.

Osagai arin horiek ekoiztea merkeagoa ala garestiagoa izaten da?



Unai Argarate, erakusketa azoka baten. FAGOR ARRASATE

Sarritan, garestiagoa. Eta guk lortu dugu material honekin, karbono zuntzarekin eta erretxina termoeogonkorrarekin, prozesua optimizatzea. Lehengai garestia izanik ere,

eskaintzen dugun ekoizpen modu eta makinekin, fabrikazio prozesua merkatzea lortzen dugu.

Autoak gero eta arinagoak egiten dira, zenbat eta arinagoa gutxiago kutsatzen duelako.

Arautegi geroago eta zorrotzei erantzun behar izaten diezue?

Bai. Autoek gutxi kontsumitzea da gakoa, izan elektrikoak edo izan erregaiz ibiltzen direnak. Eta gutxiago kontsumitzeko faktore garrantzitsuenetakoa da gutxiago pisatzea. Egun, altzairu edo aluminio geroago eta gogoragoak erabiltzen dira eta baita material konpositeak ere. Gure erroka da fabrikazio instalakuntza egokiak eskaintzea auto fabrikatzaileei, material arin horiekin ekoizteko.

Kirol-autoetako kapotak ekoizteko makinak dira eskaintzen dituzuenak. Kirol-autoen piezak bereziak dira?

Ez da iguala auto modelo arrunt eta masiboak fabrikatzea edo luxuzko sektoreetarako fabrikatzea. Luxuzkoetan, material garestiagoak erabiltzen dira, lan asko eskuz egiten dira... Karbono zuntza ezin da erabili produkzio masiboan. Garestia da. Gure proposamenak eskaintzen du produkzio masiboan kostuak murriztea, ekoizpen prozesu egoki eta merkeagoaren bidez.

Harrera ona izan du?

Bai. Egia esan, balio handia da eskaintzen duguna. Pieza ekoizleei eta auto ekoizleei

eskaintzen diegu soluzio bat lehiakorak izateko, makina eta sistema egokien bidez eta karbono-zuntza erabilita. Sumatu dugu merkatuan hasi direla erabiltzen. Urte askotako garapena izan da, ezagutza eta azterketa teoriko-praktikoa erabili dituen.

Nortzuk aritu zarete instalazio oso hau garatzeko?

Fagor Arrasate, Koniker, bere ikerketa unitatearen bidez, eta Mondragon Unibertsitatea. Horretaz gain, proiektu europar bateko parte izan da eta aritu gara Suitzako unibertsitate batekin, Italiako pieza ekoizle batekin, Frantziako ekipamendu hornitzaile batekin eta Austriako tresneria ekoizle batekin.

Aldatzen ari da autogintza sektorea azkenaldian. Zelan egiten diezue aurre erroka berriari?

Sektorea geldione baten dago, auto elektrikoek eraginda. Makineria ekoizleak gara, autoen txasisa eta gorputza egiteko erabiltzen dira gure makinak, eta, egia esan, guri ere eragiten digu auto elektrikoak edo bestelakoa izan, baina bereziki auto arinak ekoiztea da erroka, eta horiek egin ahal izateko sistema eta makina egokiak ekoiztea. Horretan ari gara.

ITURRI ONETIK

Xabi Solano eta 'Bi' ikuskizuna Seminarixoa

Xabi Solanok Seminarixoa aurkeztuko du *Bi* diskoa martxoaren 20an, barikuan, 19:00etan. Sarrerak laster jarriko dituzte salgai, 8 eurotan. Debagoiengan ikuskizun honekin eskainiko duen lehen emanaldia izango da. Etxakit eta Esne Beltza taldeetako abeslariak bakarka grabatu duen bigarren diskoa da *Bi*. Abenduan aurkeztu zuen. *Bi* diskok osatzen dute: bata abesti berriekin osatutakoa eta bestea bertsoekin. Bergaran, bost musikari eta lau dantzari izango dira agertokian.

ALBISTE IZAN ZEN

2012-02-02

Iragarritakoa baino elurte handiagoa

Udaberri edo udako eguraldia eta temperatura albiste izan da otsailaren hasiera honetan, negu-neguan murgilduta egon arren. Duela zortzi urteko otsail hasierako elurteak, ordea, bazterrak zuritu eta hainbat arazo sortu zituen errepideetan; mendateetan, bereziki. Argazkia Arrasate eta Aramaio artean ateratakoa da. Ibilgailuak errepidean gelditu, ez atzera ez aurrera. Ezustean etorri zen: iragarritakoa baino askoz handiagoa izan zen.



HAU BE BADOGU!

Indartsu bueltatu da' Egunean behin'

Eskuko telefonoetarako aplikazio bidez egunean behin egiten den euskarazko jokoak astelehenean hasi zuen denboraldi berria:

@beharko: "Ba al dago eguna 10 batekin hastea baino gauza politagorik? #eguneanbehin".

@joniubeda: "7/10, Euriborraz zipitzik ez. #eguneanbehin".

@markgasteiztarra: "Laneko taldea sortu dugu! Astero azkenak mintegi-bilerara hamaiketako eraman beharko du!".

@aikerleivah: "Denboraldi berria eta sasoi betean nago".



Jose Ramon Petreñas, Javier Mentxaka eta Ugutz Unamuno. ARRASATE ATLETIKO



Behean, garaikurrarekin, Rosa Mari Otxandiano, taldeko emakumezkoen lehen belaunaldikoekin batera. ARRASATE ATLETIKO

75 urte herriko atleten zerbitzura

Urteurreneko ospakizunak ganoraz amaitzeko argazki erakusketa jarri du Arrasate Atletiko taldeak Kulturateko klaustroan, hilaren 16ra arte. Klubaren etapak argazki bidez jarrai daitezke, eta baita atletek lortutako markak ere, modu bisual eta bitxian

Xabi Gorostidi ARRASATE
Atletismoak, modu ofizialean, 75 urte bete ditu Arrasaten. 1944an, Juventud Deportiva Mondragon izenarekin hasi ziren lehen atletak, eta, 1987az geroztik, Arrasate Atletiko izenpean.

Hala, 2019an, 75. urteurrena ospatzea egokitu zaie klubekoei. Ez dute aukera alferrik galdu, eta hainbat ekintza antolatu dituzte: *Txufi* Etxeberriari omenezkoa maiatzean, Kirola Kalera ekitaldia irailean, Santamas

Krosa abenduan, eta, azkenik, klubaren ibilbideari buruzko erakusketa.

75 urteko ibilbidean gauza asko pilatzen dira, baita argazkiak ere. Izan ere, 2.000tik gora batu dituzte zuzendaritzako lagunek,

eta horien artean aukeraketa sakona egin behar izan dute, ostean erakusketan erabiltzeko.

Klaustroan zehar hainbat panel jarri dituzte, taldeak Juventud Deportiva Mondragon izena zuenetik gaur egunera artekoak: 1965. urteko prentsa-ebakinak, 1969. urte aurreko argazkiak, 1969. eta 1980. urte bitartekoak, 1980-1987 urte artekoak, Arrasate Atletikoren lehen urteak, Mojategira salto egin zutenekoak, atleta nabarmenduak, Arrasateko atleten errekorak eta markak, eta, azkenik, Fernando Zufiria *Txufi*-ri eskainitako panel bat ere bai.

Lehen urteen arrasto gutxi

Kluba 1944ko maiatzean erregistratu zen Gipuzkoako Federazioan, baina gaur egungo presidente Jon Ormaetxeak dio ez dagoela orduko erreferentzia

handirik. "Kluba sortu zeneko prentsa-ebakin bat dugu, eta, ostean, apenas dago klubari erreferentziarik prentsan. Lehen urte haietako klubaren dokumentazioa ez dakigu non dagoen; beraz, ez dakigu non entrenatzen ziren ere".

Hala ere, 1965eko taldeko argazki batzuk badituzte, eta urte hartan, adibidez, Arrasateko kluba laugarren izan zen Elgoibarko Mugertza Memorialean. Handik urte pare batera, ordea, gauza bitxi bat gertatu zen: "Ez dakigu ondo zergatik, baina 1967. eta 1968. urteetan klubeko atletak Bergarako taldera pasatu ziren. Handik bi urtera berriz itzuli ziren Arrasatera; beraz, baliteke arrazoi logistikoengatik izatea".

1969an, Juventud Deportiva Mondragonentzat aro berri bat hasi zen, atleten itzuleragatik eta, batez ere, zuzendaritza be-

Klubaren intsignia jaso duten presidenteak



LUIS MORA

1969tik 1974ra klubeko presidente izan zen. Ez zen zuzendari izatera mugatu eta, hain zuzen, entrenatzaile ere jardun zuen etapa hartan.



ANTONIO ARANA

Presidente lanetan aritu zen 1974tik 1975era. Hori ez zen oztopo izan aldi berean epaile lanak egiten jarraitzeko Atletico Nacional-en.



CARLOS ARIZABALETA

Atleta aritu ostean, klubeko presidente izan zen 1977tik 1979ra. Haren arreba klubeko lehen emakume atleten belaunaldiko parte izan zen.



JOSE MANUEL ALVAREZ

Aurrez atleta izandakoa, kluba zuzendu zuen 1979tik 1982ra. Aspalditik bizi da Arrasatetik kanpo, eta ezin izan da intsignia jasotzera etorri.



JOSE IGNACIO ELORZA

Klubean lan itzela egindakoa. Presidente izan zen 1975etik 1977ra, eta, ostean, berriz errepikatu zuen: 1982tik 1987ra eta 1987tik 1992ra.



JON ORMAETXEA

Azken 28 urteetan klubeko presidentea. la hiru hamarkada presidente, eta gaur egun taldeak duen harrobi emankorren arduradunetako bat.

rriagatik: "Mora, Elorza, Unzue, Zufiria, Etxagibel eta Marrodan elkartu eta zuzendaritza berria sortu zuten, eta hor hasi zen Arrasateko atletismo modernoa".

1969 eta 1987 arteko etapa

Garai hartan hasi zuen taldeak ibilbide formala. Iturripeko pistetan entrenatzen ziren, eta, egonkortasun horren eskutik, klubeko atletak emaitzak pilatzen hasi ziren. "Rosa Mari Otxandiano izan zen klubeko lehen nazioarteko atleta. Tamalez, ez zuen apenas oihartzunik izan, emakumeen kirolak ez baitzuen gaur egun duen ikusgarritasunik", azaldu du klubeko presidente Jon Ormaetxeak.

1987an izen aldaketa

Urte hartan, Juventud Deportiva Mondragon desegin egin zen, eta Arrasate Atletiko jaio. "Lehen, Gurea zinematik finantzatzen ginen herriko kirol klubak: Mondra Futbola Taldea, saskibaloia, Besaide Mendizale Elkarte... Baina gero eta diru gutxiago ematen zuenez, taldeak zirkulu horretatik irteten hasi ziren, euren kabuz finantzaketa lortzeko. Horrez gain, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak campusa handitu zuen, gure atletismo pista gaur egun dagoen *minipista*-ra mugatzeko. Arazo guzti horien artean klub berri bat sortzea erabaki zuten zuzendaritzakoek: Arrasate Atletiko

taldea. Atleta eta zuzendari berak ziren, baina izen berriarekin. Ez ziren urte errazak izan, batez ere, entrenatzeko leku egonkorrik ez zutelako. "Unibertsitateko atzealdeko errepedean eta Auzolaguneko zuzenean entrenatzen ginen, ez baikenuen beste tokirik. *Txufi* handiaren ideia izan ziren lokalizazioak, eta hala aritu ginen bost urtez, 1992an Iturripeko *minipista* erabiltzen hasi ginen arte. Gaur egun ez dira ikusten, baina urte luze ikusgai egon ziren Garagartzako bidegorrian serieak egiteko lurrean egiten genituen markak: 100 metrokoak, 150 metrokoak, 200ekoak...".

Esan bezala, 1992an, Iturripeko pistan hartu zuten ostatu, eta 2007an, ostera, Mojategira lekualdatu ziren.

Gaur egungo argazkia

Arrasate Atletikoren osasun egoera zein den galdetuta, presidentea baikorra da: "Gaur egun, 22 federatu ditugu, eta eskola mailan 100 atleta gazte inguru aritzen dira gurekin. Argazki horretan nabaria da neska gehiago daudela gizonezkoak baino. Zoritxarrez, futbolak pisu handia du, eta mutil askok horren aldeko apustua egiten dute, baina, kasu batzuetan, futboletik atletismora itzultzen dira. Bestalde, oso poztugarria da klubean hasi ziren atleta gazteek gaur egun duten maila ikustea: Istar, Maialen, Malen, Iñigo...".



1987an ateratako familia argazkia, Arrasate Atletiko izena hartu berritan. ARRASATE ATLETIKO

SAN VALENTIN ON EGIN!



Zu gabe ez garelako ezer, zoriontsu ez bazara gureak ez duelako zentzurik, elkarren beharra dugulako eta gure maitasunak urte asko iraun dezan... **otsailaren 14ko afaria gure kontu!**

Egin erosketak Arrasaten edo eman izena www.ibaiarte.eus-en eta parte hartu afarien zozketan.



Taldeko atletek lortutako markak

Emakumezkoak

- **100 metro** Eukene Dorronsoro: 12.78 segundo (aire zabalean).
- **200 metro** Matilde Garai: 25.40 segundo (aire zabalean).
- **400 metro** Rosa Mari Otxandiano: 56.62 segundo (aire zabalean).
- **Altuera-jauzia** Jaione Agirreurreta: 1,65 metro (pista estalian).
- **Pertika** Maialen Axpe: 4,50 metro (pista estalian).
- **Luzera-jauzia** Malen Ruiz de Azua: 5,55 metro (aire zabalean).
- **Salto hirukoitza** Malen Ruiz de Azua: 12,03 metro (pista estalian).

Gizonezkoak

- **100 metro** Ibai Fernandez: 10.77 segundo (aire zabalean).
- **200 metro** Jose Antonio Gay: 21.56 segundo (aire zabalean).
- **400 metro** Jose Antonio Gay: 47.35 segundo (aire zabalean).
- **Altuera-jauzia** Gaizka Mondragon: 2,05 metro (pista estalian).
- **Pertika** Istar Dapena: 5,40 metro (aire zabalean).
- **Luzera-jauzia** Iñigo Urizarren: 7,37 metro (aire zabalean) eta Eneko Carrascal 7,37 metro (pista estalian).
- **Salto hirukoitza** Iñigo Urizarren: 16,17 metro (pista estalian).





Jovino Martinez Sierra arkitektoak egindako proiektuaren zirriborroa. JOVINO MARTINEZ SIERRA

Kulturolak 900.000 euro jaso ditu Foru Aldunditik

2020ko foru aurrekontuetan EAJK emendakin bat sartu ostean, propio sortutako partida bati esker lortu du Udalak dirulaguntza. Jaurlaritzak 186.440 euroko laguntza eman zion 2018an; beraz, guztira, 1.100.000 inguruko babesu lortu du proiektuak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agerraldia egin zuten pasa den asteazkenean Maria Ubarretxena alkateak eta Jose Ramon Mendieta Kultura zinegotziak, Kulturola finantzatzeko laguntzako "guztira 1.100.000 euro" lortu dituztela jakinarazteko. Aipatu dutenez, bi lekutatik lortu dute finantzaketa: "900.000

euro Gipuzkoako Foru Aldunditik eta 200.000 euro Eusko Jaurlaritzatik" –azken laguntza honen berri 2018ko martxoan eman zuten–.

"Berritzaile" eta "esanguratsu"

Bi leku horietan egin zuten dirulaguntza eskaera, eta "berritzaile eta esanguratsu" izatea-

gatik eta "izaera komunitarioa edukitzeagatik" lortu dituztela azaldu zuten, besteak beste; baita "ondare historiko-industrialaren sustatzeagatik" ere.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, *Euskal kultura ondarearen garrantzia azpimarratzeko eta hedatzeko* programaren bidez lortu dute 186.440 euroko lagun-

tza. Hiru ekitalditan banatuta jasoko dutela azaldu zuten; 62.146.67 euro 2019an, 62.146.67 2020an eta beste horrenbeste 2021ean.

900.000 euroko laguntza, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontutik dator, espresuki Kulturolarentzat sortutako partida batetik.

"EAJK emendakin bezala eskatu zuten aipatutako dirulaguntza, eta onartua izan zen", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak. Hala, 2020an 550.000 euro jasoko ditu Udalak, eta 2021ean, gainontzeko 350.000 euroak.

"Dirulaguntza garrantzitsua"

"Askotan entzun dugu gure bailarara ez dela Diputazioko dirua heltzen, eta Donostia bezalako lekuekin alderatuta baztertu antzean gaudela. Horregatik, asko pozten gaitu Arrasate moduko herri batentzat halako dirulaguntza garrantzitsua bat lortu izanak. Berri oso ona da erakunde ezberdinetatik Kulturola jasotzen ari den babesu. Kulturola Arrasateko zein eskualdeko Kulturaren sormen eremu eta bilgune izango da. Proiektu estrategikoa da, eta herriko zein eskualdeko mugimendu kulturalaren traktore izango da. Kulturaren bueltan dabiltzan sortzaileen bateragune. Gure artea, musika, diseinua... sorkuntza lan oro bultzatzeko faktoria", adierazi zuen Maria Ubarretxenak pasa den

astean egindako prentsa agerraldian.

%87, aurreztuta

2020ko aurrekontuetan 500.000 euroko partida ezarri zuen Gobernuak Kulturolarentzat. Aurreko ekitaldietan ere proiektua finantzatzeko joateko partidak ezarri izan dituzte, eta 2020ko partidarekin %87 aurreztuta egongo litzateke. Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza %87 horren barne legoke, eta horri guztiorri Aldundiaren 900.000 euroak gehitu behar zaizkio.

Lanak "martxa onean"

Kulturola eraikina birgaitzeko lanak 2019ko urrian hasi ziren exekutatzeko. Lanen aurrekontua, guztira, 6.150.000 eurokoa da eta zaharberritze lanak Construcciones Moyua SL enpresak egingo ditu. Proiektuaren diseinua, aldiz, Jovino Martinez Sierra arkitekto asturiarraren bulegoak egin du.

Obra amaitzeko epea, hasiera batean, hamasei hilabetekoa da, eta une honetan eraikinaren barruko eraispen lanak aurreratu daude, baita estalkiarekin lotutakoak ere.

BIRGAITZE LANAK 2019KO URRIAN HASI ZIREN ETA HAMASEI HILABETEKO EPEAN AMAITZEA DA ASMOA



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Herri kohesioa

Hezkuntza eremuan sortutako dinamikek elikatzen dute etorkizuneko gizarteak. Bada garaia argi hitz egiteko Arrasaten dugun egoeraz eta, honenbestez, etorkizunean nahiko genukeen gizarteaz. Herri kohesioa dugu jokoan. Hezkuntza formala guztiz merkantilizatuta egonik, hezkuntza ez formalean ez dago inolako udal politikarik beratu etxe guztietara hel dadin. Garbiago esanda, badakigu herri honetan norengana heltzen diren kirola, musika edota hizkuntzak. Triste da askori bost axola izatea, baina are larriagoa arduradun politikoek zenbait erakunderi, egundoko dirutzak eta azpiegiturak bideratu arren, ez exijitzea inongo beka sistemarik atea benetan zabal ditzaten.

Hezkuntzak aukera berdintasuna bermatzen du, hori genuen kooperatibismoaren oinarrietako bat. Herritarren arteko desorekak desagertzeko biderik justuena hezkuntza guztion eskura jartzea da, dinamika klasista eta baztertzailak atzean utziz. Begirada eta lan garbi bat behar dugu, modu zabalean herritik hezkuntzara eta hezkuntzatik herrira eragiteko.

'Hala bazan!' saioaren hurrengo kapitulua, hilaren 13an

Arrasatearren artean zeresana eman duen saioa bueltan da berriz ere. Etenaldi txiki baten ostean, Aratusteei buruzko hiru saio berri prestatu ditu Julen Iriondo Goienako kazetariak.

90eko hamarkada eta Aratusteei buruzko hiru saio berri prestatu ditu Julen Iriondo Goienako kazetariak. 90eko hamarkada eta Aratusteei buruzko hiru saio berri prestatu ditu Julen Iriondo Goienako kazetariak. 90eko hamarkada eta Aratusteei buruzko hiru saio berri prestatu ditu Julen Iriondo Goienako kazetariak. 90eko hamarkada eta Aratusteei buruzko hiru saio berri prestatu ditu Julen Iriondo Goienako kazetariak.

Bilkura atzeratuta, zinegotziei epez kanpo abisatu izanagatik

EH Bilduk bertan behera uztea eskatu zuen, eta, "legea zorrotz jarraituta", otsailaren 13ra atzeratu du Gobernuak

X.G. ARRASATE

Otsaileko ohiko osoko bilkura martitzenean zen egitekoa, baina, azkenean, otsailaren 13an egingo dute. Martitzenean, oharra plazaratu zuen EH Bilduk, bilkura bertan behera uztea eskatuz. "Plenoaren suspentsioa eskatzen dugu, lehenik eta behin, ez zaigulako zinegotzi guztioi deialdia garaiz bidali eta, bestetik, egun batetik bestera 56 orriko dokumentazioa ezin delako ganoraz aztertu. Legeak dioenez, bilkurarako deialdia zinegotzi guztiek jaso behar dugu

bi lanegun baino lehenago". Gehitu zuten, besteak beste, Gobernuaren "kudeaketa traketak izugarritzeko kalteak" eragiten dizkiela. Ohar bidez erantzun zuen Gobernuak, esanez talde politikoen bozeramaileek –EH Bildukoa barne– ostegunean jaso zutela deialdia, baina "gainontzeko zinegotziek, ofizialki, astelehenean". Bi laneguneko aurrerapena ez bete izanagatik, eta "legea zorrotz jarraituta", atzeratzea erabaki zuten eta "garrantzia kendu" nahi izan diete EH Bilduren adierazpeni.

Birziklapena eta berrerabilpen sortzailea

Hik Hasik eta Emaus Gizarte Fundazioak Birsortu Debagoieneko espazioa ireki zuten urtarrilaren 24ean Arrasateko Ekocenterrean. Proiektu honen bitartez, kontsumo arduratsua eta ekonomia zirkularra bultzatu nahi da ikastetxeetan eta enpresetan

Amaia Aranegi ARRASATE

Sormenean eta berrerabilitako objektuen ikerketan oinarritutako proiektu kultural, pedagogiko eta jasangarria da Birsortu. Proiektua aspaldi sortu zen; izan ere, Italiako Reggio Emilia hiriko Remida proiektuan oinarritzen da eta Hik Hasi egitasmo pedagogikoak bertara egindako bidaia batean ezagutu zutela dio Emauseko proiektuaren arduradun Sheila Padronesek: "Hik Hasi egitasmo pedagogikoak egindako bidaia pedagogiko batean ezagutu zuen orain dela 20 bat urte. Denbora asko eman dute hau bultzatu nahian, eta, azkenengo urteko elkarlanaren ondorioz, proiektu hau era pilotu batean aurrera eramatea lortu dugu, eta, aurrera begira, zabaltzeko asmoz".

Proiektu honek enpresa desberdinetatik jasotzen diren hondakinak eskolen eskura jarriko ditu, ikasleek esperimendatu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaieten. Hik Hasik hezkuntza komunitatearekin harremanak sortuko ditu eta Emaus, hainbat enpresaren hondakinen kudeaketarekin harremana daukanez, enpresek kontaktuan egongo da bazterten dituzten materialei balioa emateko. Izan ere, hauek dira proiektu berritzaile honen helburuak: haurrek eskoletan egituratua ez dauden jostailu edo elementuekin ikertu ahal izatea, baztertutako elementuei bizitza luzatzea eta eskoletan sortutako hondakinen inguruan kontzientzia piztea.

Materialen bilketa

Birsortu espazioa Arrasateko Emauseko egoitzan dago kokatuta eta bertan egongo dira bildutako material desberdinak: "Emausek bere dendak hornitzeko kamioi batzuk eta ibilbide batzuk ditu. Behin adostuta zein enpresatan hartu behar diren



Birsortu espazioa, Emausek Arrasaten duen egoitzan. GOIENA

ENPRESEK HONDAKINTZAT JOTZEN DUTENA, UMEEN ESKURA BERRERABILTZEKO

materialak, kamioi horien ibilbidean sartzen dira eta Arrasateko Econcenterrean ekartzen dituzte. Bertan, Hik Hasiren eta Emausen artean sailkapena egiten dugu eta materiala antolatzen dugu guztia: plastikoa, papera, kartoia... eta gero, eskolen eskura jartzen da". Orain bertan dagoen materiala hoguei enpresatetik lortu dute, baina beste hamar enpresarekin harremanetan daude material gehiago lortzeko.

Hezkuntzari zuzenduta

Birsortu Musakola auzoan dagoen Emauseko egoitzan du biltegia eta Debagoieneko eskolentzat dago irekia asteazken arratsaldero, 17:30etik 20:00etara. Gainera, hileko azkenengo asteazkenetan, irakasleei begira tailer batzuk egongo dira. Hauen helburua da bildutako materia-

len askotariko erabilerak aztertzea: "Asteazkenetan, eskolendako zabalduko ditugu ateak. Bertatik nahi duten materiala hartu dezakete, gero beraiek berrerabili ahal izateko. Bitartean, beste enpresa batzuekin harremanetan jarraituko dugu, espazio hau hornitzeko eta hutsik ez gelditzeko".

Bi aldeentzako onurak

Birsortu proiektuak enpresak eta eskolak elkartzen ditu eta bi aldeek dituzte onurak: "Eskolek aspalditik dute ideia hau, oso harrera ona izan du proiektuak eskolatan. Baina zaila egiten zaie, askotan, materialak eskuratzea. Proiektu honen bitartez, material desberdin asko eskuratzea lortuko dute. Aldi berean, enpresek sortzen duten hondakin hori murriztu dezaketela konturatzen dira".

Proiektu honetan, Emaus Gizarte Fundazioa, Hik Hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundia daude lankidetzan. Horrez gain, Debagoieneko hezkuntza-komunitatearen lankidetzaren ere badute: Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatea eta Olgeta hezkuntza-proiektua.



AMAIA ARANEGI

'Egunean behin': herriko taldea

AEDko Ttak gazte taldeak *Egunean behin* jokoaren Arrasateko taldea sortu du. Astero sailkapeneko irabazleak saria eskuratuko du eta partaideen artean zozketak ere egingo dira. Herriko taldea otsailaren 10ean jarriko da martxan eta hirugarren denboraldia bukatu arte egongo da. Taldera sartzeko esteka Ttaken sare sozialetan dago.

OHARRAK

60ko kintoek bazkaria egingo dute

Arrasateko 60ko kintoek (1939an jaiotakoak) Hilarion jatetxean bazkaria egingo dute martxoaren 7an.

Arrasaten bizi diren oñatiarren bazkaria

Martxoaren 7an, 14:30ean, bazkaria egingo dute Erreka jatetxean. Izen ematea zabalik egongo da martxoaren 4ra arte, Erreka jatetxean bertan.

Martxoaren 8arekin lotutako azoka

Azoka bera martxoaren 7an izango da, Seber Altube plazan. Helburua da emakume baserritar eta artisauen lana ikusaraztea. Izen ematea otsailaren 19ra arte egongo da zabalik.

Gidabaimena euskaraz

2019an, hoguei pertsonak atera zuten gidabaimena euskaraz. Horien artean, urtero moduan, zozketa egin dute eta Iker Pavonek eskuratu du 410 euroko saria.

Pentsiodunak

Astelehenean, elkarretaratzea egingo dute, euren aldarrikapenekin jarraitzeko, Herriko Plazan, 12:00etan.



24/7 24 orduko zerbitzua

 Pieza guztiak barne

 Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA 100€ /hileko

+ 1.200
bezera baino gehiago

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea | 943 905 450 | www.bertako.eus

"Errugbia inklusiorako tresna baliagarria da"

JULEN BARRUTIA ART TALDEKO ENTRENATZAILEA

Otsailaren 16an, 'Errugbi barneratzailea' izenburupean urritasunen bat duten neska-mutikoekin entrenamendu saioa egingo dute Mojategin

Xabier Urzelai ARRASATE

Julen Barrutiak urtebete darma ARTko senior mailako entrenatzaile. Aurretik, baina, ARTko harrobiarekin ere ibilitakoa da lanean, eta, kirol zientzien graduatua izanda, badaki kirol jarduerak –eta kasu honetan errugbiak– ze onura izan dezakeen. Izan ere, askotan, onura horiek osasuntsu egotetik haragoak dira.

Nolatan okurritu zitzaizuen urritasunen bat dutenekin errugbi saio bat antolatzea?

Ez da gauza berria, beste herri batzuetan oso esperientzia positiboa izan dute. Esaterako, Getxon, Hernanin, Gasteizen eta Bilbon urritasunen bat duten jokalariekin errugbi taldeak sortu dituzte, eta euren artean ligaxka antolatu dute, *Bultza* izena duena. Eta Gasteizen lehenago ere egin izan dituzte guk egin gura dugunaren antzeko lan-saioak. Bertan parte hartu izan dut anaiarekin.

Etxean gertutik sufritu izan duzue bazterketa hori...

Bai, halaxe da. Anaia dut Downen sindromearekin eta guk etxean ikusi izan dugu gura ala ez bazterketa sufritzen dutela. Hala, horrenbeste eman didan kirol jarduera, errugbia, eta horrenbeste maite dudana



Julen Barrutia entrenatzailea, Mojategin. X.GOROSTIDI

"EZ NUEN USTE ANAIA LOKATZETAN HORREN GUSTURA IKUSIKO NUENIK, GOZATU EDERRA HARTU ZUEN"

batu eta erabaki nuen zerbait egitea. Atzegiko lagunekin batera antolatu dugu saioa.

Etkekook halako ekimenetan lehenago ere parte hartu izan duzue.

Duela bi urte, esaterako, Gasteizen antolatu zuten errugbi

inklusiboko Munduko Txapelketa, eta nire aita –Ramon Barrutia– epaile izan zen txapelketan. Eta anaiarekin Gasteizen antolatutako entrenamendu saio batean ere esku hartu izan dut.

Ez zenuen espero horrenbeste gozatuko zuenik...

Errugbi zelaira iritsitakoan zera pentsatu nuen: "Anaia ez da lurrera botako baloi bila...". Eta gero lokatzetan ikusi nuenean...; kar, kar, kar. Hori izango da saioaren helburua, errugbiaren bitartez denok ondo pasatzea.



Euskal Selektzioaren ordezkaritza Bartzelonan, joan den astean. ABAE

Eskuak bete domina Espainiako Jiu Jitsuko Txapelketatik

Euskal Selektzioaren zuzendari tekniko Julio Gallegoren borrokalariek azpimarratzeko lana egin dute Bartzelonan

X.U. ARRASATE

Zapatuan jokatu zuten, Bartzelonan, Espainiako Jiu Jitsuko txapelketa, Newaza modalitatean, eta Euskal Selektzioaren ordezkatuz ABAE taldeko (Arrasate Borroka Arte Eskola) Julio Gallegok zuzendutako taldeak sekulako lana egin zuen. Izan ere, ordez-kari euskaldunek, orotara, urrezko lau domina eta zilarrezko beste hiru eskuratu zituen.

Borrokalariek, bikain

Nabarmentzeko moduko lana egin zuten borrokalariek. Urrea jantzi zuten Naroa Garciak, Javi

Massak, Cristian Richardek eta Imanol Lamelak. Eta zilarrezkoa irabazi zuten Nekane Muguruzak, Maria Merinok eta Joquad Karbategi.

"Badirudi ABAE barruan borroka arte ezberdinetako taldeek batera egiten ditugun entrenamendu saioak emaitza onak ematen dabiltzala", adierazi dute taldeak. Izan ere, aikido taldekoek, kenpokoek eta judokoek osatzen dute ABAE: "Batuketak indartsuago egin gaitu". Jose Manuel Matas, Iker Letona eta Julio Gallego dira hiru borroka arteetako arduradunak.



REAL SOCIEDAD

Klubaren artekoan, zazpigarren

Espainiako Klubaren arteko Txapelketan, Iberdrola Kopan, hainbat atleta arrasatear izan dira lehian. Realeko Iñigo Uribarren bosgarren izan zen salto hirukoitzean (14,82) eta Istar Dapena hirugarren pertika-saltoan (5,30). Hala, Reala zazpigarren sailkatu zen. Emakumezkoetan, Malen Ruiz de Azua laugarren izan zen (4,10) eta Maialen Axpe bosgarren (4 metro).

Taldean jardutearen onurak

"Urritasunen bat dutenek baztertuta egotera kondenatuta daude, eta egoera hori amaitzea da helburua. Bada, taldean jarduteak onura handiak ditu", dio Barrutiak.

Hala, otsailaren 16an 11:00etatik 12:30era egingo dute entrenamendu saioa. Izena emateko bi telefono daude: 943 42 39 42 (Atzegi) eta 676 93 83 04 (Julen Barrutia).



Gaztedikoei Bradford-en talde barneratzailearen saria jasotzen. GAZTEDI



Asier Oruesagasti, Libe Aranburu eta Kepa Errasti aktoreak, oholtza gainean. IÑAKI ARANBURU

'Hansel eta Gretel' ipuina, oholtza gainean

Borobil antzerki taldeak 'Hansel eta Gretel' ipuinaren bertsio berri bat erango du Amaia antzokira bihar, 17:00etan. Asier Oruesagasti, Libe Aranburu eta Kepa Errasti aretxabaletarra izango dira oholtza gainean pertsonaia desberdinak antzezten

Amaia Aranegi ARRASATE

Abenduan estreinatuta zuten *Hansel eta Gretel* antzezlanak, eta, geroztik, hain ezaguna den ipuin honen bertsio berritua antzezten dabilta herriz herri. Anartz Zuazua da antzezlanaren zuzendaria eta aktoreen lana da antzezlanaren oinarria; haxe dio Kepa Errasti aretxabaletarrak:

"Hiru aktore gara espazio huts batean, ez daukagu inolako eszenografiarik. Hiru sukaldari pertsonaia desberdinak gorpuzten, aldaketa fisikoaz baliatuta bakarrik. Gauza horiek teknikoki nahiko konplexuak dira, konkretutasun handia eta lan handia eskatzen dute. Soinuek ere indar handia daukate. Baina hirur aktore soilik gaude oholtza gainean eta horrek proiektura gehitzeko asko erakarri ninduen". Izan ere, lau edo bost pertsonaia antzezten ditu aktore bakoitzak. Kepa Errasti aretxabaletarra, adibidez, Hansel eta Gretel-en aita, lagun bat, ipuinean sor-

gina izango zena eta polizia izango da.

50 minutuko antzezlanak da eta bereziki haurrei zuzenduta dago, baina familia giroan gozatzeko lana ere bada. Umore puntuak ere egongo dira; hortaz, publiko guztiari dago zuzenduta.

Bertsio berritua

Hansel eta Gretel ipuin ezaguna da, baina antzezlanean, istorioa moldatuta dago: "Hansel eta Gretel-en aita jatetxe bat dauka, janari osasuntsua egiten den jatetxe bat, eta egun batean, berak errezetak egiteko erabiltzen duen liburua desagertzen da. Beraz, suposatzen da munduko errezeta liburu guztiak desagertu egiten direla, eta jen-

IPUINAREN BERTSIO BAT, ERREALA ETA GAUR EGUNGOA; HIRU AKTORE, BAINA PERTSONAIA ASKO

dea behartua sentitzen da prozesatutako janaria eta janari lasterra jatera: hanburgesak... Aitak ezin dituen errezetak egin, banketxeak jatetxea enbarkatzen dio. Hansel eta Gretel beraien aurrezkiekin banketxera joaten dira, aitarien jatetxea berreskuratu ahal izateko. Banketxera bidean, basoan galtzen dira. Hor hasten da antzekotasuna *Hansel eta Gretel* ipuinarekin". Ipuinean ez bezala, ez dago sorginaren figurarik, baina antzeko zerbait bai: janari prozesatuen arduraduna. Horiek dira aldatzen diren pieza nagusiak.

Ipuinaren bertsio bat da, erreala eta gaur egungoa. Osasungarri eta denetik jan behar dela dio antzezlanean igortzen den mezuak, eta zer garrantzitsua den kontziente izatea zer jaten dugun eta zer ez.

Hansel eta Gretel antzezlanak bihar 17:00etan izango da, Amaia antzokian. Sarrerak 5 eurotan salgai egongo dira www.arrasate.eus atarian eta leihatilan.

'Panpina' antzerki emanaldia, Emakume Txokoaren eskutik

Otsailaren 13an, eguenean, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian Panpina antzerkia egongo da

A.A ARRASATE

Emakume Txokoak, emakumeak egindako antzerki lanak taularatzeko helburua duen lanildoarekin jarraitzen du. Hori dela eta, Erika Olaizolak zuzendutako eta antzeztutako *Panpina* lana eskainiko da Kulturaten.

Erika Olaizola da aktorea eta proiektua 2014tik datorren proiektu oso pertsonala da. Oholtza gainean bera bakarrik egongo da eta gure alderdi ilunez, atsegin ez ditugun alderdi horiek ateratzeaz, ikusteaz, jolasteaz, onartzeaz edo ez onartzeaz...

datza antzezlanak. Erika Rooibos da sortutako pertsonaia eta antzezlanak oso garbi biltzen ditu pertsona, aktorea eta pertsonaia.

Panpina antzezlanak umorearentzako lekua dauka baina baditu momentu intimoak, probokatzailak, ganberroak... Sentsazio desberdinak biltzen dituen lana da.

Erika Olaizola da zuzendaria eta aktorea, Oier Guillan kanpo begirada eta idazketa orokorra eta Leire Arenas kartela, eskuorria eta planteamendu espazialaz arduratu da.



PERITZA

El Corazon Del Sapo gaztetxean

90eko hamarkadan sortutako Aragoiko El Corazon Del Sapo musika taldea gaztetxean izan zen domekan. Iragarpen handirik egin gabe, musikazale asko batu ziren azkeneko urteetan zuzendutako askorik egiten ez duen taldearekin gozatzeko. Izan ere, taldeak lotura zuzena eta estua dauka Euskal Herriarekin eta baita Arrasaterekin ere.

The Potes taldea Strummercamp jaialdian izango da

The Potes talde arrasatearra Manchesterren ospatzen den *Strummercamp Festival*-ean izango da. Jaialdi honek musika estilo desberdinak uztartzen ditu: punka, ska, reggaea, folka...

Aurten jaialdia maiatzaren 22an, 23an eta 24an ospatuko da eta sarrerak jada salgai daude www.strummercampfestival.com atarian.

Ipuin kontaketa Arrasateko Udal Bibliotekan

Otsailaren 13an eta 19an, 2 eta 5 urteko haurrentzat ipuin kontaketa egongo dira Arrasateko Udal Bibliotekan, Lur Korta ipuin kontalari, aktore eta antzerki irakaslearen eskutik. 2005tik hona, ipuin saioak eskaintzen ditu eta otsailaren 13an, 18:00etan, Kulturaten izango da. Otsailaren 19an, 18:00etan, Santa Marina auzoko bibliotekan.



Osatutako istorioak kultura etxean daude irakurgai. JULEN IRIONDO

Istorio polit eta bereziak, mendietako buzoietan

Udazkenean gauzatutako 'Hitzak mendietan' ekimenaren emaitza herritarren bistara jarri du orain Txirritolak. Koaderno bat utzi zuten Aramaio inguruko lau tontorretako buzoietan, istorio baten hasierarekin, eta bertara joandakoek osatu dituzte istoriook

Julen Iriondo ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen ekimen irudimentsuak emandakoa kultura etxe sarreran jarri dute herritarren eskura; irudimentsua ekimena bera, desberdin eta berritzaile izateagatik, eta irudimena bertan parte hartu dutenek erakutsi dutena ere, zenbait kasutan, behintzat, istorio kuriosoa eta bereziak osatu baitituzte.

Zehazki, Asensioko eta Tellamendiko buzoietan utzitako koadernoetan osatu dituzte mendizaleek hari bati jarraitzen dioten istorioak: Asensiokoan, izen bereko gizonarena, kostaldeko lagun arrantzale batekin elkartu eta hark itsasotik ateratako lapiko batek gordetzen zuen sorpresa kontatzen duena; Tellamendikoak, ostera, Xabi izeneko mutilari gertatutakoak, tontorrera iritsi eta ogitarteko urdaiazpikoa eztarrian trabatuta bizi izandako komeriena.

Txirritolako lagunak gustura geratu dira ekimenak eman

duenarekin: "Tellamendiko puntan eta Asension topatu genituenek nolabaiteko istorioa osatzen dute, eta nahikoa jarraipen mantentzen da esaldiz esaldi. Gero, tartean –mendiak hori ere badakar–, desioak, momentuko bizipenaren islak, hausnarketa txikiak... badira, baita ere, istorioaren lerro nagusitik aldentzen diren burutazioak edo dena delakoak. Hala ere, istorio itxura horri eusten diote bi koadernok, behintzat", dio Oihana Ameskuak.

Muruko eta Orixolgo koadernoetan jasotakoa "kaotikoagoa" izan dela dio: "Polita, hala ere; istorioaren hasiera bai, ikusten da, baina gero, bat-batekotasun horretan, jendeak mendiko bi-

zipen horrek eraginda bururatu zaiona jarri du".

Behin mendizaleen ekarpenak jasota, horiekin sortutakoa herritarrei "buelatzeko" ordua zen: "Ekimen xumea izan denez, xumetasunarekin jarraitu dugu, eta kultura etxeko iragarki tabloian jarri ditugu mendi tontorretako argazkiak, koadernoak –ikusteko nondik sortu den kontu hau dena– eta transkripzioak, Tellamendin eta Asension topatutako transkripzioak".

Eta horrela eman dute bukatutzat *Hitzak mendietan* izeneko ekimena; ekimenak jarraipena izango du, dena dela, baina hurrengo udazkenearekin izango da hori.

Hurrengo asmoak

Txirritolako kideek buruan dute hurrengo ekintza: "Beste herri batzuetan ere egin izan da: hozkailu bat jarri herriko zenbait lekutan, eta liburu batzuk sartu bertan; bertatik liburu bat hartu ahalko da, beste bat utzita".

ASENSIOKO ETA TELLAMENDIKO KOADERNOETAN ZEUDEN HARIDUN ISTORIOAK



XABI GOROSTIDI / JULEN IRIONDO

Txiki eta handi, santa-eskean

Ohiturari jarraituz eta eguraldia lagun, zapatuan egin zuten santa-eske herrikoa Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzekin, Triki Kalejira taldekoekin eta bertso eskolarekin.

Martitzenean –Santa Ageda bezpera–, berriz, San Martin eskolako umeak atera ziren kantuan eta eskean, euri giroari aurre eginez.



TOPAGUENA

Berbalagunak, Aramaion

Goiena komunitatea

Topagunea

Eskualdeko berbalagunek Aramaio ezagutzeko aukera izan genuen Amillena elkartearen eskutik. Libe Ramilaren ahotik, herriko pertsonaiak, bitxikeriak, historia, kondairak eta ekonomatua ezagutu genituen.



Julen Olaizola –ezkerrean–, aitarekin, Zizur Nagusian txapela irabazita, iaz. GOIENA

Olaizola, denboraldiko punturik beroenean

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finalerako sailkapena izango du bihar jokoan Zeanurin, eta hastear du, baita ere, Zizur Nagusiko lau eta erdiko txapelketa. Denboraldiko bi txapelketa inportanteenetakoak dira beretzat, eta itxaropentsu dago

Julen Iriondo ARAMAIO

Bihar, zapatua, gauean du Julen Olaizolak Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finalerako sailkatzeko lehen aukera, Orozko ordezkatzuz –han dihardu–. Horretarako, Zeanuriko ordezkariari irabazi behar dio –Beitia, Erkiaga edo Emaldi, partidu aurretikora arte ez du jakingo–, haren herriko frontoian. Irabazterik lortuko ez balu, bigarren aukera bat izango luke Olaizolak, Laudioko Alonsoren kontra.

Orain arte bere multzoan jokatutako partidu guztiak irabazita iritsi da pilotari aramaioarra finalaren atarira. Biharkoa irabaziko balu, multzoko buru moduan finalera pasako litzateke zuzenean, eta ligaxkako bigarrenaren eta hirugarrenaren arteko lehiatik aterako litzateke bere kontrarioa; galduko balu, Zeanuri pasako litzateke finalera, eta berak jokatu beharko luke azken norgehiagoka hori.

Biharko partidurako gakoetako bat frontoia bera izan daite-

keela uste du Olaizolak: "Zeanuriko frontoia oso frontoi bizia da, eta erritmo handia jartzea izango da kontua, berak ez dominatzea; saiatuko naiz ondo sakatzen eta tantoa hasieratik dominatzen, ahal dudanean bukatzeko. Partidua nire terrenora eramaten saiatuko naiz".

Finalerako urratsa egin behar da aurrena; irabazi, ondoren; baina, gertatuko balitz, lorpen handia litzateke Olaizolarentzat: "Oso inportantea da. Maila onean nabilen seinale izango litzateke". Binaka jokatu du aurrez txapelketa hau, baina lehen aldia du buruz buru, eta horrek are bereziago egiten du erronka; aramaioarrak gustuko du buruz burukoa: "Modalitate ona da

MIGUEL SOROAREN OROIMENEZKOAN EMAITZA EZ DA ONA IZAN, BAINA POZIK DA ESPERIENTZIAREKIN

niretzat, kolpearekin hasi eta, gero, tantoa bukatu".

Asteburu honetan, beraz, partidu garrantzitsua, eta datorrenean hasiko du, berriz, Zizur Nagusiko lau eta erdiko txapelketa. Txapelketa kuttuna du Olaizolak, emaitza onak lortu izan dituena: azken lau edizioetan finalean izan da, bi irabaziz, azkena iaz; txapela defendatzea tokatzen zaio, hortaz: "Final laurdenetan hastea dagokit, iaz finalean egon izanagatik. Oso txapelketa garrantzitsua da, eta ea zer gertatzen den, aukerak egongo dira". Egungo profesional askok utzi dute aztarna Zizur Nagusiko txapelketan, eta Aramaioarra ere nahi luke palmaresean, berritoki, izena idatzi.

Tolosan jokatu duen Soroaren oroimenezkoa izan du denboraldiko beste mugarri inportantea Olaizolak. Gorrotxategirekin batera jardun du, eta emaitzak onak ez izan arren –bi partidu galdu eta kalera–, esperientziarekin pozik geratu da.

Kuadrilla Artekoa: asteon kanpoan eta hurrena etxean

Errekaleorko gaztetxean jardungo dute bihar, zapatua, Konde Basoko Iluek, Bazaar Xanmapelezuin taldekoekin. Astebete geroago, berriz, gasteiztarrak etorriko dira Aramaioara; kasu honetan, Izenbakuekin indarrak neurtzeko. Izarra elkarteak bazkarirako izena emateko azken eguna eguaztena izango da –615 73 92 55; 15 euro–.



Andere Arriolabengoa. GOIENA

Euskal Herriko klubetako txapelketako partiduak, herrian

Pilota Federazioak antolatzen duen klubetako txapelketak ari dira Aramaio, eta txapelketak etxean egingo du geldialdia oraino. Aramaio pilotariak Tolosa-koekin neurtuko dituzte indarrak, kadete mailan –bihar, zapatua, 12:00etan–. Pilotari aramaioarrei ez dihoakie ondo, orain arte, txapelketa, neurtuta denak galdu dituzte-eta.

Aramaio Tropikalak etxean jokatu du etzi, Nolotirerekin

Domekan 18:00etan izango da areto futboleko norgehiagoka. Aramaioarrak denboraldi bikaina egiten ari dira aurtur ere, Brontzeko Mailan lider baitira sailkapenean, hamar neurtuta irabazi eta bi galdua. Oraino bisitan datorrien taldea, hala ere, ez da samurra izango, hirugarren baitoa Nolotire, bost puntu gutxiagorekin.

Trial ikuskizuna eta ikastaroa egingo dituzte bihar plazan

Orixol elkarteak antolatuta, bihar, zapatua, 16:30ean da hitzordua, plazan. Aretxabaletako Oztoko trial klubeko kideak etorriko dira eta ikastaroa eta erakustaldia egingo dituzte. Ikastaroan parte hartzeko, kasu eraman behar da –izango dira bizikletak bertan eskura–; 12 urtetik beherakoek arduradun batekin joan beharko dute.



Taldekide bat. OZTOKO

'La mujer de la montaña' film feminista, bihar

Ikusiz Gozatu ekimenaren eskutik eta Laia Eskolaren programazioaren barruan, *La mujer de la montaña* pelikula emango dute bihar, zapatua, kultura etxean, 20:00etan. Pelikula ematearekin batera, zineforuma egingo dute Helena Gonzalezekin.

La mujer de la montaña pelikula politikoa da, feminista; ingurumena babestu eta egoera

aldatzeko prest dagoen emakumea da protagonista, migrazioaren arazoaren aurrean erantzun koherente bat bilatuko duena. Europako Parlamentuak ematen duen Lux2018 saria jaso zuen Islandiako lan honek.

Filma norvegieraz da, gaztelarazko azpitituluekin, eta ordu eta erdi pasatxo irauten du.

Pelikula aurreko abendurako programatu zuten, hasiera batean, baina Helena Gonzalezekin etorri ezina zela-eta atzeratu egin zuten emanaldia.

Kontsumoaren bueltako hausnarketa sustatzen

Berdintasun Sailak Setem Hego Haizea gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean hitzaldi eta solasaldi sorta antolatu du; martitzenean, Irantzu Varela feminista ezaguna etorriko da, maitasun erromantikoaren gainean jardutera

Mirari Altube ARETXABALETA

Kontsumoaren bueltan hausnarketa eta eztabaida sustatzea helburu duten trebakuntza saioak antolatu ditu –solasaldiak, tailerrak eta film-emanaldiak, besteak beste– Udaleko Berdintasun Sailak Setem Hego Haizea GKEarekin elkarlanean. Indarkeria matxisten, emakumeen ahalduntzearen, berdintasunaren eta ekofeminismoaren gainean jardungo dute martitzenean hasi eta maiatzaren 5a bitartean.

Herritarrak sentsibilizatu

Garapenerako lankidetzeta, sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzen eskarmentu handia duen GKE da Setem Hego Haizea, eta, besteak beste, Balioen Faktoria du abian. Kontsumo arduratsuen gainean hausnartzera bideratuta dago ekimen hori, eta hainbat prestakuntza saio eskaintzen dituzte. "Bidegabekeriaren eta krisiaren errealitate globalarekiko kontzientzia kritikoa ekarriko duten balioak eraikitze orduan pertsonak lehengaiak gara. Horretarako, hainbat esparrutan dihardugu lanean, besteak beste, arroparen, kulturaren eta elikagaien produkzio eta kontsumo kontuetan, baita erotika eta plazera, genero desber-



Karme Urbarri zinegotzia eta Garazi Artuñedo teknikaria. ARETXABALETAKO UDALA

dinkeria, ekonomia solidarioan eta beste hainbatetan", adierazi dute.

Udalak bat egin du ekimen horrekin eta Karme Urbarri Berdintasun Saileko zinegotziak azaldu du aurreko agintaldian onartutako Berdintasunerako II. Udal Planean finkatutako ardatzei erantzuten diela. "Plan horrek herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak abiaraztea planteatzen du, eta, ildo horretan, otsailetik maiatzera egingo diren hainbat jardueratan lan egingo da".

Saio irekiak guztiak

Martitzenean, otsailaren 11n, hasi eta maiatza artean eskainiko dituzte lau solasaldi, formazio saio bat eta ikus-entzunezko bat –guztiak Arkupen–. Saio irekiak izango dira eta herritar guztiak gonbidatu dituzte horietara.

Bigarren sei hilekorako plangintza zehazteko, osterara, joan den egubakoitzean egin zuten bilera Setem Hego Haizea eta Udaleko ordezkariak eta Aretxabaleako eta Eskoriatzako feministek.

Maiatzera arteko egitaraua

Otsailak 11

• **Solasaldia (18:00):** *San Valentinek eromen kontsumista.* Irantzu Varela kazetari eta feministarekin egungo sistema ekonomikoaren gaineko hausnarketa.

Otsailak 18

• **Solasaldia (18:30):** *Kontsumo greba feministarantz, martxoan eta beti!* Ekologistak Martxan taldeko kideekin kontsumitzaile feminista gisa ahalduntzea aztergai.

Martxoak 10

• **Formazioa (18:00):** *Indarkeria matxistak eta kontsumoa.*

Martxoak 17

• **Dokumentala (19:00):** *Emakumeak fabrikatzen.* Ohiko kontsumoaren eta indarkeriaren arteko harremanen azterketa.

Apirilak 21

• **Solasaldia (18:30):** *El textil como proceso de empoderamiento.* El Salvadorko Mujeres Transformando erakundearekin.

Maiatzak 5

• **Solasaldia (18:30):** *Gure elikadura ekofeministotik zaintzen.* Etxalde elkartearen kideekin.



M.A.

"Iritzi kritikoa sustatu gura da"

GARAZI ARTUÑEDO

BERDINTASUN TEKNIKARIA

Martxoan egingo du urtebete Aretxabalean, eta egitekoen artean du Berdintasun Plana aurrera eroatea.

Zein helburu ditu planak?

Batetik, emakumearen autonomia garatzea, eta, bestetik, herritarren sentsibilizazioa, pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Herriko feministekin elkarlanean zabilzate?

laz sortu genuen Berdintasun Batzardea eta beti datoz Erdu talde feministako kideak. Hilabetean behin elkartzeko gara, eta gaiak eta ekintzak adosten ditugu.

M8aren bueltan sortutako uholdeak ez du atzera bueltarik?

Nik uste dut ulertu dela generoari lotutako rolak eta estereotipoak apurto beharra dagoela, guztiok eskubide berak ditugula.



NIRE USTEZ

MARTIN BERRIZBEITIA

GPSaren denborak

Bide erdia baino gehiago egin du jada, tontorra ikus dezake malda luzearen amaieran. 564 metro igota, 2,83 kilometro, 23 minutu eta 45 segundo. Arnasestua eta hanketako mina jasangarriak dira, martxa honetan bere marka hobetuko duela badakielako.

Kasualitatez edo, burua altxatu du bere GPS erlojutik eta ingurura begira geratu

da. Ia kolpean, erlojuko segundoak, desnibela eta denak ahaztu ditu. Zorioneko kasualitatea.

Orduan deskubritu du beti hor egon dena. Basoak, larreak... berdea berdearen atzetik. Arkaitz erraldoiak, isiltasunaren zaindari. Pago zahar bat, haizeak haize zutik dirauena. Eguzkiak zeru ertzean arratsaldero ematen duen espektakulua

ikustera ere geratu da korrikalaria. Bitartean, GPSaren denbora aurrera, motel bezain goxo.

Etxeratzean bikotekideak betiko galdera: "Zer moduz entrenamendua?". Denbora edo bihotz maiztasun datuen inguruko iruzkinen bat espero zuen. Baina erantzuna ez da betikoa izan: "Zoragarri, iluntze benetan polita geratu da!"

Gu Haziak Garak jostuna gura du hainbat proiektutarako

Proiektu bat garatu ahal izateko jostuna behar du Gu Haziak Gara elkarteak. Patroigintzan eta jantzigintzan ikasitakoa izan behar du horrek, josteko makina industrialekin eskarmentua duena eta gizarte proiektu batean jarduteko gogotsu dagoena. Interesatuak elkartearen kideekin jar daitezela harremanetan: guhaziakgara@gmail.com.

Demetrio Iriarteren ondarea, digitalizatuta

Txistulari eta konpositore handiaren gaineko kontuak eta hark sortutako kantuen partiturak eta doinuak jasota dauden webgunea eguneratzen jardun dute Argazki Artxibokoek, txistulariek eta beste hainbat kidek, eta dagoeneko gertu daukate

Mirari Altube ARETXABAETA

Demetrio Iriarte jaio zela 100 urte bete ziren 2015ean eta ekitaldiz betetako urtea izan zen hura. Orduan egindakoak, txistulari handiaren gaineko kontuak eta hark konposatutako doinuak zein partiturak *www.demetrioiriarte.com* webgunean bildu dituzte. Horretan jardun dute Argazki Artxiboko kideek eta Aretxabaletako txistulari taldeko lagunek, digitalizatzeko lanetan jardun duten beste hainbatekin elkarlanean. Ordenagailuan, tabletan eta telefonoan ondo ikusteko moduko webgunea garatzen ahalegindu dira, edonoren eskura egon dadin Iriarteren ondarea.



Iriarteren urteurreneko kalejira; Antxia eta Ansorena txistulariak lehen ilaran. GOIENA

Lan batzuk bukatu barik

"Demetrio Iriarteren ehungarren urteurrenean jarri genuen helburuetako bat izan zen haren lan guztia ezagutzea lehenengo, eta horretan jardun genuen. Topatutako lanak aztertu egin ditugu gero, eta txukundu ere bai; eta oraindik horretan gabiltzala esan behar", adierazi du txistulari taldeko kide Jokin Antxiak.

Argazkiak, bideoak –urteurren ospakizunetakoak asko–, audioak eta partiturak daude jasotakoan artean. "Gehienak familiak eman-

dakoak dira eta haren lagunen-gandik ere jaso ditugu. Beste partitura asko aurretik publikatutakoak ziren eta horiek ere hor sartzea erabaki dugu", dio Antxiak.

Iriartek konposatutako doinu batzuk ezagunak ziren aurretik ere eta Aretxabaletako txistulariek sarri jo izan dituzte horiek. Orain, sortutako guztiak biltzea lortu dute; batzuk, gainera, bukatu barik zeudela adierazi du: "Amaitu barik zeuden horiek osatzen ahalegindu gara".

Lanaren zabalkundea helburu

Oñatin jaio eta Aretxabaletan bizi izan zen txistulariaren lan hori guztia ezagutzera ematea da webgunearen helburua: "Txistularion artean zabaltzea da asmoa, eta, bereziki, Aretxabaletan eta inguruetan; berak konposatutako doinuak guztiok ezagutzea, hain zuzen ere. Webgunean jaso izanak zabalkundean lagunduko duela seguru gaude".

Gaineratu du egindako lanarekin gustura geratu direla bai txistulariak, baita Iriarteren senideak ere.



MIRARI ALTUBE

Herritarren aurrean dantzan

Kantuan eta eskean jardun ondoren auzoetan zein kalean, 2001ean jaiotako neska-mutilak herritarren aurrean aurkeztu ziren aurtengo lehen dantza saioarekin, eguazten iluntzean. 50 gazte baino gehiago elkartu ziren eta ederto moldatu ziren. Aratusteak bitartean, domeka guztietan eskainiko dute dantza saioa Herriko Plazan (19:00).

Corrado Masacciren txotxongiloak ikusgai daude Arkupen

Txotxongilo kontuetan aditua den Corrado Masacci igelaren bueltako erakusketarekin etorri da aurtengo Arkupera. *Igelaren itxuraldaketa* izenarekin, anfibio horien ezaugarri den metamorfosiaren berri eman gura izan du. "Igelen gaineko erakusketa hau urte askotako lanaren emaitza da eta umeez begi onez hartu dute, igel ezberdinak egin eta mugiarazi egin baititut beraientzat", adierazi du Masaccik.


Erakusketa atzo ezker dago ikusgai Arkupen eta hilabete osoan egongo da. Ikastetxeetako neska-mutikoak ere pasatuko dira handik Masacciren azalpenak bertatik bertara jasotzeko.

Zuhaitzak landatzera joateko dei egin dute otsailaren 16rako

Zuhaitz Eguna antolatu du Udalak otsailaren 16rako, domeka, eta, beste urte batzuetan legez, zuhaitzak landatzera joateko dei egin diete herriko neska-mutikoei eta horien gurasoei.

Herriko Plazan elkartuko dira (11:00) eta handik abiatuko dira landaketa gunera, zarpiko futbol zelai berriaren ingurura. Landaketa Taldie eta Makai basogintza enpresako langileak izango dituzte han lagun. Aurten, gainera, espezie ezberdinetako zuhaitz autoktonoak jasoko dituzte landatzeko, Ikerlani esker.

Behin lanak bukatutakoan, mokadutxo bat jatera gonbidatuko ditu Udalak landaketan parte hartutako guztiak.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklina.eu



Partidu baten deskantsuan, jokalariek adi-adi entzuten Arkaitz Ribera entrenatzailearen aginduak. UDA ARETXABALETA

Hausnartu ostean, suspertu beharrean

UDA areto futbol taldeak zapatuan jokatuko du Jaixki AFT Lezoko taldearen aurka, 17:00etan, Ibarra kiroldegian. Saikapeneko azken postuetatik gora egiteko asmoarekin irtengo dira kantzara Arkaitz Riberaren mutilak, garaipena helburu

Imanol Beloki ARETXABALETA

UDA areto futbol taldeak hausnartarako astea izan du. Izan ere, ez dira denboraldi ona egiten ari Arkaitz Riberaren mutilak, eta, saikapeneko zuloan sartu gura ez badute, suspertzea komeni zaie. Egoera ez da bate-re ona, eta duela bi urte Maila Nazionalera eman zuten jauzia handia izan zen arren, garai hartako ilusioa gainbeheran doa. Denboraldi bakarria egin zuten Nazionalean, eta azken bi urteak Euskal Ligan eman dituzte –orain ere bertan daude–. Hala ere, Gipuzkoako lehenengo mailara jaitsi aurretik buelta eman nahi diote egoera honi, suspertu, eta puntuak batzen hasi.

Arkaitz Ribera entrenatzailea positibo agertu da, eta adierazi du kopan nahiko ondo aritu direla jokalariek, baina maila mantendu gura badute, ligan hasi behar direla puntuak batzen: "Gipuzkoako Kopa eta Euskal Ligako Kopa jokatu ditugu. Gi-

puzkoakoan, finalurrekoetara iritsi ginen, eta oso ondo aritu ginela uste dut, maila emanez. Euskal Ligakoan, bestalde, entrenatu gabe joan ginen, eta ondo ez prestatzearen ondorioz, bigarren txandan kalera joan ginen. Hala ere, orain ligan zentratuta gaude, eta mailaz jaitea hor dagoen arren, ez dut uste halakorik gertatuko denik. Beraz, zapatuan irabaztera irtengo gara kantzara".

Taldearen aldaketa

Jokalari beteranoenak taldea uzten joan dira, eta iaz, gainera, taldea goitik behera aldatu zuten. Gaur egun, jende falta dute, lesioen ondorioz, eta hor dagoela emaitza txarren gakoa adierazi

FITXAKETAREN BAT EDO BESTE EGITEKO BEHARRA ADIERAZI DU ARKAITZ RIBERA ENTRENATZAILEAK

du Ribera. "Taldea oso ona daukagu, baina bi jokalari pisutsuk utzi egin dute, lesioak ere asko izan ditugu, eta beti berdinek jokatzean erreta, nekatuta... amaitzen dute. Hori horrela, jokalari berriak fitxatu beharrean gaude, atezain batetik hasita. Izan ere, Julen Ibabe atezaina Erasmus-era doa eta Joseba Zubizarreta orain arte lesionatuta egon da, eta bi izatea komeni izaten da", adierazi du Arkaitz Ribera UDA Aretxabaleta taldeko entrenatzaileak.

Zapatuan, etxean, 17:00etan

Zapatuan etxean jokatuko du UDA Aretxabaletak, Jaixki AFT taldearen aurka. 17:00etan hasiko da partidua, Ibarra kiroldegian, eta taldekideak prest daude jokatzeke. Lezoarrek etxekoek baino bederatzita puntu gehiago dituzte, eta saikapenean zarpigarren postuan daude. Hala, zaleen animoak eskatuz, kiroldegira joateko dei egin dute jokalariek.

Kantari saiorako entseguak asteburuan egingo dituzte

10:00etan hasita, Arkupe kultura etxeko aretoan izango dira entseguak, zapatuan eta domekan

I.B. ARETXABALETA

Zarpigarren edizioa du Kantari karaoke saioak, eta berrikuntza askorekin dator oraingoan. Joan den zapatuan abiatu zen, Oñatin, eta asteburu honetan, berriz, Aretxabaletan izango dituzte saiora begirako entseguak. Hala ere, Aretxabaletako neska-mutuez gain, Eskoriatzakoak ere bertan izango dira entseatzen.

Guztira, 200 neska-mutiko inguru batuko dira Arkupe kultura etxeko aretoan zapatu eta domeka honetan, eta entseguak 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko dituzte. Bertan, karaoke-rako eta dantzarako zenbait argibide emango dizkiete antolatzaileek. Kantari saioaren grabaketak, berriz, otsailaren 15ean, zapatuan, 11:00etan, hasita eta otsailaren 16an, domekan, 15:30ean hasita egingo ditu Goiena telebistak.



Arizabaleta haurrekin dantzan. GOIENA

Herriko aurkezlea

Aitor Agiriano kazetaria egongo da Kantari karaoke saioko zarpigarren edizio honetan ere dena koordinatzen, eta Amaia Txintxurretaren lekua Beñat Arizabaleta aretxabaletarrak hartu du.

'Elkar ezagutzen' judo topaketa domekan izango da

Desoreka judo elkarteak *Elkar ezagutzen* izeneko topaketa antolatu du domeka honetarako. Aretxabaletako Ibarra kiroldegian egingo da, eta ezohiko entrenamendua izango da, zenbait helburu izango dituena. Batetik, Desorekako judoek elkar ezagutzea eta harreman-tzea da asmo nagusia, baina, elkar ezagutzeaz batera, entre-

natzeko ere aprobeztatuko dute parte-hartzaile gaztetxoek.

Hiru multzotan banatuta, 17:00etan hasiko da *Elkar ezagutzen* judo topaketa, Ibarra kiroldegian. 17:00etan, 4 eta 5 urteko geletako haurrak eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoak arituko dira. Gero, 17:45ean, Lehen Hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailako haurrak arituko dira. Eta amaitzeko, berriz, 18:30ean, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik gorako saioa izango da.

OHARRAK

Sortzaileekin bilera kuartelean

Domekan 17:00etan batzeko dei egin diete Kuartela Kultur Elkarteko kideek leku bila dabilzan herriko sortzaileei. Argibideak emateko eta galderak erantzuteko bilera izango da.

Odol ateratzeak

Astelehenean, 16:45etik 20:00etara bitartean, Arabako odol bankuko autobusa izango da Durana kalean. Otsailaren 20an ere leku eta ordu berean egongo da autobusa.

KZguneko formakuntza eskaintza

Eskaintzen berri izateko, 943 02 36 14 telefono zenbakira deitu edo tutor.aretxabaleta@kzgunea.net helbidera idatzi daiteke.

"Lan gogorra barik, lotua da artzainaren ogibidea"

ASIER SAGASTA ARTZAINA ETA GAZTAGILEA

Bolibar auzoan, Atxalde baserrian, gaztak egiten ari dira egunotan. Idiazabal jatorri izenarekin bi egunean behin 140 kilo gazta inguru ateratzen dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ogibidez artzaina eta gaztagilea da Asier Sagasta eskoriatzarra. 24 urte ditu eta 400 buruko artaldea du Bolibar auzoan. Ardi latxen esnearekin egindako artisau-ekoizpeneko gaztak eskaintzen ditu 2017tik, Atxalde Gaztak izenpean, eta Idiazabalgo gaztaren jatorri izenean inskribatuta dago. Artaldea genetikoki hobetzeko programa jarraitzen ari da, eta lehentasunezko helburuetako bat du ardien osasuna eta ongizatea zaintzea.

Geroz eta gutxiago ikusten den ogibidea. Gustukoa izan behar, zalantza barik?

Ilusioz egiten dudana dela aitortu behar dut. Baserrian beti izan ditugu ardi gutxi batzuk, eta niri beti gustatu izan zaizkit. Zerbait egin behar bada, hobe gustukoa izatea... Industrializazioarekin, nire gurasoak fabrikari aritu dira lanean, eta, nire burua fabrika batean ez dudanez ikusten, hala hasi nintzen.



Asier Sagasta artzaina, arkumea eskuan duela. IMANOL BELOKI

Dena den, ez dut soilik ardiekin nik lan egiten, laguntza ezinbesteko da ogibide honetan. Ukuilu berriari hiru urte bete ditugun arren, aurrez ere beste hiru urtez aritu ginen, ukuilu zaharrean.

Egunerokotasunean zer egiten duzu?

Goizean goiz esnatu, ardiak batzetik hasi, eta gaztan bi egunean behin egiten dugu. Hala, goiz osoa ematen dugu gazta egiten: 04:30 aldera esnatu, dena garbitu, gazta egin, eta amaitu

orduko 12:30 bueltan izango dira, gutxi gorabehera. Arratsaldean, berriz, gaztak, daude-nean, prentsatik atera, gatzetan sartu eta berriz ardiak batu... Egunotan, topera ez gara ari produkzioan, baina 140 kilo gazta inguru egingo ditugu, gutxi gorabehera, eguneko. Hilaren amaiera aldera, 150-160 kilo egitera iritsiko gara, seguruenik.

Jasotako esne gutzia gazta egiteko erabiltzen duzue?

Bai, hala da. Ardien esnearen %100 gazta egiteko erabiltzen dugu. Bildotsak, berriz, aurrerako uzten ditugu, guk aukeraturakoak, eta gainontzeko gutziak handizkako merkatari bati saltzen dizkiogu, haragitarako.

Zein da gaztandegian egiten duzuen prozesua?

Lehenengo gelan, gaztak egiteko makinak ditugu. Esne-tankean batutako esne gutzia jasotzen dugu, eta bertan, hotzean mantentzen dugu. Hiru egun izan dezakezu esnea bertan, asko jota. Gero, tanke horretatik kubarra pasatzen dugu; gazta-mamia egiten den lekua da. Bertara esnea bota, eta 20 gradura esnea berotzen da; fermentuak botatzen zaizkio; eta gero, 31 gradura gatzaria. Hala, ordu erdiz mamia egiten egoten da. Mami hori moztu egiten da, eta, guk nahi dugun alea lortzean, moldeetara pasatzen da, eta handik prentsara pasatzen dugu. Ondoren, gaztak gatz-uretan sartzen ditugu,

14 ordu inguruz, eta gero, gaztari azala egiteko astebetez izaten ditugu. Azkenengo pausoa, berriz, kameretara pasatzea da. Kameraren barruan, lizuna irten behar zaio gaztari, bere ontze-prozesua ondo egiteko, azidotatuna ere jan egiten dio... Bi hilabetez izaten ditugu bertan, osasungintzak hala exijitzen digulako, eta, gaztak garbitu ostean, salmentarako prest ditugu.

Zuen gazta probatu gura duenak zer egin behar du?

Momentu honetan, Eskoriatzan Anduaga Pentsuak-en erosi daiteke gure gazta, eta baita Pagalday harategian ere. Honekin batera, bertara etorrira ere erosi dezake gura duenak.

Bisita gidatuak ere eskaintzen dizue Atxalde gaztandegian, ezta?

Atxalde gaztandegian, erreserbatuta eskaintzen ditugun bisita gidatuak; gutxienez, lau laguneko taldeentzat zuzendutakoak dira. Interesa duenak 688 86 51 16 telefonora deitu dezake, eta prezioak honako hauek dira: helduendako, 7 euro pertsonako; eta 13 urtetik beherako haurrendako, berriz, 3 euro pertsonako.

"400 ARDIETATIK ATERATAKO ESNEAREN %100 GAZTA EGITEKO ERABILTZEN DUGU"



Santa Ageda dantzak plazan

Martitzenean eta eguaztenean santa-eskean ibili eta gero, eguazten arratsaldean, Santa Ageda egunean, dantzak egin zituzten 2002an jaiotako 41 neska-mutil eskoriatzarrek Fernando Eskoriatza plazan. Txistularien laguntzarekin plazaraino iritsi, eta bertan, desafioa,

banakoa eta agurra dantzatu zituzten. Baita fandangoa eta arin-arina herritar, lagun eta familiartekoekin batera ere. Ohiturari jarraituz, domeka honetan, dantzen errepikapena izango dute. Hala, 19:00etan, dantzak egingo dituzte plazan, jendaurrean.

GORA ETA BEHERA



I.B.

Bidebarrietako harrizko eserlekuak

Josu Azkarate eskoriatzarrak dioenez, Bidebarrietako harrizko eserlekuetako bat lurrean dago. Horrekin batera, asko erabili izan den eremu hori egokitzea ondo legokeela gaineratu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Zientziaren dibulgazioa, adituen eskutik

Bigarren urtez jarraian, zientziaren dibulgazioa helburu duen zikloa antolatu du Eskoriatzako Udalak; otsailaren 12etik 18ra bitartean izango da. Zenbait hitzaldi eta ikuskizunez osatuta, ekitaldi guztiak Zaldibar antzokian izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zientzia argitan, egia ala gezurra egitasmoaren bigarren edizioa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Ekimena otsailaren 12tik 18ra bitartean gauzatu da, eta egun horietan, zenbait hitzaldi eta ikuskizun izango dira, arlo bakoitzeko profesionalek eskainita, hala, zientziaren dibulgazioa helburu izanda.

"Aurtengo programazioa asotarikoa eta osoa izango da: adituek zientziarekin zuzenean lotutako gaurkotasuneko gaiak jorratuko dituzten hitzaldiak eta zientziaren eta dibertsioaren arteko zubiak egiten dituzten bi ikuskizun", adierazi du Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikari Arantxa Unzuetak.

Mikrobioen mundua

Ziklo hau irekiko duen hitzaldia otsailaren 12an, eguaztenez, egingo da, eta, *Mikrobioak gure bizitzan: bakterioak, birusak, txertoak eta antibiotikoak* izenburupean, mikrobioen munduaz hitz egingo du Ignacio Lopez-Goñi hizlariak. "Mikrobioak nonahi daudela, gehienak tipo onak direla eta gu geu mikroorganismo gainezka gaudela ikusiko dugu. Baina batzuek, gutxi batzuek, arazoak eman diezazkigukete, eta gaixotasunak eragin. Horiei nola aurre egin diezakegun azalduko digu Biologian doktorea eta Nafarroako Unibertsitateko Mikrobiologia katedradun Ignacio Lopez-Goñik hizlariak".

Sexua ulertzeko argudioak

Mikrobioen gaineko hitzaldiaz gain, sexua izango du hizpide hurrengo saioan, otsailaren 14an, Laura Moran sexologoak. Zorrotasunetik, esperientzia klinikotik eta umoretik abiatuta, sexua ulertzeko eta bizitzeko hain kaltegarri diren mitoei, uste faltsuei eta aurreiritziei aurre egingo die hizlariak.



Ignacio Lopez-Goñi, Biologian doktorea. ARGAZKIA: NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

Zientzia eta bertsolaritza

Otsailaren 15ean, *Jakinduriak mundue erreko dau!* ikuskizuna izango da. Hiru hitzaldi laburren ostean, bertsolariek bertsoak sortuko dituzte gai horiek oinarri hartuta.

Otsailaren 16an, berriz, Jon Kepa Eureka *Zientzia edo magia?* ikuskizuna eskainiko du; eta, amaitzeko, Bittor Rodriguez nutrizionistak elikadura osasungarria izango du hizpide, otsailaren 18an.

Zientzia zikloaren egitaraua

Otsailak 12, eguaztena

- **19:00** *Mikrobioak gure bizitzan* hitzaldia. Hizlaria: Ignacio Lopez-Goñi. Hizkuntza: Gaztelera. Zaldibar antzokian.

Otsailak 14, egubakoitza

- **19:00** *Sexua, mitoak hausten* hitzaldia. Hizlaria: Laura Moran. Hizkuntza: Gaztelera. Zaldibar antzokian.

Otsailak 15, zapatua

- **19:30** *Jakinduriek mundue erreko dau!* ikuskizuna. Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Andoni Egaña. Zientzialariak: Iker Badiola, Eider Bilbao eta Onintze Salazar. Aurkezlea: Kike Amonarriz. Hizkuntza: Euskara. Zaldibar antzokian.

Otsailak 16, domeka

- **17:00 eta 18:30** *Zientzia edo magia?* ikuskizuna. Hizkuntza: Euskara. Sarrera: 2 euro. Zaldibar antzokian.

Otsailak 18, martitzena

- **19:00** *Zer da elikadura osasungarriaren kontu hori?* hitzaldia. Hizlaria: Bittor Rodriguez. Zaldibar antzokian.

Kiroldegi bateko bazkide izanik beste bat erabiltzeko aukera

Baldintzak ezarrita, Mugiment kirol txartela erabilgarri dago Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak urtarilaren 27an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen Mugiment kirol txartelari atxikitze lankidetzaren hitzarmena sinatzea Eusko Jaurlaritzarekin.

Bizkaiko hainbat udalerritan martxan egon den ekimena izan da, eta, esperientzia on hori gainontzeko udalerrietara zabaltzeko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzak Debagoienean sei hilabetez probatzeko proposamena egin zuen. Hala, Eskoriatzako Udalak eta bailarako zenbait udalek gaia aztertu eta bat egitea erabaki dute.

Doako txartela

Kirol txartel honek aukera ematen du herri bateko kiroldegiko bazkide izanik beste herri bateko kiroldegia erabili ahal izatea, gastu gehigarririk gabe; betiere,

kiroldegiak jarritako baldintzak beteta. Txartela doakoa da; beraz, erabiltzaileak bazkide egin duen kiroldegiko kuota bakarrik ordaindu beharko du. Hala, modurik eraginkorrena txartel birtuala erabiltzea da, hain zuzen ere, mugikorrean APPA deskargatuz.

Eskoriatzako baldintzak

Mugiment kirol txartela duten beste herri bateko kiroldegiko bazkideek Eskoriatzako kiroldegia erabiltzeko zenbait baldintza bete beharko dituzte: astelehenetik egubakoitzera; kiroldegia irekitzen denetik 17:00ak arte; eta zerbitzu guztiak erabili ahal izango dituzte.

Eskoriatzan bazkide izan eta Mugiment txartela eskuratzen dutenek erabili nahi duten kiroldegiko baldintza propioak kontsultatu beharko dituzte.

Inauteri-zapatuko herri bazkarirako txartelak, salgai

Inauterietako herri bazkaria otsailaren 22an izango da, zapatua, 14:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian, eta dagoeneko salgai daude txartelak Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan. Txartelak erosteko azken eguna otsailaren 18a izango da.

Bi menu izango dira: 18 urtetik gorakoentzat, patatak errioxar erara, oilaskoa piper berdeekin

eta entsaladarekin, txokolate-browniea izozkiarekin eta kafea eta txupitua, eta edateko, ardo ondua, sagardoa, ura eta freskagarriak. Txartelaren prezioa 16 euro da.

18 urtetik beherakoentzat, bestalde, honako hau izango da bazkariko menua: makarroiak tomate eta gaztarekin, oilasko izterra txip patatekin, eta Smarties izozkia. Edateko, aldiz, ura eta freskagarria izango dute, eta ordaindu beharreko prezioa 10 eurokoa da.

Kalamua hizpide, nerabeentzako eta gurasoentzako saioa

Eskoriatzako Udalak antolatuta, *Zer dio legeak kalamuaren kontsumoari buruz?* izeneko hitzaldia izango da otsailaren 13an, eguenean, kultura etxeko aretoan, 18:00etan. Saioa gazteleraz izango da eta hizlaria Iker Legardon gaian aditua den ertzaina izango da.

Gazteei eta gurasoei zuzendutako hitzaldian, kalamuaren

lege-esparruaz hitz egingo da. Hala, gai honen bueltan ohikoak diren zenbait galderari erantzuna emango die hizlariak: kalamua kontsumitzea legezkoa al da?; kalean joan daiteke kalamua erretzen?; egia al da etxean bi landare izatea legala dela?; edo bakarra?...

Substantzien kontsumoaren inguruan legeak zer dioen azalduko die hizlariak bertaraten diren herritarrei; bereziki, oinarria kalamuaren kontsumoan jarrita.

Auzoko egitasmoko dinamika berbagai

Auzoko Eskoriatza egitasmoko zenbait kide Huhezi, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hirugarren mailako ikasleekin izan ziren martitzenean, proiektuaren nondik norakoak azaltzen eta esperientziak partekatzen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean, Auzoko Eskoriatzako Iratxe Arrese dinamizatzailea eta taldeko bi auzotar eta beste hiru auzokide izan ziren Huhezín, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, beraien esperientzia partekatzen eta proiektuaren nondik norakoak azaltzen.

Iratxe Arrese Auzoko Eskoriatzako dinamizatzaileak adierazi zuenez, interesa piztu zien ikasleei Auzoko proiektuak: "Atzerriko hizkuntzak lantzen ari diren ikasleen tutorengandik jaso genuen gonbidapena, eta, hala, hirugarren mailako ikasleekin izan ginen martitzenean, egiten duguna zer den azaltzen. Taldean urteak daramatzen bi auzotar –Dorleta Lezeta eta Marije Uribe– eta Brasil, Siria eta Marokotik etorritako hiru auzokide joan ginen bertara, eta ikasleei, beraien herrietan dituzten Auzoko egitasmoetan parte hartzeko ani-



Ikasleei azalpenak ematen. AUZOKO

matu eta dituen onurak transmititu dizkiegu. Izan ere, atzerriko datozenek ikasten duten arren, Auzokon parte hartzen duten auzotarrek ere askotariko hizkuntza eta ohiturak ikasteko aukera izaten dute."

Jolasak eginda, ikasi

Hori horrela, ikasleekin egindako saioan, jolasak egiteko aprobetxatu zuten: "Irudi bidezko jolasak egin genituen. Gurekin etorri diren auzokideek euskarazko zenbait hitz eta nola ahoskatzen diren ikasi dute, eta guk, beraienak".

San Blas opilak: ikastaroa

Munduko Janak lelopean bi ikastaro antolatu ditu orain arte Auzoko Eskoriatzak. Bietan, atzerriko jakiak egiten ikasi dute bertaratu direnek, eta oraingoan, berriz, Euskal Herriko jaki bat egiten ikasteko aukera izango da; hain zuzen ere, San Blas opilak.

Otsailaren 13an, eguena, 18:00etan, kultura etxean izango da ikastaroa, eta Eskoriatzako Talogile Elkarteak Miren Diaz de Gereñuk gidatuko du. Plazak mugatuak izanda, aurrez eman behar da izena, 661 74 63 76 telefono zenbakira deituta.

OHARRAK

Liburu aurkezpena

Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarrak *Al timón de mi barco* liburuaren aurkezpena egingo du gaur, egubakoitza, Bibliotekan, 19:00etan.

Astunera eski-irteera

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, hilaren 15ean eta 16an izango da irteera. Prezioa 140 euro izango da eta informazio gehiago nahi duenak Namaste belar-dendan galdetu dezake.

Kintaden Eguna

Zapatu honetan, hainbat kintada batuko dira eta bazkaria izango dute, herriko elkarte eta tabernetan, bakoitzak bere kontura.



Aurtengo irakur puntua alde bietatik. GATZAGAKO HERRI LIBURUTEGIA

2020. urteko irakur puntua, aurkeztutako guztiekin osatua

Gatzagako liburutegiak antolatutako irakur puntu lehiaketako leloa 'Denok elkarrekin asko hobea' izan da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako herri liburutegiak antolatuta, irakur puntuko marrazki lehiaketa izan da, beste urte batez. *Denok elkarrekin asko hobea* lelopean, atera dituzte dagoeneko zenbait irakur puntu, eta gehiago ere jarriko dituzte, herritarren eskaerari erantzunez, Labidea tabernan.

Duela bi aste egin zuten 2020ko irakur puntuaren aurkezpena, eta bertan batu zirenei irakur puntuak banatu eta haurrei, berriz, liburuak banatu zizkieten. Horrekin batera, txokolate-jana izan zuten hurbildu zirenek.

Lan guztiekin bakarria egin dute

Ainhoa, Goretzi, Sugar, Haritz, Ayane, Aiur, Enara, Urtats eta Maia izan dira lehiaketan parte hartu dutenak, eta aurtengo edizioaren berrikuntza irabazle bakar bat izan beharrean parte-hartzaile guztiak saridun bihurtu.

tzea izan dela adierazi du Gatzagako liburutegiko boluntario taldeko kide Nerea Altunak: "Aurtengo helburu nagusia lehiaketa kutsua kentzea eta parte hartzea baloratzea izan da. Bakoitzak bere alea jarrita, gauza ederrak sortu daitezkeela erakusteko asmoz. Aurkeztutako marrazki guztiak hartu, eta bakoitzetik elementu bat aukeratu, marrazki bakarria osatu dugu. Hala, parte hartzaile guztiak irabazle geratzeko. Hala ere, aurkeztu diren marrazki guztiak ikusgai daude liburutegian".

Herritarrei deia

Eguaztenetan 17:30etik 19:00etara zabalitzen jarraitzen dute liburutegia, eta bertako boluntarioek herritarrei gogorarazi gura izan diete erabilgarri dagoen espazioa dela eta, ateak zabalik dituztenez, bertara animatzeko.

Eskoriatza eta Gatzaga lotzen dituen bideari balioa ematen

Conexiones Improbables plataformak proiektu berritzaile irekien aldeko apustua egiten du, metodologia berritzailea erabiliz. Hala, joan den asteburuan, Pez estudioko taldekoekin eta Leintz Gatzagako zenbait herritarrekin Eskoriatzatik Gatzagara Gatz Bideak izan beharreko garrantzia aztertu zuten, besteak beste.



Gatz Bidean batutakoak. CONEXIONES IMPR.



GARAION SORGINGUNEA

Zumezko jolas parkea eraiki dute

Garaion Sorgingunekoek lagunduta, Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasleek zuhaixkak landatuz jolasgune berdea sortu dute eskola alboan, bolatoki zaharreko belardian. Zumezko jolas parke hau eraikita, urte osoan zehar zumeak dituen aldaketak ikusteko aukera izango dute ikastetxeko haurrek, hala, naturaren zikloak gertutik ezagutu eta ikasteko.



Hainbat uberar, San Paulo jaietako auzo bazkaria bukatu ostean, Jaolatzela elkartearen, 2020ko urtarrilaren 18an. IBAI ZABALA

Ubera: Bergara eta Elgeta arteko auzo fantasma ez bihurtzeko konpromisoa

1927an Elgetatik desanexionatu eta Bergarako auzo denetik asko aldatu dira gauzak Uberan; azken bi hamarkadetan populazioa mantendu egin da, baina 1995ean eskola itxi izanak eragin itzela izan du bertako bizitzan; gazteak erakarri nahi dituzte bizi izatera

Jokin Bereziartua BERGARA

1927a ezkerro Bergarako auzoa da Ubera, urte hartan desanexionatu zelako Elgetatik. Angiozarrekin batera gauzatutako desanexioa luzea eta gatazkatsua izan zen, orduko dokumentu historikoez erakusten dutenez.

Zergatik erabaki zuten Uberak eta Angiozarrek, duela 93 urte, Elgeta utzi eta Bergara izatera pasatzea? Hainbat arrazoi ageri dira dokumentuetan, baina arrazoi nagusiak dira Bergarak zerbitzu hobeak zituela eta industrializazioaren eraginez lehen lanpostuak sortzen hasiak zirela. Harreman komertzialak Bergararekin zituzten uberarrek eta komunikazioak ere egokiak ziren. 1920an Elgetatik Eibarrerako errepidea proiektatu zen, inbertsio handia zena, eta uberarrek eta angiozartarrek ez zuten errepide horrekiko

interesik adierazi; historialarien arabera, erabaki hartatik hasi zen forma hartzen desanexioaren ideia. 1927an gauzatu zen, Elgetarentzat galera handia ekarri zuen Ubera eta Angiozar galtzeak, biztanleen erdia eta baserri kopuruaren erdia baino gehiago galdu zituen -183 bat baserri izatetik 83 izatera pasatu ziren-.

Gaur egun, 137 auzotar dira

Gaur egun, Uberak 50 baserri ditu eta, azken errolda datuen arabera, 137 uberar dira. Egia da azken urteetan ez dela de-

AZKEN 20 URTEETAN EZ DA ALDAKETARIK IZAN POPULAZIOAN: 2000AN 141 ZIREN ETA EGUN 137 DIRA

mografia aldetik beherakada handirik izan; 2000. urtean, 141 ziren; 2005ean, 150; 2007an, 143... Hala ere, Uberan, Bergarako eta Debagoieneko landa-eremu beste auzoetan bezala, auzotarren zahartzeak ez du etorkizun oparorik aurreikusten.

Berpiztutik, egungo beharretara

2007an, Berpiztu programa abiatu zuen Bergarako Udalak Uberan, Angiozarren eta Elosuan. Helburua zen auzo horietako beharrik identifikatzea, auzotarrek lehentasunak zehaztea eta horiei erantzuteko dirulaguntzak lortzea eta hobekuntzak gauzatzea. "Asmoa ona zen, baina ez zuen jarraipen handirik izan. Noizean behin tiratu izan da dokumentu horretatik, baina Uberako kasuan, behintzat, ikusten genuen dokumentua zaharkitua geratu zela. Horregatik,

auzo alkate izendatu eta harremanetan jarri ginen Udal Gobernu berriarekin, 2019ko irailan. Orain arte, azpiegituz hitz egin izan dugu, nagusiki, baina orain, azpiegituz haragoko beharren berri ere eman genien", dio Gorka Buruagak.

Elkarlanerako prestutasuna

Udal Gobernuak hilean behin egiten du auzo alkateekin elkartzeko bilera. Uberako kasuan, urtarrilean behin baino gehiagotan bildu dira, urtarrilaren 17tik 19ra ospatutako San Paulo jaiak direla eta; auzoko festak

BI ESKAERA NAGUSI: BASERRIETARAKO UR SAREA ETA OINEZ EDO BIZIKLETAZ HELTZeko BIDE SEGURUA IZATEA

"Etorkizunerako gazte berriengana heltzea ezinbestekoa izango zaigu"

GORKA BURUAGA ETA MADDI ELORTZA UBERAKO ALKATEAK

Angiozarren hauteskundeak egiten dituzte alkatea aukeratzeko, eta Uberan *konklabe* antzeko bat egiten dute: gela baten sartzen dira eta ez dira hortik irteten alkatea izendatu arte. *Fumata* edo ke zuririk ez da izaten, baina iaz lehen aldiz aukeratu zituzten bi pertsona alkate izateko: Gorka Buruaga (Ubera, 1983) eta Maddi Elortza (Ubera, 1996). Badago odol gaztea gero eta zaharragoa den auzo baterako.


Badago modurik jende gaztea Uberara erakartzeko?

Formula magikorik ez dago, baina gazteak gure taldera erakartzeko bagabiltza ekimen batzuk abiatzen. Auzoan beharra ikusten dugu gazteen arteko harremanak sendotzeko; auzoko

seme-alabak izan eta Bergaran bizi direnek badute Uberarako berezko joera bat, baina gazte berriengana heltzea ezinbestekoa izango zaigu.

Auzotar moduan zer gehiago egin dezakezue Uberaren kohesioa handitzeko?

Gazteekin harremanean sakondu egin behar dugu; horretarako, batzarretan eta gure antolatze



JOKIN BEREZIARTUA

moduetan erakargarriagoak izan behar dugu; gakoetako bat izango da gazteei uberar izatearen sentimendua kutsatzen saiatzea.

Nolakoa da, bada, uberar izatea? Nolakoak zarete uberarrak?

Uberarrak, hasteko eta behin, alaiak gara. Kanpotik datozenei harrera ona egiten diegu eta errepikatu egin ohi dute; jaietan edo sagardotegirako irteeran giro ederra sortzen dugu. Badugu erakargarria den zoro puntua; oso lasai bizi gara, paraje ederrean.

Auzuak ala hil izeneko ekimena estreinatu zenuten 2018an.

Egun bateko parranda izaten da, edo hori baino gehiago?

Parranda baino askoz gehiago izan zen. Osintxuko, Angiozarko, Elosuko, San Juango, Basalgoko, Elorregiko eta Uberako auzotarrok oso positiboki baloratzen dugu. Auzoen arteko harremana sendoa zen lehen; egun horietan ikusi dugu elkartuz gero indar handia dugula.

baliatu dituzte "elkarlanerako espazioak" sortzeko: "Auzoetan egon daitezkeen azpiegitura beharrik ditugu Uberan ere, baina, horiez gain, Ubera auzo bizi eta bizi den auzo izatea izan daiteke behar bat. Auzoan badago dinamika eta badago nahi bat auzotar guztiak dinamikan sartzeko; ume, gazte, heldu eta nagusiei erantzuneko dien dinamika bat. Horretan dihardute lanean eta Udaletik elkarlanean ari gara. Auzoarekin berarekin eraiki nahi dugu hurrengo urteetan egin beharreko urratsak markatuko dituen plana. Auzoaren beharrik eta Udalaren baliabideak aintzat hartuta elkarlanean aurrera egin nahi dugu", esan du Gorka Artola alkateak.

Buruagak eta Elortzak beharren zerrenda luze bat aurkeztu zuten 2019ko irail bukaeran udaletxean. Beharren artean bi nabarmendu



2019ko apirilean, Udalak plaza berri eta autobus geltokia lekuz aldatu zuen. J.B.

dituzte: batetik, Uberako baserri asko ur saretik kanpo daudenez, Urkuluko edo Aixolako urtegiekin lotzeko inbertsio handi bat beharko litzateke.

"Bide segurua" eskatzen 2014tik

Eta, bestetik, Uberatik Bergara-ra joateko –edo alderantzizko bidea egiteko– "bide segurua" eskatzeko Auzobide plataforma sortu zuten 2014an: "Mugikortasuna oso garrantzitsua da guretako, eta autoa da dugun aukera bakarra. Oinez edo bizikletaz ere mugitu nahiko genuke, eta, horretarako, egungo errepidetik paraleloan doan pasabide bat nahikoa izango litzateke. Lanerako bakarrik ez, aisialdirako ere autoa ez den beste aukeraren bat izan beharko genuke. Kontua da orain arte beti uberarron arazo bat izango balitz bezala tratatu dela, eta hori aldatu beharra dago. Gu ere bergararrak gara eta arazo bat dago Uberarako bidearekin. Diputazioaren errepidea da eta han ere erregistratu genuen eskaera; esan ziguten azterketa bat egingo zela, teknikari bat pasatu zen, baina hortik aurrera ez genuen ezer jaso", dio Buruagak.

Gorka Artola alkateari galduta, dio oraingoz ez dagoela aurreikusita errepide horretan inbertsiorik egitea: "Elgetatik behera datorren GI-2632 errepidearen aldamenean bidegorri bat egitea eskatu izan dute auzokide batzuek, Ubera, San Juan eta inguruko industrialdeak herrigunearekin lotuz. Bergaran amaitzeke dauden beste bi bidegorrien inguruan Diputazioak Mugikortasun Sailean izandako bileran eskari honen berri eman genuen. Edonola ere, gaur-gaurkoz, Diputazioak ez du Gipuzkoako bidegorrien planean ibilbide hori aurreikusten".

Pozik plazaren berritzearekin

Udalak gauzatu dituen lanen artean dago plaza berritzearena; 2019ko maiatzean bukatu ziren obrak, eta uberarrak pozik daude: "Behar handia zegoen plaza berritzea; arbolak gaixorik zeuden, ez zen batere praktikoa eta ziburuak oso zaharkituta zeuden. Pena bakarra da proiektua egin zenean ez genuela aurreikusitako berdegune eta zuhaitzen bat jartzea gerizpeak egoteko. Hala ere, azken emaitzarekin pozik gaude oro har", adierazi du Maddi Elortzak.

Jaolatz: sarrerako kuotarik ez

Beste eskaera zehatz batzuk ere badituzte, eta horietako batzuk "laster" gauzatu dituzte Udalak. Horren adibide dira frontoiko fatxada pintatzea eta itoginak eragiten dituen frontoi gaineko kristalera konpontzea. Hala ere, badira exekuzio eperik ez duten beste eskaera batzuk: auzoaren bereizgarrietako bat den San Paulo eliza pintatzea; auzoaren bihotza den Jaolatz elkarteko atzeko zelaitxoak egokitzea askotariko erabilerrak emateko...

Elkarteak 50 bat bazkide ditu eta auzo alkateak pentsatzen ari dira bazkide egiteko sarrerako kuota ez kobratzea. "Hileroko kuota bakarrik ordaindu beharko lukete; mugimendu handiagoa izatea nahiko genuke".

Ezaugarri berezi bat aipatzearen, gizonezkoen eskubide berberak izan dituzte emakumezkoek, Jaolatz elkartea zabaldu zenetik.


1994-1995 IKASTURTEA IZAN ZEN UBERAKO ESKOLAKO AZKENA; SEI IKASLE ZEUDEN ORDUAN

Eskaera nagusiak eta egingo diren lanak



Kamioi bi Uberatik jaisten, San Juango industrialdean.

Bide segurua Oinezkoek eta bizikletek seguru mugitzeko Auzobide plataforma sortu zuten 2014an. Diputazioen proiektuen artean ez dago oraindik.



Jaolatz elkarteari lotuta dagoen frontoiko estalkia.

Itoginak konpontzea Eskaera zehatzen artean dago frontoiko estalkiko itoginak konpontzearena. "Udalak esan berri digu laster konponduko dutela".



Uberako plazatik gertu dagoen baserrietako bat.

Ura baserrietara Uberako baserri asko ur saretik kanpo daude eta "lehenetasun handiena" da baserri horiek Urkuluko edo Aixolako urtegiekin lotzea.



Frontoiko fatxada. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

Fatxada pintatzea Frontoiaren kanpoaldea "oso zaharkitua" geratu dela-eta margotzea nahi dute; Udaletik erantzun diete "laster" pintatuko dutela.

Eskola ixtean, "ia dena" galdu zen

1994-1995 ikasturtean itxi zuten Uberako eskola-etxea. Gorka Buruaga auzo alkatea izan zen azken promozioiko ikasleetako bat; eskolak sei ume zituela itxi zituen ateak. Auzo txikiendako eskolek berebiziko garrantzia duten seinale, Buruagak dio eskola itxi zutenean Uberak "ia dena" galdu zuela: "Adinekoek diote bizitza izugarri galdu zela. Umeok 20:00ak arte egoten ginen auzoan jolasten; hori bizi izan genuenok bai izan dugula bizimodua Uberan, esnatetik lokartu arte, eta badugu uberar izatearen sentimendua. Aldiz, Bergaran hezi izan diren auzotarrek joera txikiagoa izan dute Uberara gerturatzeko".



Ikasle talde bat Uberako eskolaren aurrean, 1963an. JAOLATZA ELKARTEA

Angiozar eta Osintxu adibide Angiozarko eskola txikian 35 ikasle daude egun eta Osintxuko San Martin eskolaren gela desplazaturako umeak erakarri nahian dabilta guraso batzuk,

ume faltagatik ixteko arriskuan dago eta. Buruagak ondo ezagutzen duen eskola txikiaren eredu defenatzen du: "Beste eredu bat eskaintzen dute, oso polita eta erakargarria dena".

Euskararen historia batu, ahozko istorioak oinarri

Gerraostetik 1980ra arteko Bergarako euskararen "historia soziala" jasotzeko asmoz orain arte egin diren grabaketetako pasarte onenak aukeratu eta hamabost elkarriketa berri egingo ditu Badihardugu elkarteak, Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean

Jokin Bereziartua BERGARA

1939tik 1980ra euskarari eusteko egin zen lanaren testigantza jaso nahi du Udalak, eta, horretarako, proiektu bat abiatu du Badihardugu euskara elkartearekin. Bergarako euskararen "historia soziala" jasotzea izango da helburua. Eta, zehazki esateko, gerraostetik 1980ra bitartean euskarari eusteko eta hura biziberritzeko egin zen lanaren testigantza jaso nahi da. Horretarako, bi lan nagusi egingo dituzte: batetik, orain arteko grabazioak aztertu eta pasarte onenak aukeratu dituzte; eta, bestetik, hamabost elkarriketa berri egingo dituzte. "Helburuak dira euskara sustatzeko egindako lanaren informazioa jasotzea, hori herrian ezagutaraztea eta egindako lan hori aitortzea. Bestalde, orain, gerraostetik 1980rako epea landuko da, baina asmoa da beste epe batzuk ere lantzea, tartean dokumentazio historikoa ere aztertuta", dio Euskara zinegotzi Ekaitz Aranberri.

Laguntzeko eskaera herritarrei

Ez dute zehaztu zeintzuk izango diren elkarriketatuko dituzten hamabost bergararrak, eta erabaki horretan laguntzeko Udalak eskatu die herritarrei gaiari buruzko informazioa eman de-



Estepan Plazaola, Gorka Artola, Idoia Etxeberria eta Ekaitz Aranberri. JOKIN BEREZIARTUA

UDALAK 8.510 EURO BIDERATU DIZKIO BADIHARDUGURI; 2020 BUKAERARAKO AMAITU BEHARKO DA

zaketen pertsonen gaineko informazioa emateko, eta izan dezaketen edozein dokumentazio Euskara Zerbitzura bideratzeko. Udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko bi bide zehaztu dituzte, telefonoz eta

posta elektronikoz: 943 77 91 29 eta euskara@bergara.eus.

Begarako euskararen "historia soziala" jasotzeko, askotariko arloak hartuko dituzte aintzat: eskola; antzerkia, kantagintza eta bertsolaritza; literatura produkzioa; euskalduntze-alfabetatzea; UNEDeko Euskal Kultura Departamentua; zeharkako arloak izan daitezkeen mendizaletasuna eta dantza... Udalak 8.510 euroko laguntza bideratu dio Badihardugu elkarteari eta proiektua 2020 bukaerarako amaituta egon beharko da.

Jasotakoa, 'Ahotsak.eus' webgunera

Herriko ahozko ondarea biltzeko proiektu bat abiatu zuten Udalak eta Badiharduguk 2003an. 165 herritarren grabazioak jaso ziren eta garai bateko Bergarako bizitza irudikatzen balio dute, besteak beste. Metodologia bera jarraituko dute orain, eta, ahalik eta gehien zabaltzeko, www.ahotsak.eus/Bergara webgunera igoko dute. Beste euskarri batzuetan zabaltzeko aukera ere egongo da.



Ahotsak-en parte hartu zuten hiru bergarar, artxiboko argazki baten. BADIHARDUGU



Ezkerrean, *Balento*; eskuinean, ertzain bat haren gorpua eramaten. POL-POL/ERTZAINZA

Samina eragin du 'Balento'-ren heriotzak mendizaleen artean

81 urte zituela, Mugarrako sakan batetik erorita hil zen Luis Mari Mujika; doluminak helarazi ditu Pol-Polek

J.B. BERGARA

Otsailaren 2an Durangaldeko Mugarra mendian hildako Luis Mari Mujika *Balento* bergararraren heriotzak samina eragin du herriko mendizaleen artean. Domekan 11:00etan gertatu zen ezbeharrak; mendizalea senitarteko batzuekin zihoan –alaba, tartean– eta sakan batetik erorita hil zen, 81 urte zituela.

Eraña: "Memorian izango dugu"

Senitartekoek eman zieten abisua larrialdi zerbitzuei; helikopteroan hurbildu arren, iritsi zirenerako ezin izan zuten ezer egin haren

bizitza salbatzeko. Pol-Poleko presidente Aitor Erañak hitz ederrak izan ditu mendizaleentzat: "Harekin bizi izandako uneak memorian izango ditugu. Oso pertsona ona eta alaia izan da; zuzena, eta guztion laguna. Oso pertsona alaia zen, eta harremana zuen jende askorekin. Bestalde, atentzioa ematen zidan nolako ezaugarri fisikoak zituen; palan aritzen zenean, esaterako, gogoratzen dut sekulako zartadak ematen zituela". Pol-Pol elkartearen izenean senideei eta lagunei doluminak helarazi nahi izan dizkie Erañak.

OHARRAK

Aratusteetako kontzertua: sarreraren salmenta

Otsailaren 21ean izango da, frontoian (22:30). Sarrerak hilaren 13an eta 14an jarriko dira salgai, Internetez eta Seminarixoan.

Buruñaoko San Blas jaietako azken ekintzak

Zapatuan, 32. mus txapelketa (16:00), auzo afaria eta erromeria izango dituzte; domekan, Moises Aspiazu dantza taldearen saioa (12:00), umeendako kukainak eta Gariband taldea izango dira.

'El narco-oasis vasco' liburuaren aurkezpena


Ahoztar Zelaieta kazetariak bere azken lana aurkeztuko du etzi kartzela zaharrean (17:30). "Narkotrafikoaren euskal kapoen, narko-agenteen eta polizia-konfidenteen argazkia" erakutsiko du.

Torradak eta pellak egiten ikasteko saioa

Otsailaren 19an izango da ikastaroa, Gure Ametsa elkartearen, 18:00etatik 20:00etara. Plaza asko daude libre eta hilaren 12rako eman beharko da izena, Udaleko Kultura Zerbitzuan: 943 77 91 59.

Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa: otsailak 13

Udal liburutegian (19:30). Gaiak: txirotasun energetikoa, kooperatiba energetikoak eta Fiare banku etikoaren jardura.



Igerilariak, lehiatzeko prest, iaz otsailean Agorrosinen egindako txapelketan. GOIENA

227 igerilari batuko dira asteburuan Agorrosinen

Gipuzkoako txapelketa jokatu da Agorrosingo igerilekuan eta, besteak beste, sei bergarar izango dira lehiari, infantil, junior eta nagusi mailetan. Horrekin lotuta, txapelketa dela-eta igerilekua itxita egongo da asteburu osoan

Jone Olabarria BERGARA

Orain arte hainbat txapelketa eta probatan lehiatu diren arren, asteburu honetan Bergaran jokatu den Gipuzkoako txapelketa da denboraldiko lehen proba "garrantzitsua", Bergarako igeri elkarteko Xabi Labaka entrenatzaileak azaldu duenez: "Orain arte, igerilariak trebatzen ibili dira, sentsazioak hartzen eta esperientzia irabazten. Orain, baina, egindako lana erakusteko unea da, eta nork bere denbora eta markak gaintzekoa".

Hala, Gipuzkoa osotik etortako 227 igerilari lehiatuko dira zapatuan eta domekan Bergaran. Neguko Gipuzkoako txapelketa jokatu dute, infantil, junior eta nagusi mailetan; Bergarako igeri elkarteko sei lagun ere izango dira.

Denboraldiarekin "gustura"

Hain zuzen, 2019-2020 denboraldian 7 eta 28 urte bitarteko Bergara, Antzuola eta Elgetako 80 igerilari ari dira Agorrosinen

entrenatzen. Orain arte egindako lanaz galdetuta, "gustura" agertu da Xabi Labaka: "Ondo gabilta lanean eta gaur arte lortutako emaitzekin pozik gaude".

Oñatiarrak, "aberasgarri"

Abuztuaren leian hasi zituzten Zubikoa handitzeko eta berri-tzeko lanak. Kanpoaldeko lanekin aritu dira urtarrilerako arte eta igerileku barrukoekin ordu-tik aurrera. Igerileku berriak egin arte ez da eremu bustirik egongo kiroldegian eta horrek eragin zuzena izan du Aloña Mendiko igeriketa sailean, baita Bergara igeri elkartean; izan ere, batera entrenatzen dabilta.

**"ONDO DATORKIGU
BESTE IGERILARI
BATZUEN LANA
EZAGUTZEA, OSO
ABERASGARRIA DA"**

Hain zuzen, igerileku berriak eraikitzeke lanean iraun bitartean, Agorrosinen entrenatzen dihardute 84 igerilari oñatiarrek.

Egoera berriaz galdetuta, hasiera batean zalantzak sortu ahal baziren ere egun "oso ondo" moldatzen direla aitortu du Labakak: "Une honetan, denok batera entrenatzen gara Agorrosinen, kale berberak ere erabiltzen ditugu. Mailaka antolatzen gara eta igerilariak batera aritzen dira".

Oñatiar asko goizez entrenatzen ziren, baina Bergaran arratsalde edo iluntzeetan dira prestaketa saioak, eta ordutegi horietara moldatu behar izan dute Aloña Mendikoek. Hilabete hauetako elkarlana "oso aberasgarria" ari da izaten, Labakaren esanetan: "Egia esanda, ondo etorri zaigu beste igerilari batzuek nola entrenatzen duten ikustea, esperientzia aberasgarria izaten ari da oso. Besteen-gandik ikasi eta taldeen arteko elkarlana dira nagusi".



Ander Etxaniz pilotari bergararra iazko klubaren arteko txapelketan. GOIENA

Abian da Soraluze lau eta erdiko txapelketaren XI. aldia

Martitzenean egin zuten lehen jardunaldia eta datorren astean arituko da Ander Etxaniz, bergarar bakarra

J.O. BERGARA

Otsailaren 4ean, martitzena, hasi dute Soraluzeko lau eta erdiko pilota txapelketa. Aurtengoa hamaikagarren aldia izango du kaiolako txapelketa eta Bergara pilota elkarteko pilotari bakarra izango da bertan: Ander Etxaniz bergararra.

Lehen jardunaldia, jokatuta

Hala, udal pilotalekuan jokatu zuten martitzenean promes eta nagusi mailako final-laurdenen lehen jardunaldia. Hain zuzen, Fernandezek 22-6 irabazi zuen De la Fuenteren aurka promes

mailan eta Zubizarreta 22-4 gailendu zitzaion Canabali nagusietan. Hemendik aurrera ere, partiduak martitzenetan jokatu dituzte, 19:30ean, zazpi astez.

Datorren astean, Etxaniz

Urtero lez, maila handiko pilotariak ekartzen saiatu dira, zaleak erakarriko dituztenak. Hala, beste txapelketa batzuetan goian ibili diren pilotariak ikusteko aukera egongo da frontoian. Bergararren kasuan, Ander Etxaniz izango da lehiatuko den bakarra, eta, hain zuzen, datorren martitzenean arituko da.



BKE FUTBOLA

Entrenatzaileak, formakuntzan

Joan den zapatuan, entrenatzaileentzako formakuntza saioa egin zuten Bergara Kirol Elkarteko futbol saileko teknikariek. Denboraldian zehar garatutako kontzeptu teorikoak landu, saio praktikoa, talde dinamikak eta *coaching*-a egin zituzten, Real Sociedad taldeko formatzaileen laguntzarekin.



Nizuri Tazuneri taldearen 7a7pi lanaren irudia. NIZURI TAZUNERI.

San Valentín egunaren kontra, musika nagusi

Maitasun erromantikoak eta kontsumismoak eskaintzen duten eredua gainditzeko, musika doinuak izango dira nagusi datorren egubakoitzean, hilak 14, Kartzela Zaharrean. Bertan arituko dira Nizuri Tazuneri taldea, Gual.icho DJa eta Turtukiñak

Jone Olabarria BERGARA

Lagun talde baten egitasmotik sortua, "dantzarako, gerriak astintzeko eta izerditzeko" aukera izango da Kartzela Zaharrean otsailaren 14an, San Valentín egunez. Hain zuzen ere, egun horrek plazaratu duen eredua "irauli" eta "azken batean kontrolerako tresna den maitasun erromantikoa eta eredu kontsumista alde batera uztea" du helburu datorren egubakoitzean egingo den *Anti SanBarentin* gaualdiak.

Musika izango du oinarri jaialdi honek eta doinu ezberdin ugari gozatzeko aukera izango da: "Rap, reggaeton eta trap musika maitasun erromantikoarekin lotu ohi dira askotan; aurreiritziz betetako diskurtsoa dugu hori, ordea. *Anti SanBarentin* gaualdian, afro erritmoekin, elektronikarekin, reggaetonarekin, traparekin eta musika errebeldeekin gozatzeko aukera ederra egongo da otsailaren 14an Kartzela Zaharrean".

Egitarau oparora

Gaualdia girotzeko, hainbat artistaren emanaldiak prestatu dituzte: 22:30ean hasita Nizuri Tazuneri taldeak kontzertua eskainiko du. Norzzone eta Fani Donostialdetik etorritako abeslariak Hawa eta Maisha Barakaldoko produktoreekin batera elkarlanean sortutako proiektu honek euskarazko rapa aurreratu gura du: "Euskarazko rapak txinera dirudiela esaten ziguten askok, eta guk, ordea, ezetz, japoniera kutsu gehiago zuela; hala jaio zen *Japanesence* izeneko lehen maketa, 2014an".

Hamaika proposamen eta hamaika kontzepturen artean, estilo, gai eta *flow* ugari aurkituko ditu entzuleak, euskara

"RAPA, REGGAETONA ETA TRAPA MAITASUN ERROMANTIKOAREKIN LOTU IZAN DIRA, BAINA AURREIRITZIAK DIRA"

eta abangoardiazko erritmoen eskutik.

Gual.icho DJa

Duela zazpi urtetik Bergaran bizi den Gual.icho DJ uruguaitarrak ere giro aparta jarriko du Kartzela Zaharrean, 00:30etik 04:00etara. Musika afro-tropikal giroan murgilduta ibili da orain arte, proiektu ezberdinetan, Nacho A. Ifran DJa. Egun, ordea, bestelako musika ilunago eta elektronikoei heldu nahian, egitasmo berri honekin lanean hasi da, "dantzalekuan latino/afroaren berotasun eta organikotasuna alboratu gabe". Otsailaren 14ra begira saio berezia prestatuko du.

Turtukiñek, saioa prest

Turtukiñen txanda iritsiko da ostean. Mundu osoko musika eta erritmo dantzagarriak jarriko dituzte; nagusiki, emakumeek sortuak. Oraingo honetan ere, saio berezia prestatu dute, filtrorik jarri gabe.

'Zaldi urdina' antzezlanaren bihar, zapatua, Seminarixoa

Arte Drama, Axut eta Dejabu Panpin Lorategiaren lanak 80ko hamarkada markatu zuen heroina du ardatz

J.O. BERGARA

Urriaren 11n Luhuson estreinatu zutenetik, antzoki guztiak goraino bete ditu *Zaldi urdina* antzezlanak, eta bihar Bergaran ikusteko aukera izango da, 19:00etan, Seminarixoa. Sarreak zortzi euroren truke eskuratu daitezke.

Arte Drama, Axut eta Dejabu konpainien azken elkarlanak drogak Euskal Herrian izan duen eragina oso gertutik erakusten du; Aingeru gaztea desagertu egin da techno jaialdi batean, beste gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. *Zaldi urdina* izeneko droga berri batek eragin dio heriotza gazteari, eta polizia uste dut Aingeru dela horren *trapitxeroa*. Amets, Aingeruren arreba, *gatzetxero* eta bizimodu osasuntsu zalea, bere kabuz hasi da anaiaren bila atzera-kontaktetan.



Antzezlanaren une bat. GOEINA

Zaldi urdina izen metaforikoaren bitartez, 80ko hamarkadako Euskal Herria eta heroina, "zaldi zuria", ekarri nahi izan dituzte gogora. Horrekin batera, gazteria eta rock musika, hiesa eta heriotza, gatazka politikoa eta botereen esku beltza.

'Euskal Herria natura' erakusketa, gaurtik aurrera Aroztegin


Euskal Herriko ingurune naturalaren ikuspegi orokorra erakutsi nahian, gaurtik aurrera egongo da ikusgai Aroztegi aretoan Click argazki taldearen *Euskal Herria natura* argazki erakusketa. Gaur hasi eta martxoaren 1era arte, 12 argazkilarik ateratako 30 lan inguru egongo dira Aroztegin, bertarantzen direnendako.

Odolkiak Ordainetan eta Unidad Alavesa taldeen kontzertua

Odolkiak Ordainetan eta Unidad Alavesa taldeek indarrak batu dituzte eta Kartzela Zaharreko taula gainean arituko dira zuzeneko emanaldia eskaintzen. Gaur, otsailak 7, eskainiko dute kontzertua, gaueko hamar eta erdietan hasita. Sarrerak bost euroren truke Arrano tabernan salgai egon diren arren, dagoeneko agortuta daude.

Epaimahai gaztea, lanean

Amodiozko gutunen eta esaldien lehiaketako sari banaketa egingo dute datorren egubakoitzean, hilak 14, San Valentín egunez. Dagoeneko lanean dabilta epaimahai gazteko kide diren Oier Elortza, Oier Garitano, Elene Perez eta Izar Sanchez, gazteen saria eta esaldirik onena aukeratzeko.



JARDUN

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalbarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe /
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Langileak, Herri Eskolako eraikin berriaren zimentazio lanetan. MAIDER ARREGI

Eraikin berriaren hezurdura, otsailerako

Herri Eskola handitzeko obrak 18 hilabete iraungo du eta, guztira, 1.200.000 euroko aurrekontua dauka. Bi pisu izango ditu eraikinak, eta gela gehiago. Patioa eta jangela ere handiagoak izango dira, herri ikastetxeko ikasleen erosotasunerako

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Herri Eskola handitzeko egiten diharduten eraikin berriaren zimentazio lanak amaitzen ari dira asteon. Langileak, ordea, eraikin berriaren estruktura-lanak egiten ere hasiak dira. Obraren zuzendari Rakel Sanchezek GOIENARI adierazi dio otsail bukaerarako eskolaren eraikin berriaren estruktura, hau da, bizkarrezurra, eginda eta altxatuta egongo dela.

Iazko udaren hondarreen hasi zitezuten Herri Eskola handitzeko lanak eta, guztira, 18 hilabetez jardungo dute langileek bertan. Obra sakona da eta pazientziaz hartu beharrekoa bai gurasoek, ikasleek, hezitzaileek zein bizilagunek ere.

Antzuolako Udaleko Hezkuntza zinegotzi Mikel Bargielak adierazi du oztopoak oztopo, momentuz, ondo moldatzen direla: "Obrek beti sortzen dituzte eragozpenak inguruan: zarata, zikintasuna... baina, kasu

honetan, zarata eta zikintasuna baino gehiago, eskolako barne funtzionamenduan izan du obrak eragina. Sarrerak mugatuta daude eta geletara patioko beste sarrera batetik sartu behar dira ikasleak. Baina, momentuz, ez dago aparteko eragozpenik eta dena ondo bidean doa".

Obra honen ondorioz, haurtzaindegiak ere aldaketak eta egokitzapenak izan ditu. Egun, Eguzki auzoan propio egokitutako lokalera aldatuta dago. "Haur eskolek baldintza jakin batzuk dituzte eta baldintzak horiek betetzeko obra egin genuen Eguzki auzoko gunean. Asmoa da obrak iraungo duen 18 hilabeteetan hantxe egotea. Behin eskolako obra amaituta,

ESKOLAKO OBRA AMAITU ARTE, HAURTZAINDEGIAK EGUZKI AUZOAN JARRAITUKO DU

berriro itzuliko da betiko tokira", argitu du Mikel Bargiela zinegotziak.

Obra sakona

Eskolako eraikin berria bi pisukoa izango da, beheko baxuaz gain. Patioa eta jangela handiagoak izango ditu eta lehen solairuan bi gela egongo dira; bigarren pisuak, aldiz, tamaina bereko hiru gela edukiko ditu. "Erabilera askotariko gelak izango ditu eta eraikin berri eta modernoagoa izango da; haurrak erosoago egoteko leku aproposa, zalantzarik gabe".

Horrez gain, pisu bakoitzean bulegoak eta komunak ere egingo dira. Modernoagoa eta handiagoa izango da: 300 metro koadro handiagoa, zehazki-zabaleran ez ezik, luzeran ere irabaziko du espazioa eraikin berriak.

Esan bezala, urte eta erdi iraungo du eskolako obrak eta, guztira, 1.200.000 euro pasatxo-ko aurrekontua izango du.



OLALDE ETA IMANOL SORIANO

Emakume pilotariak, balioan

Emakume Master Cup txapelketak bete egin zuen Udal Pilotalekua. Bailaran txapelketak egingo duen geltoki bakarra izan da Antzuolako. Olatz Insaustik ezin izan du txapelketan aurrera egin; Galeano ahizpek, ordea, erraz gainditu dute lehen kanporaketan aurkaria (18-4). Esan behar da Joseba Azkarateri laguntzeko 637 euro batu zituela Olalde.

GORA ETA BEHERA



@IONLIZ

Bergarara doan bidegorria, zartatuta

Bidegorriaren egoera salatu du Twitterren erabiltzaile batek. Urtebete ez da pasa ireki zutela eta zartatuta dago jada. Soluzio gisa kartela jarri eta porlana bota dutela soilik dio @ionliz-ek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Elkartasunezko 558 kilo elikagai batu dituzte

'Piztu itxaropena' kanpainak XVI. edizioa du aurten eta, guztira, 558 kilo elikagai batu dituzte; 40 kaxatan banatu dituzte. Bergarako Ereindajanen, esate baterako, 80 kilo babarrun erosi dituzte elkarteko kide bati bururatutako ekimen bati esker

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Antzuolako Anelkar elkarteak, Udalarekin eta eskolarekin elkarlanean, bat egin du, beste urte batez, aurten XVI. edizioa duen *Piztu itxaropena* kanpainarekin. Astebetez elikagai bilketa egin ostean, aurten, guztira, 558 kilo batu dituzte, Saharara bideratuko dituztenak. Gauzak horrela, Anelkarreko kide Jabi Etxaniz pozik azaldu da, beste urte batez antzuolarrek elkartasuna adierazi dietelako beharra duten sahararrei.

Aurtengo kanpainan ere elikagaiak batzearekin batera konpresak batu dituzte; guztira, 40 kaxa bete dituzte. Horrekin batera, Anelkarrek urtero 1.500 euro bideratzen ditu proiektu honetara.

Herritarren borondatea

Iaz, *Piztu itxaropena* kanpainarako 460,5 kilo batu zituzten, eta 29 kaxatan banatu. Aurten, zertxobait gehiago batu dute, eta, horregatik, Etxanizek aipatu du positiboa dela urtetik urtera kilo gehiago batzea, eta, horrekin batera, herritarren borondatea azpimarratu du: "Kontuan hartu behar da epe laburrean hainbat elikagai bilketa egiten direla. Izan ere, azaroan elikagai bankurako kanpaina egiten da



Anelkarreko kideak, jasotako elikagaien sailkapena egiten. ANELKAR

BERGARAKO EREINDAJANEN, BESTEAK BESTE, 80 KILO BABARRUN EROSI DITUZTE

eta herritarrak beraien elkartasuna adierazten dute, baina ez dute argi izaten laguntza nora bideratzeko izaten den. Hala ere, gu urtetik urtera kilo gehiago jasotzen ari gara eta asko eskertzen dugu herritarrek

Sahararekiko eta elikagai bankuarekiko duten borondatea".

Ereindajaneko produktuak

Etxanizek aipatu duenez, aurtengo kanpainan Bergarako Ereindajaneke zerikusia izan du taldeko kide baten inizatibari esker: "Anelkarreko kide bati taldeari diru kopuru bat eskatzea bururatu zitzaion, Ereindajaneke produktuak erosteko helburuarekin. Modu horretan, eta 300 euroko aurrekontuarekin, besteak beste, 80 kilo babarrun erosi zituen".



ARROLA

Ibilera nordikoa ezagutzen

Arrola mendi taldeak antolatuta, ibilera nordikoaren bigarren saioa egin dute, non hamar lagun inguruk hartu duten parte. Alde teorikoa ezagutzearekin batera, alde praktikoa ere landu dute saio horretan.

Gauzak horrela, eta parte-hartzaileek erakutsi duten interesa kontuan hartuta, udaberrian arlo horretako ikastaro gehiago egingo dituzte.

Greba orokorraren balorazio positiboa egin du batzordeak

Greba batzordeak adierazi du herritarren lan, pentsio eta bizi duinen alde egiten jarraituko duela

M.R. ANTZUOLA

Antzuolako greba batzordeak urtarrilaren 30eko greba orokorraren balorazio positiboa egin du eta horretarako bi arrazoi eman ditu: batetik, deitutako lanuzteak jarraipen ona izan zuela, eta, bestetik, deialdiaren baitan eta *Lan-pentsio-bizi duinak* lelopean egindako mobilizazioetan herritar ugari batu zela. Horrekin batera, greba batzordeak urtarrilaren 30eko greba antolatzen aritu diren sektore ezberdinetako eragileen arteko elkarlana azpimarratu du.

Behin urtarrilaren 30eko greba orokorra igarota eta honek izandako jarraipenaren balorazioa eginda, batzordeak honako hau adierazi du: "Etorkizunean, greba orokorrean aldarrikatutako lan, pentsio eta bizi duinen alde jarraituko dugu buru-belarri lanean. Lanerako bidea, gainera, sektore ezberdinetako eragileekin elkarlanean egingo dugu, helburu zehatz batetik abiatuta: Antzuola 1.080 eurotik beherako pentsiorik eta 1.200 eurotik beherako soldatarik gabeko herria izatea".

737 euro Kongora eta Senegalera

Ohiturari jarraituz, Sagiri eta Anelkar elkarteetako kideak, Antzuolako abesbatza eta txistulariekin batera, Santa Ageda eskean aritu ziren martitzenean herriko kaleetan zehar. Guztira, 40tik gora lagun elkartu ziren eta 737 euro batu zituzten, Kongoko eta Senegalgo proiektuetarako bideratuko direnak. Afaltzeko, berriz, 20 lagun elkartu ziren.



Martitzenean, antzuolarrak Santa Ageda eskean aritu ziren. JABI ETXANIZ

OHARRAK

Sardexka lehiaketa

Xinkonak sardexka lehiaketa jarri du abian. Parte hartu nahi duenak dendatik hartu beharko du sardexka, eta hori eraldatu. Otsailaren 18a izango da horiek entregatzeko azkeneko eguna.

Mahai-jolasak Olanan

Domekan, otsailaren 9an, mahai-jolasak probatzeko aukera izango da Olanan, 17:00etatik 20:00etara bitartean. 8 urtetik gorakoek gurasoekin joan behar dute.

San Blas jaia bihar

Bihar, otsailaren 8an, San Blas jaia ospatuko da. 12:00etan, meza izango da, eta bertan, San Blas opilak bedeinkatuko dituzte.

Umeeek mailegutzen dute euskaraz, gehienbat

laz, 1.862 liburu mailegatu ziren Elgetako udal liburutegian. 1.003 mailegu izan ziren euskara hutsezko liburuenak eta 740 gaztelera hutsezkoenak. Gainerakoak ele bitan edo beste hizkuntza bateko liburuak izan ziren. Helduen artean gaztelera da nagusi

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Udal liburutegitik emandako datuen arabera, 2019an 1.862 liburu mailegatu ziren Elgetan. "Erabiltzaile kopurua mailegu kopurua baino handiagoa da", adierazi du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. "Iaz, 3.000 pertsona inguruk erabili zuten zerbitzua: irakurtzeko, mailegu zerbitzua erabiltzeko, etxeko-lanak egiteko, kontsultak egiteko, ordenagailuak erabiltzeko, eta abarrerako".

Gaztelerazkoak baino euskarazko liburu gehiago hartu ziren maileguan. Euskarazko liburuen maileguak 1.003 izan ziren, eta gaztelerazkoenak 740. "Gainontzekoak, beste hizkuntza batzuetan edo ele bitan", zehaztu du Ezpeletak. Hizkuntza irizpidearekin lotuta adierazgarria da batez ere neska-mutikoak direla euskarazko liburuak maileguan hartzen dituztenak. Helduen artean gaztelera da nagusi. 2019an, euskarazko liburu mailegatuenak *Daniela pirata*, *Tonino* eta *Kokoriko* izan ziren. Gaztelerazko liburu mailegatuenak, berriz, *Reina roja*, *La rosa del viento* eta *Las hijas del capitán* izan ziren. Argi dago euskaraz haur ipuinak mailegutzen direla, gehienbat, eta helduendako eleberrietan, berriz, gaztelera dela nagusi.

Emakumezkoak gehienak

Orokorrean, liburutegiko erabiltzaileen gehiengoak emakumezkoa da. Neska-mutikoen artean ere bai. "Iazko mailegu datuetan, gutxi gorabehera, bi heren emakumeek egindako maileguak izan ziren eta heren bat gizonezkoek egindakoak", zehaztu du liburutegiko arduradunak.

Liburu mailegua ez da urte osoan zehar bera izaten. Elgetari dagokionez eta 2019ko datuei erreparatuta, mailegu kopuru handieneko hilabeteak uztaila, urria, azaroa eta urtarrila izan



Neska-mutiko taldea Elgetako liburutegian. L.Z.L.


ziren. Mailegu kopuru txikiena, berriz, udaberrian.

Literatura solasaldia, laster

Aurrera begira, hilaren 20an da egitekoa hurrengo literatura solasaldia, liburutegian. Irakur-


gaiak *Esku hori!* ipuin erotikoen bildumatik aukeratutako hiru idatzi dira. Estitxu Arozenaren, Karmele Arrietaren eta Eneritz Duesoren ipuin bana dira. Interesatuak liburutegian dituzte eskuragarri.

Iazko mailegatuenak, Elgetan



DANIELA PIRATA
EUSKARAZKO MAILEGATUENA

Danielaren ametsa da *Kaiman beltza* itsasontziko pirata izatea. Kapitainari eta tripulazioari, ordea, ez zaie ideia egokia iruditzen. Gainditu beharreko proba gogorak jartzen dizkiote neskatilari. Zalantza sortzen da, orduan, piraten benetako arazoa ez ote den Daniela neska izatea.



REINA ROJA
GAZTELERAZKO MAILEGATUENA

Thriller generoko eleberriak Antonia Scott du protagonista. Emakume oso berezia da. Ez da ez polizia agentea ez kriminalista, baina ohiz kanpoko dohaina du gertaera sinesgaitzenak ere argitzeko, eta poliziak bere laguntza behar du, beste behin. Kasua, noski, ez da nolana hikoia.



Maia Erostarbe, Ehari Barquero, Uxue Martin, Irea Alberdi eta Irati Alkorta. L.Z.L.

Lau eta sei eskutara joko dute Andoainen, bi taldetan banatuta

Aste bukaeran jokatuko da urteroko piano jaialdia; urduri baina ondo prestatuta doaz bost ikasle elgetarrak

L.Z.L. ELGETA

Aste bukaeran jokatuko da Andoingo 15. piano jaialdia. Piano ikasle askorendako urteroko hitzordu garrantzitsuenetako bat da. 800 bat pianista elkartuko dira aurten, eta tartean izango dira bost elgetar. Maia Erostarbek, Ehari Barquerok eta Uxue Martinek sei eskutara joko dute. Aurretik ere egonda daude jaialdian, eta badute hango berri. Irea Alberdirendako eta Irati Alkortarendako, aldiz, lehen esperientzia izango da. Lau eskutara joko dute, eta pozik itzuli dira aurreko egunotan Oñatin

egindako bailara mailako entse gutik. Lorea Larrañaga dute irakasle bostek, eta pozik da ikasleek egindako lanarekin. "Kantua prestatu, beraien artean koordinatu eta abestia buruz ikasi dute. Orain, egindako lana jendaurrean aurkezteko unea da. Urduri jarriko dira, eta normala da. Horrelakoetan, asko ikasten da", esan du. "Lau eskutara jotzea ohikoa da. Sei eskutara jotzea, aldiz, jende gutxiago animatzen da. Asko entseatu behar da, eta elkartzea zailagoa izaten da. Baina oso polita da bai jotzeko bai entzuteko".

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuendako otsaileko kontsulta hilaren 17an izango da. Interesatuak txanda hartu behar dute aurrez. Deitu: 943 76 80 77 (Nati).

Hobariak zergetan

Ondasun higiezin eta ibilgailuen zergaren inguruko hobariak eta salbuespenak tramitzatzeko azken eguna otsailaren 28a da. Argibideak, udaletxean zein www.elgeta.eus atarian.

Loteria: Goibeko

Gabonetako loteria kobratzeko azken egunak: otsailaren 14a, 18:00etatik 20:00etara; eta otsailaren 15a, 12:00etatik 13:30era. Ozkarbi elkartean.

Erraldoi bat egiteko lehen tailer irekia, otsailaren 14an

Apirilaren 3ra bitarteko barietetan 3-12 urte bitarteko neska-mutikoei eta gurasoei zuzendutako eskulan tailerra proposatzen dute ludoteka zerbitzutik. Elkarlana oinarri hartuta eta umeak protagonista izanik prozesu osoan helburua da erraldoi bat sortzea. Lehen saioa hilaren 14an izango da, 18:00etatik 20:00etara, ludotekan. Adibideak aurkeztu eta lehen erabakiak hartuko dira. Hurrengo saioetan, diseinua adostu, materiala aukeratu eta muntaketa lanak egingo dira. Tailer osoa doan izango da gurasoendako. Neska-mutikoei hileko edo eguneko bonuak atera beharko dituzte hirugarren saiotik aurrera.

"Ohorea da elgetarrek botoz ni aukeratzea"

IÑAKI OLAORTUA SANTANDERKO RACING TALDEKO FUTBOL JOKALARIA
Denboraldia ez da ondo hasi mailaz igo berri den taldearendako. Olaortuak ere sumatu du aldea. Herrikideek emandako DKS sariak ilusio handia egin diola esan du

Naroa Urien Berrio ELGETA

Santanderko Racing taldeko jokalaria Iñaki Olaortua 2019ko tokiko kirolaririk onena izendatu dute Debagoiena Kirol Sarietan (DKS). Elgetako Udalak bozketa antolatu zuen herrian eta Olaortuak lortu zituen boto gehien. Hala, herrikideek emandako saria da. Protagonisten ibilbidea eta lorpenak bereizten dituen sariketa da DKS.

Herritarren hautua izan zara DKS sarietarako; zer deritzozu?

Aurten da saria lortzen dudan lehenengo aldia, eta oso pozik nago. Ohorea da elgetarrek nire alde egitea horrelako sariketa batean. Ilusio handia egiten dit eta oso eskertuta nago elgetar guztiekin. Zure herriak hainbeste maite duzun kirolean egindako lana aitortzea sentazio bikaina da.

Zure etxekoek hartu zuten saria... Jarraitzaile amorratuak dira?

Ezin izan nintzen sari banaketa ekitaldira joan, eta nire amak eta ahizpak hartu zuten saria. Nire jarraitzaile nagusiak dira eta haiei ere ilusio handia egin zien DKS saria jasotzea. Beti daude bultzada eta indarra emateko prest, eta hori eskertzekoa da. Nire neska-laguna ere futbol jokalaria da, eta futbolak indar handiagoa hartu du etxean. Au-



Iñaki Olaortua elgetarra El Sardinero futbol zelaian. REAL RACING CLUB

"SAILKAPENEAN BEHEALDEAN GAUDE, BAINA, HALA ERE, BORROKAN JARRAITUKO DUGU"

rreko urtean Santanderko beste talde batean ibili zen, baina aurten Racingera etortzeko deia jaso du. Horrenbestez, biok futbol talde berdinean gaude eta etxekoak bion jarraitzaile amorratuak dira. Hori bai, etxean

futbolaren inguruak izaten dira liskar gehienak!

Zelan doa denboraldia aurten?

Aurten, sufritzen gabilta. Sailkapenaren beheko aldean gaude, baina borrokan jarraituko dugu. Gainera, herriaren eta familieren bultzada handi honekin gogotsu nago denboraldia indar handiz jarraitzeko. Santanderren bizitzen gustura nago, baina sarri bueltatzen naiz Elgetara. Ondo etortzen zait bertara joan eta familia eta lagunak bisitatzea. Deskonektatu eta indarberritzeko aukera bikaina izaten da.



GOIENA

Autoak protagonista, domekan

Badator IV. Mendi Mendia Racing jai. Egun osoko egitaraua dago iragarria domekarako. Goizean, ibilgailu klasikoekin topaketa eta pintxopotea egongo dira, talde argazkiarekin batera. Eguerdian, 200 pertsona elkartuko dira antzokian egingo den bazkarian, eta gaueko kontzertuetan 350 pertsonatik gora. Ikusmin handia dago Ostiada Oi! taldea entzuteko.

'Barre Tourra' ikuskizuna Elgetara iritsiko da bihar zortzi

Otsailaren 16an, Espaloian, euskarazko umorea izango da nagusi Barrexerka konpainiaren eskutik

N.U. ELGETA

Hamaika gazte donostiarrek osatzen dute taldea, eta ekimenarekin euskarazko umorearen hutsunea bete nahi dute. Horretarako, ikus-entzunezko esketxak eta zuzeneko antzezlanak uztartzen dituzte, eta gazteentzako gaizek egindako umorezko eta euskarazko produktua eskaintzea dute helburu. Proposamena otsailaren 16an eskainiko dute eta sarrerak salgai daude da-goeneko. Elgetako taberna guztietan eskura daitezke 4,5 euroren truke. Egunean bertan ere

leihatilan erosteko aukera egongo da, 5 eurotan.

"Barrez lehertzeko" ikuskizuna Barrexerkaokoak duela urtebete elkartu ziren lau urtez buruan zuten ideia aurrera eramateko. Ikus-entzunezko esketxak eta zuzeneko antzerkiak uztartzen dituzte ikusleendako ordubeteko ekitaldi bat osatuz. Saio bakoitzean pertsona ezagun bat gonbidatzen dute hark ere, haiekin batera, esketxetan eta antzerkietan parte hartzeko. Nor aukeratuko dute Elgetarako?

Senitartekoak "oso harro"

Sari banaketa ekitaldia urtarrilaren 28an izan zen, Bergarako Seminarixoan. Elgetako alkate Iraitz Lazkanoren eskutik jaso zuten saria Iñaki Olaortuaren ama Tere Deskarga eta ahizpa Olatz Olaortuak. Harro eta pozik zeudela azaldu zuten, eta eskertuta elgetarrak Iñaki aukeratu dutelako, aurten, saria jasotzeko.



Alkatea, Olatz Olaortua -ahizpa- eta Tere Deskarga -ama-, sariketan jasotzen.

Ospakizunak Arantzetan

Bihar ospatuko dute San Blas eguna Arantzeta auzoan. Meza esango du Juan Cruz Juaristi abadeak, 12:00etan, ermitan eta San Blas opilak bedeinkatzeko aukera izango da bertan. Auzotarrek, berriz, salda eta urdaiazpikoa ipiniko dute, 11:00etatik 13:00etara. Gozokiak ere egongo dira neska-mutikoendako.



GOIENA



Anton Inza oñatiarra Aloña Mendi tabernaren aurrean eguzten eguerdian. O.E.



Inza, Aloña Mendiko bulegoetan, hileko batzarrak egiten dituzten gelan. O.E.



1987ko pilotako herriartekoan sariak ematen. ALOÑA MENDIKO ARTXIBO BILDUMA

"Pozten nau herritar asko Aloña Mendiko kide sentitzeak"

ANTON INZA ALOÑA MENDIKO KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

Duela bi urte hartu zuen erretiroa lanean, eta orain, bere bizitzaren parte den elkartearen hartuko du, Aloña Mendin, presidente berriari laguntzeko prest egongo den arren

Oihana Elortza OÑATI

Anton Inza (Oñati, 1957) 33 urtez izan da Aloña Mendi kirol elkartearen presidentea, eta elkartearen egingo diren beritasunekin batera utziko du kargua.

Futbola gustatu, baina eskubaloia-ri lotuta hasi zinen Aloña Mendin.

Bai. Lagunak eskubaloian ibiltzen ziren. Anjel Barrena, Juan

Carlos Elorza eta Ernesto Igartua, esaterako, eta haien arri-muan sartu nintzen eskubaloiko zuzendaritzan. Herriko plazan jokatzen ziren eskubaloiko partiduetan pegatinak jarri eta borondatea eskatzea izaten zen nire lanetako bat. Ateak Olaiturritik plazara eramatea eta horrelakoak.

1986an sartu zinen elkartearen zuzendaritzan, eta presidente kargua hartu zenuen. Nola?

Irakaslea izan naiz lanbidez eta 1984an Santurtzira bidali ninduten. Bi urte pasa nituen han, eta, bueltarako, Zubikoa kiroldegia eginda zegoen, igeriketa taldea ere sortzen, eta lagunak elkartearen postuetan sartuta.

Xabier Infante *Artza* ere kuartillan ibiltzen hasi zen... Mugimendua zegoen orduan. Orduko zuzendaritzak ez zuen jarraitu gura eta 1986ko udako egun batean niregana etorri zen Enrike Zubiagirre, presidente izatea proposatuz. Baietz esan nuen, eta 33 urte pasa dira. Nirekin batera Luis Agirre eta Carlos Olalde *Kalin* ere sartu ziren, baina denbora gutxi egin zuten haiek, futboleko sailean sartu ziren-eta buru-belarri. Anjel Barrena sartu zen gero, eta, hala, Zubiagirrek, Barrenak eta hirurok osatu genuen hiru-kotea.

Eta nolako izan da agintaldia?

Gu hirurok taldekide izan gara, baina baita lagunak ere. Asko hitz egin dugu gure artean, eta erabakiak bulegoan zein kalean hartu ditugu. Hala ere, gu hirurok elkartearen zuzendaritzako kideak gara; gutaz gain, sail bakoitzeko ordezkari banak osatzen dute talde hori. Hamazazpi lagun, guztira. Hileko lehen egunetan biltzen da batzar hori; sail bakoitzak bere egutegia eta funtzionatzeko modua du.

Zer lan egin behar ditu Aloña Mendiko presidentek?

Aloña Mendi Kirol Elkartearen presidente izateak, egia esan, ez du aparteko lanik eskatzen, sail bakoitzak du bere zuzenda-

ritza taldea eta bakoitzak bere kudeaketa, egutegia, proiektuak eta diru kontuak eramaten ditu. Ezer sinatu behar denean, Aloña Mendiko IFKrekin (CIF) zabal-tzen den edozein kontu, adibidez, orduan presidentek sinatu behar du eta ordezkari lanak egin behar direnean ere askotan bera joaten da. Sail batean gorabehera handiak egon badira, adibidez, orduan zuzendaritza sartzeko da.

Gorabeherak daudenean, elkarri laguntzen diote sailek?

Diruaren banaketa egiten denean, esaterako, kontuan izaten dira sail bakoitzaren egoerak eta beharrak, bai.

Agintaldi luze honetan, zerk eman dizu buruko min handiena zeuri konkretuki?

"ESKUBALOIAREKIN IZAN NUEN LEHEN LOTURA ELKARTEAN"

"OINARRIAN HERRIKO JOKALARIAK EGOTEA DA GURE FILOSOFIA"

"AZKEN BATZARREAN, SL BAT SORTZEA ONARTU ZEN"



Lokalaren inaugurazio ekitaldian, Iturbe, Zubiagirre eta Inza. ALOÑA MENDIKO ARTXIBOA



Futbol taldea hirugarren mailara igo zenean, 1993-1994. ALOÑA MENDIKO ARTXIBO BILDUMA

Niri, tabernaren kudeaketak. Gure esparrua kirola izan da eta tabernak beste ardura batzuk ere eskatzen ditu eta ni kirol kontuetan hobeto moldatzen naiz, egia esan.

Urtarrilean egindako urteko batzarraren, baina, beste bide bat ireki diozue gai horri, ezta?

Bai; SL bat sortzea erabaki da. Modu horretara, loteriaren lizentzia eta tabernaren ardura horrek hartuko du. Aloña Mendi elkarteak izango da bazkide bakarra eta administrazio kontseiluan batzar orokorreko hiru kideak eta bi sailletako kide bana egongo dira; bost, guztira. Horrela, modu batera bananduta egongo dira bi zerbitzu horiek

eta elkarte bera, bakoitza bere IFKrekin. Bestalde, elkarteak izaera publikoa izango du. Horrek guztiak, baina, eskatzen du batzarraren erregistratzea, eta ikusi dut oraintxe dela momentu egokia erretiroa hartu eta zuzendaritzan berriak sartzeko. Beste aldaketa bat da administrazio kontuak eramateko Ane Billar kontratatu dugula orain. Zarauzko elkarteak hartu dugu eredu moduan.

Zein da elkartearen oinarria?

Oinarrian herriko kirolariak egotea izan da beti elkartearen filosofia. Adibidez, saskibaloian kanpokoak ekarri genituenean, emaitzak onak izan ziren, baina kantxa ez zen betetzen. Talderen

batek kanpokoren bat behar badu, ekarriko da, baina oinarrian herrikoek egon behar dute. Bestalde, boluntario lana ere aipatu gura nuke. Lotura zuzena dutenez gain, herritar asko egoten dira gertu laguntzeko. Eta hori asko eskertzen da. Pozten nau ikusteak herritar asko sentitzen direla Aloña Mendiko kide. Herrian integratzeko bide bat badela ere uste dut.

Ezaugarri horiekin jarraitu beharko luke?

Nik uste dut baietz.

Nolakoa izan zen sorrera?

1949an sortu zen, futbol sailarekin bakarrik. Orduko armarran baloia du txantxikuak hanketan. Baina Oñatin kirol asko egiten zen garai hartan eta 1967an taberna jarri zuten, eta han hasi zen elkartearen sortzea talde ezberdinekin. Hurrengo pauso handia kiroldegia egitea izan zen; talde gehiago sortu ziren han. Horren aurretik, Gurian egiten zituzten batzarrak, eta taberna itxi zutenean han agertutako Aloña Mendiko paper batzuk ekarri zizkiguten, gurekin oroituta. Detaile polita izan zen.

Kiroldegi berria ari dira egiten orain. Futbol zelai berriak, ordea, ez dago oraindik proiektuen artean.

Eta behar dela uste dut. Kirol instalazioetan egindako inbertsioetan pobre ibili da Oñati. Partxeak bai, baina benetako inbertsioak ez horrenbeste.

Bizi izan duzun unerik goxoa?

Egoitza inauguratu zen eguna, adibidez. Uste dut benetan asmatu zutela horrekin; hau da, sail guztiak toki berean elkartzeko moduko egoitza izatea. Ni sartu nintzenerako martxan zegoen proiektu hau. Gogoan dut egungo eraikinaz gain Kale Barriko beste eraikin bat zela esku artean izan zuten beste aukeretako bat, Egaña okindegiaren ondoan dagoen eraikina. Kirol mailan lortutako garaipenak ere pozgarriak izan dira.

Eta txarrenak?

Galdutako lagunak eta kideak. Lanetik eta aisialditik erretiroa hartuta, zein plan dituzu orain?

Planak asko; bizikletan ibili eta egunero paseatzera joan, adibidez.

Gomendio berezirik bai presidente berriarendako?

Lasai egoteko eta ez beldurtzeko. Egun, hamalau sail ditu elkarteak. Lan handiena sailek eurek egiten dute. Gainera, edozertan laguntzeko egongo gara gu.



Jone Arrazola eta Miren Aranguren erdian, alboetan udal ordezkariak dituztela. M.S.

Zaintza erdigunean jarriko dute, Selma Huxley bekari esker

Jone Arrazolak eta Miren Arangurenak jasoko dute; bizitzak eta zaintzak erdigunean jarri gura dituzte

Maialen Santos OÑATI

Oñatiko emakumeek historian zehar Oñatiko herriari egindako ekarpenak plazaratzeko helburuarekin, Jone Arrazola oñatiarrak eta Miren Aranguren iruindarrak jasoko dute aurten Udalaren Selma Huxley Barkham beka. Hain zuzen, 18.000 euro jasoko dituzte 18 hilabete iraungo duen lana egiteko. Izaro Elorza alkateak adierazi duenez, "kalitate handiko" lau proiektu proposamen jaso dituzte.

Zehazki, hiru helburu bete gura dituzte lanaren bitartez: emakume zaintzaileek egin du-

ten lana aitortu eta ezagutzera ematea, garai bakoitzeko zaintza lanen ezaugarriak zeintzuk izan diren aztertzea eta, azkenik, ateratako ondorio horiek "etorkizuneko perspektiban" jartzea –"hobetzea" helburu–.

Lana aurrera eramateko dokumentazio lana egingo dute lehenik. Horren ostean, testigantzak biltzeko elkarrizketak egingo dituzte. Behin informazioa batuta, testigantza eta argazkietan oinarritutako liburu bat sortuko dute. Aurreratu dutenez, gogoetarako jardunaldi batzuk ere antolatuko dituzte.

GORA ETA BEHERA



A.T.

Otadui zuhaitzian ere, txakur kakak lurrean

Paseoan zihuan herritar batek atera eta bidalitako argazkia da. "Beste batzuetan ere tokatu izan zait txakur kakak lurrean ikustea, edonork zapaltzeko moduan", dio, kexati.

Aukeraketa prozesua

Aloña Mendi Kirol Elkartearen zuzendaritza nagusia berritzeko prozesua martxan dago. Hiru lagun berri sartuko dira: presidentea, diruzaina eta idazkaria. Zapatuan, hilak 8, da hautagaiak aurkezteko azken eguna, eta lerro hauek idatzi aurretik ez da inolaurkeztu. Horrela gertatuko balitz, inolaurkeztu ez, beste epe bat zabalduko da. Zuzendaritzan dauden hamazazpi lagunek hartuko dute lana presidente berria topatzeko. Izen batzuk badituzte dagoeneko esku artean, egoera hori gertatu daitekeela aurreikusita. Hala ere, gehiago egon daitezke, eta zuzendaritzak erabaki eta adostu beharko du. Hautagai bakarra aurkeztu edo zuzenean proposamena norbaiti egin eta hark onartu, ez da hauteskunderik egingo, horixe izango da elkartearen presidente berria.



Jardunaldietan parte hartu duten kideak Oñatiko Turismo Bulegoan eguenean. IBAI ZABALA

Lur azpiko esperientziak elkarbanatzeko eguna

'Kantauri mendilerroko koben jardunaldi teknikoak' izeneko topaketa egin dute eguenean Oñatin, eta Euskal Herriko, Leongo eta Andaluziako kobetako ordezkariak egon dira, bakoitza bere lan egiteko modua eta kezka azaldu eta partekatuzko

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Arrikrutzeko eta Aralarko Mendukiloko kobetako langileak ez ezik, Leongo Valporquero eta Huelvako Aracena herriko kobetako ordezkariak izan dira, besteak beste, lur azpiko esperientziak ezagutzeko Oñatin eguenean egin dituzten jardunaldietan. Gandiagako, Debagoieneko Mankomunitateko eta Oñatiko Udaleko ordezkariak eta Koba Turistikoetako Espainiako Elkarteko presidentea Manuel Duran ere izan dira. Nork bere esperientzia kontatu, nola lan egiten duten azaldu eta egunerokoan dituzten arazoak elkarbanatu dituzte.

Gorrei laguntzeko sistema

Eta esperientziak eta arazoak konpartitzea "aberasgarria" izaten dela adierazi dute. "Kobazulo bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horietara moldatu behar da, baina beti dago zer ikasia besteen esperientziak entzunda. Gainera, zuk bezalako lana egi-

ten dutenekin elkartzeak beti ematen dizu energia lanera bueltatzeko", dio Mendukilo kobetako Amaia Govillarrek.

Hain zuzen ere, Mendukilon bisitari gorrendako erabiltzen duten sistema, tabletan erabilerara, apuntatu dute, esaterako, Andaluziako Aracena hango turismo teknikari Charo Moyak azaldu duenez. Leongo Valporquero kobetako Juan Carlos Carreterrek, berriz, inbidiaz entzun ditu inguruan bizilagun asko dituzten kobetako langileen esperientziak, euren biztanlerik ez duen herri batean dago eta. Arantzazu Gaur Fundazio-ko ordezkariak ere izan dira jardunaldietan. "Jendea ez dator gauza konkretu bat edo beste bat ikustera, esperientzia bat bizitzera baizik. Menditik buelta egiten duten askok galdetzen digute, esaterako, beste zer egin edo ikus dezaketen inguruan, eta interes horrek behar horri ahalik eta ondoen erantzuteko etorri gara jardunaldietara. Bi-

sitariari eskaintzeko dauden inguruko zerbitzuen arteko sarea sortzea garrantzitsua dela uste dut", dio Olatz Fernandezek.

Arrikrutzeko bi sariak

Oñatiko Turismo Bulegoan partekatu dituzte esperientziak, eta, bertako produktua dastatzeko tartetxoa hartu ondoren, Arrikrutzera egin dute bisita, hango galerian sartu dira eta bertatik bertara ikusi dute. Hain zuzen ere, Oñatiko Arrikrutz kobek kalitatearen inguruan jasota dituzten bi ziurtagirien inguruan hitz egin du Edurne Urteagak. Eguaztenean Mendukilon egin zituzten jardunaldiak, eguenean Oñatin eta gaur, egubakoitza, Pozalaguan egingo dituzte.

MENDUKILON GORREKIN DUTEN SISTEMA GUSTATU ZAIE, ADIBIDEZ, ARACENAKO LAGUNEI



"Ikertuko ditugu Oñatiko aztarnategiak"

ARITZA VILLALUENGA
EHU-KO IRAKASLEA

Sarri egon da Villaluenga Oñatin. AMETeko lagunekin batera sartu da kobazulo baten baino gehiagotan. Arrikrutzeko lehoiaz eta inguruko ondareaz jardun du jardunaldien barruan. **Nolako garrantzia du Arrikrutzeko lehoiak?** Ez du parekorik hezurdura horren aurkikuntzak. Baina hemen badira aztarna gehiago.

Zenbat urte egin behar dugu atzera?

Arrasateko Lezetxikin, duela 240.000 urteko hezurak aurkitu dituzte. Oñatin bertan, 160.000 urte dituzte hartzen aztarnek. Lehoia bera ez dakigu noizkoa den, ezin zaio DNarik egin eta.

Oñatiko ze ondare paleontologiko aipatuko zenituzke?

1974-1975ean ikerlari batzuek indusketak egin zituzten, baina ez zuten argitalpen zehatzik egin. Ikertzeko materiala badago, eta horretan hasiko gara orain.

Zer ikertuko duzue?

Udalarekin lau urteko akordioa sinatu du EHUko historiaurreko taldeak, eta lana nola egin antolatuko behar dugu. Arrikrutze gain, Jaturaben, Arantzazun eta Araotzen daude aztarnategiak, eta alderdi arkeologiko zein paleontologikotik aztertu nahi ditugu.

Hikalaguna martxan jartzeko bilera dago hilaren 14an

Ingo xonau! proiektuak Hikalaguna ipiniko du martxan. Horretarako bilera otsailaren 14an izango da, 19:00etan, Euskaldun Berria gelan. Hika dakitenak eta ez dakitenak elkartu eta taldeak egitea da asmoa, berrikerian jarduteko. Taldetxoak astean behin elkartuko dira, ordubetez, nahi duten tokian eta orduan. Bi hilabeteko froga izango da. Gero, afaria egingo dute guztiek batera, esperientzia-trukea egiteko, elkar ezagutzen eta hika praktikatzeko segitzeko.

"Dakitenak eta ikasi nahi dutenak, denak animatu daitezela. Berdin du oso gutxi edo ezer ez jakinda ere. Hitz egitera ausartzen ez direnei belarria egiteko balioko die", dio Idoina Etxeberriak. Orain arteko lanketa batez ere emakumeekin egin badute ere, Hikalaguna ez da emakumeentzat bakarrik izango: "Neska eta mutil, denetik egotea komeni da, bi erregistroak erabili ahal izateko". Adin mugarik ez dago.

Emantzipaziorako diru-laguntzek, balorazio "positiboa"

18 eta 30 urte bitarteko gazteei, Oñatin ohiko egoitza gisa alokairuan duten etxebizitzaren ordainketan laguntzeko helburuz ematen dizkie udalak emantzipaziorako diru-laguntzak –betiere baldintza jakin batzuk betetzen dituzenei–. Hala, 2019an 34 eskaera jaso zituen udalak; aurreko urtean baino bi gutxiago. Banatutako diru kopurua, ostera, 2018koa baino 2.000 euro altuagoa izan zen –53.207 euro banatu ziren 2019an–. Eskatzaileen profilari dagokionean, 25 urte edo gehiago zituzten eskatzaileen %92k. Gainera, beste urte batez gora egin zuen emakume eskatzaileen kopuruak –2019an guztira 20 izan ziren–.

Udaletik azaldu dutenez, diru-laguntza hau "egonkortzen" ari da: "Gazteek emantzipaziorako duten arazo leuntzen laguntzen ari garela gaude; beren ongizaterako lagungarria delakoan. Gaineratu dutenez, bide horretan "urratsak ematen" jarraituko dute udaletik.



Aloña Mendiko jokalaria bat baloia atzetik, Idiazabalgo atezaina parean duela. IBAI ZABALA

Sailkapeneko lider izaten jarraitu gura du Aloñak

Duela bi aste Idiazabalen aurka jokaturako partiduan eskuratu zuen lidergoa Aloñak. Joan den domekako neurketa irabazita, sailkapeneko bigarren taldetik lau puntura dago orain taldea. Ildo horretan jarraitu gura dute; betiere, "hankak lurrean" izanda

Maialen Santos OÑATI

Duela bi aste Azkoagain futbol zelaian jokaturako partiduan eskuratu zuen Aloña Mendiko Erregional Preferenteko taldeak sailkapeneko lehen postua. Idiazabal taldearen aurka jokaturako neurketa gol festarekin amaitu zen, 8 gol egin baitzizkion etxeko taldeak aurkariari. Hala, bigarren sailkatua –Beasain– puntu batera utzi zuen Aloñak. Joan den asteburuan Getariaren aurka jokatu zuten oñatiarrek, eta, neurketa hori irabazita, Beasaingo taldearekiko aldea handitu egin zuten, Endika Ruiz Aloñako entrenatzaileak azaldu duenez: "Puntu batetik lau puntura areagotu genuen aldea. Hirugarren sailkatutik, Lagun Onak-etik, aldiz, sei puntura gaude egun", zehaztu du. Orain, datozen jardunaldiei begira jarritu dago taldea; izan ere, asteburu honetan derbia jokatu dute Ruizen mutilek: "UDA hartuko dugu etxean domeka arratsaldean. Beraiek ez daude

egoera onenean, eta ziur naiz irabazteko gosez etorriko direla. Guk ere puntuak gehitzen jarraitu gura dugu". Gaineratu duenez, derbiak "beti" izaten dira partidu "bereziagoak".

Taldea, "egoera onean"

Duela gutxi, txakalaldi batetik pasa da taldea. Baina orain, "egoera onean" dagoela uste du: "Bi norgehiagoka galdu genituen jarraian, eta horrek taldean eragina dauka. Behin horri aurre eginda, momentu hobean gaude orain". Halere, Ruizen aburuz, taldeak "hankak lurrean" mantentzea ezinbestekoa da, egun batetik bestera gauzak aldatu eta "hankaz gora" jartzeko aukera dago eta. Arrazoi

DOMEKA HONETAN DERBIA JOKATUKO DU RUIZEN TALDEAK, AZKOAGAINEN; UDA IZANGO DU AURKARI

horregatik, gainontzeko taldeei baino gehiago, "talde barrura" begiratu gura du entrenatzaileak, nork bere lana "txukun" egin behar duela uste baitu. Eta lan ona egin ahal izateko Aloñako beste taldeen laguntza positiboki baloratu du Endika Ruizek: "Gure taldea indartzeko funtsezko ditugu beste taldeetako jokariak; beharra dugunean gure taldearekin jokatzera etortzen diren horien laguntza".

Goian jarraitzea helburu

Hemeretzigarren jardunaldia jokatzear daudela, aurrerantzean puntuak eskuratzen jarraitu gura luke taldeak. "Emaitza onek taldeko dinamikan eragin zuzena dute eta". Denboraldi amaierari begira, bestalde, sailkapenaren goiko postuetan jarraitzea litzateke oñatiarren nahia. Edozelan ere, mailaz igo ahal izateko derrigorrez lehenengo postuan amaitu beharko lukete denboraldia, eta hori "zaila" dela aitortu du taldeko entrenatzaileak.

Ruper Ordorikak kontzertu berezia eskainiko du "etxean"

Otsailaren 16an, domekan, Santa Ana aretoko oholtzara igoko da, gertukoei "gozarazteko" helburuarekin

M.S. OÑATI

Ruper Ordorika abeslari oñatiarrek herrian eskainiko du kontzertua datorren astean; domeka arratsaldeko zazpitan izango da emanaldia. Sarrerak dagoeneko eskuratu daitezke www.onati.eus webgunean, Txokolatexan eta leihatila digitalean, sarrera gutxi geratzen diren arren.

Kontzertu "berezia"

Hamar urteren ostean, Santa Anara itzuliko da abeslaria, bere taldearekin batera. Berak aitortu duenez, "tarteka" eskaintzen

ditu kontzertuak herrian, baina azkenengo aldiz gaztelekuan izan zen abesten –duela hiru urte inguru–. Hala, "etxean" abestea "beti" dela berezia aitortu du Ordorikak, "gertukoak" joango baitzaizkio ikustera: "Musikan hasi nintzenean, zailagoa egiten zitzaidan herrian jotzea, baina orain, ondo pasatzera igoko naiz oholtzara, eta publikoak ere hala egin dezan espero dut", azaldu du. Gaineratu duenez, "sasoi ezberdinetako" kantuak joko ditu, baita herriarekin "harreman zuzena" duten kantu batzuk ere.



Ruper Ordorika, kontzertu batean, gitarra eskuetan duela. GOIENA

Lukiek eta Nize taldeak arituko dira gaur gauean gaztetxean

22:00etan hasiko dira kontzertuak. Sarrerak bertan eros daitezke; langileek 5 eurotan eta besteek 3tan

M.S. OÑATI

Otsaileko egitarauaren baitan antolatu ditu gaurko kontzertuak Antixeneko gaztetxeak. Lukiek eta Nize talde euskaldunak arituko dira oholtza gainean, nor bere musika eskaintzen. 22:00etan hasiko dira emanaldiak, eta sarrerak gaztetxean bertan eskuratu ahal izango dira: langileek 5 euroren truke eta langabeek, aldiz, 3 eurotan.

'Lukiek #1' diskoa

2015ean sortutako Lukiek taldeak iaz kaleratu zuen lehen lan luzea,

eta kontzertu bira egiten dihardu orain hirukote mungiarrek; besteak beste, disko horretako kantuak aurkezten izango dira gaur. 90eko hamarkadako rock alternatiboaren eta grungearen eragina duen musika egiten du talde horrek. Gaztetxean emanaldia eskainiko duten bigarren aldia izango da, gainera.

Nize taldea, bestalde, 2017an sortu zen, Bilbon, baina 2018ra arte ez zen guztiz osatu. Melodia ilunez, azpimunduko ahotsez eta *fuzz*-ez beteriko post-rocka dira taldearen ezaugarriak.

"Aurten, mendiko eskian jarri gura dut indarra"

AXIER ALONSO EUSKAL SELEKZIOKO ESKIATZAILEA

MENDIKO ESKIA lazko Euskal Herriko txapeldunak trail-eko denboraldia sakrifikatuko du, hain zuzen, eski gainean denboraldi borobilagoa egin ahal izateko

Xabier Urzelai ARRASATE

Mendiko eskiko lasterketen denboraldia hasi duten honetan, Axier Alonsok (Oñati, 1988) Alemaniatik erantzun dio GOIENAKo deia. Berlin-go feria batean lanean, Ulma Packaging-eko teknikariak aste honetan ez du elurrik zapaltzerik izango. Baina izerdia bota beharko du, berdin-berdin.

Elurrik ez, baina entrenatzen jarraitu behar...

Korrika egiteko zapatilak ekarri ditut, eta 06:00etan irekitzen duten gimnasio bat ere aurkitu dut. Halaxe moldatu behar izaten dugu kanpora gatozenez; hemen egin beharreko entrenamendu saioak oso gustukoak ez ditugun arren, horiek ere egin behar izaten dira eta. **Garbi duze babak ze eltzetatik ateratzen dituzuen, hortaz.**

Ez izan zalantzarik. Mendiko eskia edo traila zaletasunak dira guretako. Eta zaletasun horiek seriotasun handiarekin hartzen baditugu ere, hori dira, zaletasuna. Garbi izan behar da hori, eta baita zerk ematen digun jaten ere.

Dagoeneko hasi dituzue mendiko eskiko lasterketak. Ze asmo aurtengorako? Izan ere, Euskal Selektzioan zaude.



Axier Alonso skimoa egiten, aldapa gora. A.A

Bai. Iaz Euskal Herriko txapelketa irabazi nuenean hautatzaileak esan zidan aurten nirekin kontaktuko zuela, eta, egia esan, mendiko eskian jarri gura dut indarra. Hori horrela, nahiz eta lasterketa batzuk egingo ditudan, trail denboraldia sakrifikatu egingo dut, ezinezkoa da eta denboraldi osoan sasoiaren egotea. Gainera, oso nekatuta amaituko nuke.

Horrenbestez, mendi lasterketetan ez zaitugu Euskal Selektzioarekin ikusiko?

Konpromisoa hartzen badut, betetzeko da, eta mendiko lasterketako Euskal selektzioarekin lasterketa guztietara joateko prest ez banago zintzoagoa da lekua beste korrikalari bati uztea, erabat motibatuta egongo den horri. Egia da pena ere ematen didala, oso talde polita sortu dugulako selektzioaren bueltan eta ederto ibiltzen garelako. Baina urtea asko luzatuko zitzaidan, eta lehen esandako moduan, lehertuta amaituko nukeen. Nire kabuz joango naiz laster-

keta batzuetara, baina konpromiso barik.

Mendiko eskiko denboraldia prestatzeko, udazkenean hasiko zenuen prestatuta lana...

Urriari hasi nintzen Oñatin roller-arekin entrenatzen, mendiko bizikleta egiten, teknika lantzen... Hala, nahiko goiz bota zituen lehen elurteak eta astebururo Pirinioetara joan izan naiz. Gabonetan ere oporraldi luzea izan nuen eta Pirinioetan eman nituen hiru aste. Gabon Zahar gaua, esaterako, berezia izan zen, Goriz-ko (Ordessa) aterpean egon ginen eta hainbat lagun.

Etexko lanak, horrenbestez, aurreratu dituzue dagoeneko.

Martxoan izango da hilabete potenteena, Grande Course txapelketako lasterketak hor pilatuko zaizkigulako -Pierra Menta, Altytoi eta Tour du Rutor-, baina dagoeneko lau lasterketa inguru egin ditugu, eta datozen asteburuetan ere lasterketak izango ditugu. Egia esan, mendiko eskiko denboraldia mendi lasterketetako baino gogorragoa egiten da, bereziki kilometro asko egin behar direlako errepidean. Zoritxarrez, gurean ez dago elurrik, eta elur bila joan behar izaten dugu.

Eta, zer moduz orain arteko lasterketetan?

Ondo, pozik nago. Peyresourden (Pirinioak) egin genuen lehen lasterketa, abenduan, eta kilometro bertikalean hirugarren izan nintzen, eta bakarkakoan zazpigarren. Gero, Candanchun gaur egindako lasterketan bigarren sailkatu nintzen. Espainiako Kopan, Boi Taull-en (Lleida), kilometro bertikalean 14. izan nintzen eta bakarkakoan 15. postuan amaitu nuen, pozik amaitu nuen.

Joan den astean jokatu zuten, Candanchun, Euskal Kopako lehen proba. Eta Euskal Selektzioa deialdian zeunden.

Bai, baina egun batzuk lehenago gastroenteritis batek jota utzi ninduen. Azken ordura arte zain egon nintzen, ea erreperatzen nintzen, baina erabaki zuzena hartu nuen; taldekideak animatzen egon nintzen.

Aitor Ugarte aramioarra ere Euskal Selektzioarekin lehiatu zen, eta junior mailan bigarren sailkatu.

Motor galanta duen kirolaria da Aitor, eta mendiko eskirako gauza bat du ona, gaztetasuna. Mendiko eskian esperientzia pilatu behar da, teknika landu, aldaketak ondo egiten ikasi... eta horretarako denbora behar da. Bada, pentsa Aitorrek zenbat egin dezakeen aurrera...

Zu non moldatzen zara hobeto, mendi lasterketetan ala mendiko eskian?

Emaitzei erreparatzen badiegu, mendi lasterketetan hobeto moldatzen naiz. Gaztetan, mendiko eskia egiten nuen, baina berandu hasi nintzen lasterketetan parte hartzen, eta oraindik asko dut ikasteko, bereziki teknikari dagokionez.

Horregatik aukeratu duzu aurten mendiko eskia?

Mendian inguru alpinoan ibiltzea atsegin dut nik, eta mendiko eskiak hori ematen dit. Kontrara, mendi lasterketa batzuetako parajeak ez zaizkit erakargarriak egiten, halakoetan gehiago kostatzen zait motibazioari eustea.

"MENDIKO LASTERKETAK EGINGO DITUT, BAINA NIRE KABUZ JOANDA, KONPROMISO BARIK"

Eskoriatza hasi da bigarren itzulian aurpegi hobea erakusten

ARETO FUTBOLA Bi partidu jarraian irabazi dituzte, orain arte egin ez dutena. Antiguoko, biharko kontrarioa

X.U. ARRASATE

Eskoriatzak maila nazionalen geratu gura du, eta hasi dira helburu hori lortzeko bidea egiten. Lehenengo itzulian ez zuten emaitza on askorik batu, hamahiru partidutatik bi baino ez

zizuten irabazi. Eta orain, bigarren itzulia hastearekin batera dagoeneko garaipen kopuru horretara iritsi dira. DKS sarietan kirol talderik onenaren saria jaso berritan, Aratz Kortazar kapitainak aurreratu zuen

bigarren itzulian gauzak hobeto egin gura zituztela. Esan eta egin. Hala, bihar (18:00) sailkapenean atzealdeko postuetatik ihes egiteko kontrario zuzen Antiguokoren bisita izango dute.

Euskal Ligakoak, erdialdean

Bestalde, Euskal Ligan jokatzeko dabilen Mondrate eta Aretxabaleta erdialdeko postuetan egonkortzeko lehiak dabilta. Hain zuzen, bi talde horiek etxean jokatu dute asteburuan, eta kontrario zuzenak izango dituz-



Batzareren kontrako lehiak. GOIENA

te aurrean, gainera. Mondratek 20 puntu ditu, eta 22 puntu dituen Sestao izango da Musakolan domekan (18:00). Aretxabaletaren kontrario Jaixki, berriz, zazpigarren postuan dago, 23 puntuarekin, eta 14 puntu dituzte aretxabaletarrek (zapatua, 17:00, Ibarra).

Eskoriatzako neskek, gaur

Eskoriatza taularen erdian dago, eta Sanpedrotarrak bigarren postuan. 22:00etan jokatu dute gaur, Manuel Muñoz kiroldegian.

Liderra hartuko du Bergarak, Eibar Urko

FUTBOLA Ordiziarren kontra atzerapausoa eman zuten eibartarrek (1-2), baina orain arte talde erregularrena izan da, hiru partidu bakarrik galdu ditu eta. Bergarak duela hamabost egun Mondraren kontra erakutsitako maila errekuperatu gura du

Xabier Urzelai ARRASATE

Eibar Urko ez da ligan gol gehien egin dituen taldea, bigarren dagoen Anaitasunak lau gol gehiago egin ditu eta (47). Eta atea defendatzen ere Anaitasuna hobeto ibili izan da, Eibar Urkok, Hernanik moduan, 21 gol jaso ditu eta. Baina orain momentuan 45 punturekin lider dagoen taldeak ez du gainontzekoek moduan txakalaldirik izan. Ez zuten liga ondo hasi –berdinketa bat eta porrot bat–, baina ordutik oso erregularrak izan dira. Hori bai, joan den astean Ordizia puntu makalak bilatzeko kapaz izan zen, eta horretan saiatuko dira bihar Barkeroren mutilak.

Bergara, berriz, joan den astean esku hutsik bueltatu zen Urolaren zelaitik (2-0). Talde horrek hiru hilabete zeramatzan etxean irabazi barik, eta mahoneroen kolkotik amaitu zuten bolada txarra. Atzealdeko postuetatik irteteko borrokan jarraitzen du Bergarak.

UDA, lau astez puntuak batzen

Aretxabaletak, berriz, Zarautz hartuko du domekan. Bi talde horiek kontrario zuzen dira sailkapenaren erdialdeko postuetatik lehian, Larbururen mutilek hiru puntu gehiago



Bergarako jokalaria Hernaniren kontrako partiduan. GOIENA

baino ez dituzte eta (30). Hala ere, azken lau jardunaldietan Aretxabaleta puntuak batu eta batu ibili da –lau garaipen eta berdinketa bat–. Kontrara, Zarautzek joan den astean irabazi egin zuen Amaiak Baten kontrako kostaldekoen derbia, baina bost aste negargarri zeramatzan.

Mondrak Lesakan du hitzordua

Beti Gazte da domekan Mondrak aurrean izango duen taldea. Lesakarrak denboraldi txukuna egiten dabilta –laugarren sail-

kapenean–, baina zuri-moreek momenturik egokienean harrapatuko dute kontrarioa, azken lau partiduetatik bakarra irabazi du-eta Mastegin jokatzen duen taldeak.

Emakumezkoek, atsedena

Emakumezkoen ohorezko erregional mailan atsedena izango dute asteburuan. Leintz Arizmendik ikusgarri jarraitzen du, oraindik ez dute partidurik galdu –berdinketa bat–. Seigarren dagoen Bergarak, berriz, Urnietan jokatuko du.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Bergara-Eibar Urko

Zapatua. 16:30. Agorros.

Aretxabaleta-Zarautz

Domeka. 16:30. Ibarra.

Beti Gazte-Mondra

Domeka. 17:30. Lesaka.

ERREGIONAL PREFERE.

Antzuola-Danena

Zapatua. 16:00. Estala

Mondra-Ilintxa

Zapatua. 16:30. Moiategi.

Aloña Mendi-UDA

Domeka. 16:30. Azkoaga.

OHOREZKO GAZTEAK

Zumaiaiko-Bergara

Zapatua. 12:30. Zumaia.

Aretxabaleta-Anaitas.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

Mondra-Elgoibar

Zapatua. 18:30. Moiategi.

Aloña Mendi-Urki

Domeka. 18:30. Azkoaga.

EMAKUMEZKOEN OHO.

Atsedena.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Antiguoko

Zapatua. 18:00. M. Muñoz

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Sestao

Domeka. 18:00. Musako.

Aretxabaleta-Jaixki

Zapatua. 17:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Xuga-Mondrate

Gaur. 20:30. Bera.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Sanpedrot.

Gaur. 22:00. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Seguros-Fagor Indust.

Zapatua. 17:45. Muskiz.

Basauri-Ford Mugarri

Zapatua. 18:15. Basauri.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Usurbil-Cons. Aloña

Zapatua. 19:00. Oiardo.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Ordizia-Soraluce Berg.

Domeka. 12:00. Ordizia.

SASKIBALOIA

EBA

Filipenses-MU

Zapatua. 18:00. Palencia.

EUS. BIGARREN MAILA

Alkideba Ointxe-Salle.

Zapatua. 18:00. Musako.

Berrio-Mekalki Aloña

Domeka. 18:00. Bilbao.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Erroibi.-Berg. Soraluce

Domeka. 12:00. Irun.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Eskoriatza-Take

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE

Zarautz-ART

Domeka. 13:30. Zarautz.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

OÑATI

Egubakoitza. 19:00etan

hasita bost partidu.

Zapatuan 16:00etan

hasita hiru partidu.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 19:00etan

hasita lau partidu.

ANTZUOLA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita partidu bat.

BERGARA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita hiru partidu.

Zapatuan 17:45ean

partidu bat.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:15ean

partidu bat.

ESKUBALOIA Kanpoan dute hitzordua bi talde nagusiek

Ford Mugarri Arrasatek (18 puntu) sailkapenean lider dagoen Corazonistasekin berdinduta dagoen Basauriren (31) kantxan jokatuko du zapatuan 18:15ean. Arrasatekoak, berriz, seigarren daude sailkapenean. Fagor Industrial (17) taldeak, aldiz, postu bat atzerago dagoen Muskizen kantxan jokatuko du zapatuan (17:45).

ZIKLISMOA Julen Irizar pozik denboraldi hasierarekin

Euskadi Fundazioko ziklistak iaz izan ez zituen sentsazio onak errekuperatu ditu, eta denboraldi hasiera honetan bergararra hainbat ihesalditan sartu da. Eguztenean, Valentziako Voltan, lau txirrindularik osatutako ihesaldian sartu zen, eta helmugarako hiru kilometroren faltan harrapatu zituzten: "Indartsu hastea zen asmoa, eta pozik nago".

dks'19
DEBAGOIENEN
KIROL SARIAK



Herritarren Sarirako bozketan parte hartu dutenen artean egindako zozketaren irabazlea:

MAITE GANTXEGI
(Bergara)

Urtebeterako abonamendua doan Bergarako kiroldegian.

Zorionak!



Maite Gantxegi sarria jasotzen. Aitor Aranzabal Bergarako Udaleko Kirol z. negoziatzailea eta Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko Kirol z. zuzendariaren eskutik.



Aurtengo Huhezinema film laburren jaialdiaren antolatzaileak. HUHEZINEMA

Beldurrezko filmi keinu egingo die Huhezinemak

Lara Gonzalez arrasatearrak egin duen kartela izango da hamahirugarren jaialdiaren irudia; martxoaren 25etik 27ra bitartean euskal film laburren erakusleia izango da Aretxabaleta. Lehiaketaz gainera, zinearekin lotutako askotariko ekintzak izango dira

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
MUKo Ikus-entzunezko Fakultateko 4. mailako ikasleak eta Iban del Campo irakaslea burubelari ari dira martxoaren 25etik 27ra bitartean egingo duten Huhezinema film laburren jaialdia prestatzen. Hamahirugarrena izango da, eta "zenbakiarekin jolastuz" beldurrezko filmetan oinarritu dira aurtengoaren gaia eta estetika proposatzeko.

Lara Gonzalez arrasatearrak egin duen kartela aukeratu dute aurtengo irudi: "27 kartel jaso ditugu; orokorrean, lan oso landuak bidali dizkigute eta zaila egin zaigu akordio batera heltzea, baina, azkenean, Gonzalezen lanaren originaltasuna goraipta-

tu nahi izan dugu", diote antolantzaileek.

66 lan jaso dituzte

Domekan bukatu zen filmak bidaltzeko epea, eta jasotako uztarekin pozik daudela adierazi dute antolatzaileek: "66 film labur jaso ditugu, eta pozik gaudu orokorrean lanek duten kalitatearekin. Oraindik ez dugu film guztiak ikusi eta aztertzeak aukerarik izan, baina horretan hasi gara asteen. Iaz baino lan gutxiago jaso ditugun arren, kopuru polita da aurtengo ere. Oso ezberdinak dira generoari, gaiari edo filma egiteko erabili duten teknikari begiratuta. Beldurrezkoak ere badaude tartean".

La Horrorsa Saria eta gehiago

Jasotako artean kopuru jakin bat aukeratu dute Sail Ofiziala osatzeko; eta hautatutako bakoitzak 200 jasoko ditu. "Bost sari eskuratzeko lehian arituko dira horiek: Goiena Saria, euskarazko film onena; Vertigo Saria, dirulaguntza publikorik gabe ekoiztutakoa; Mundukide Saria, giza eskubideen eta justizia sozialaren gaiak egokien txertatuta dituenarentzako; Ikusleen Saria; eta aurtengoa, La Horrorsa Saria ere badugu, beldurrezko film laburrak saritzeko. Irabazleak Donostiako Fantasiatzako eta Beldurrezko Zinemaren Asterako bi gonbidapen jasoko ditu".



LARA GONZALEZ

"Collage digital bat egin dut"

LARA GONZALEZ
KARTEL IRABAZLEA

Arrasateko diseinatzaileak eskarmentua du kartelak egiten, eta hainbat sari irabazi ditu; asteen jakin du Huhezinema jaialdirako berea aukeratu dutela.

Zelakoa egin duzu?

Collage digital bat egin dut. Gaia beldurrezko filmak izanik, ezinegon sentsazioa sortzen saiatu naiz hartu ditudan irudien bitartez; panpina baten aurpegia, zomorroak eta granada baten itxurako burmuina ikusiko dituzue.

Zer diote epaileek?

Diseinu oso txukuna dela, originala eta euskarri eta formatu ezberdinetarako aproposa dela. Pozik nago.

Zelan landu duzu?

Zailena ideia aproposa topatzea izan da; hori eginda, samur joan da.

Zinemazalea zara?

Gustatzen zait, nahiz eta haur txikiarekin, orain, zainera gutxiago joan.

Jantzien industriaz hausnartzeko spotak aurtengoa

